

ANASTASIO ARRINDA ALBISU

(Anes Lazkauko)

AMAIRU
KONTAKIZUN

EUSKERAZAINZA

**EUSKO JAURLARITZAREN
diru laguntzaz,
dago aterea liburu hau.**

© Anastasio Arrinda

ISBN: 84-7086-223-5

Legezko gordailua: S.S. 482/88

ITXAROPENA, S.A. - Araba kalea, 45 - Zar-autzen irarria

TENE

(Robustene Mujika)
euskal-idazle miñari'
bi'otz-biotzetik
bere jaiotzaren
eungarren urte-mugan.

Deban. Maiatzak 24. 1988.

NUN - ZER

O.-Ataria.....	9
1.-Aztia.....•.....	13
2.-Terranoban.....•.....	23
3.- Elurra eta gurutzea.....	31
4.-Matxalenenkomeriak.....	37
5.-Ezkurra, urdai-azpikoetafutbola.....:	47
6.-Izartxo.....•••	55
7.-Aralarkoillemozketaketairaunsugea.....	63
8.-Eun rubloak.....•••••	79
9.- Illuna, Petralin eta Peruren arpoia.....;	89
10.-Zaldun iraulia.....	99
11.-KatalinetaPiarres.....	117
12.-Katamixar baten istorioa.....	123
13.-Frentetik.....•.....	139

AMAIRU KONTAKIZUN

Ipuiñak al dira? Ez danak. Benetako gertakizunak al dira? Bai batzuek. Besteak erdizka... Orregaitik aukeratu det Kontakizun izena.

Guztiak dira kontakizun.

Erderazko «narrativa»ri dakion itza.

Zergaitik amairu?

Ogei geiegi izanen zirelako. Luzetxo.

Amar, gutxiegi. Motzegi.

Amairu: dozena eta propiña.

Sorginkerietan sinisten dutenentzako, zaldi-perra ipiñi diogu aldamenean, okerrak zuzentzeko edo... Mamu jantzitako leizeko aztia ere bai.

Egilleak lan asko idatzi ditu «Anes Lazkau'ko» izen-goitiarekin. Oitura ala zan. Geienak erabiltzen zuten izen-ordezko bat.

Ona, izen oneri buruz, zerdioten «Lazkao 1988» aldizkarian:

«Gezurra ba-dirudi ere, 'Anes Lazkauko" ez zen lazkaotarra jaiotzez beintzat. Lekeitio'ko errian jaio zan 1.912-VI-17'an. Bere aita Eustakio, itxas-ontzietako kapitaina, lekeitiarra zan eta arutz eraman zuan lazkaotarra zan Errementariko Iñaxi. Barakaldo'n ere biziizan zan alditxo batean, baiñan mutilkoxxorra zan artean etorri zan Lazkao'ra bizitzera. Eta erri au izan da geroztik bere jaiot-erri bezala. Ortik bere lanetako asko izenpetutzeko erabili zuan "Anes Lazkauko"».

«Erroma'ra joan zan bere ikasketak sakontzera, eta 1.960 'garren urtean "doctor" tituloa atera zuan teologi-saillen. Eta ikasketa auetxek eman zioten bidea bere lenengo liburua argitaratzeko: Religion Prehistorica de los vascos (1.966). Auxe izan bait-zan bere maixutituloa ateratzeko lana».

«Ala ere, bere lanik geientsuenak euskeraz daude idatziak, izan ere, eta Kardaberaz Bazkunako bezala, Gasteiz'ko apaiztegian sortu zitzaion bere euskerarako zaletasuna».

«Eta onatx orain berak euskaraz eman dizkigun liburu eta liburuxkaren zerrenda:

- *Oto eta Pototo*. 1.968.
- *Juantxo Txiki*. 1969.
- *Euskalerra Zaarra*. 1.969.
- *Semeno de Lazkano. Anai arteko gorroto*. 1.970.
- *Umeen eguna, Deba*. 1.972.
- *Euskalerra Zarreko Jainko txikiak*. 1.973.
- *Euskalerra eta Eriotza*. 1.977.
- *Euskalerra eta Arrantza*. 1.977.

*Eta auen artean, eta 1.986'garren urtean erderaz idatzitako beste liburu bat ere eman zigun: *Magia y Religion Prehistorica de los Vascos*».*

«Eta auetxek dira bere idaz-lanetako batzuek, baiñan ez danak. Bere apaiz-urrezko eztaietan poema liburu bat eman bait-zigun, eta bazkaldar guztien artean zabaldu. Izan erejoan zan Urrilla'ren 25'an bere apaizgoaren urrezko eztaiak ospatu zituan Deban'n».

«Eta antxe eman zigun, eman ere, "Anes Lazkauko" bere *POEMAK*, azken liburua (1.987)".

Ondo dakizun bezela, irakurle, "Anes Lazkauko" k beti idatziz dizu ere, urtean-beingo LAZKAO aldizkarionetan».

Anastasio ALBISU'k

AZTIA

Euskalerra zarrea gertatu zan.

Urteak arrezkero millaka pasa dira.

Arrezkero millaka aldiz urregorritu ditu ota-loreak Euskalerriko landa eta malda-gorak. Milla bider entzundu kukuak oianean txantxangorriaren tsiu-tsiu, onen kabian arrautza ipiñi aurretik. Milla bider Udaberriak agur egin dio Negu Beltzari:

-Agur. Datorren urterarte.

Basoetan leoi eta artz, otso eta azari, zaldi eta larrabei, auntz eta basauntz, alkarren arteko iskanbilletan, askatasun osoa galtzen asita, gizonaren menpeko izateko bidean...

Aitzgorriko koba-zuloan aztia aztikerietan eta an beera-goko ibarrean erria txaboletan, beti egoera larrian; beti egun obegoen itxaropenean...

Mari-gorringo urduri dabil denbora aldi auetan: senarraren maite-minez urtutzen eta senarrak auzokoa maiteago.

Alaz ere, maite du Mari-gorringok bere Hartz biotzekoa.

-Zeinek egin ote dio begizko?

Sorginkerietan burua naasi Mari-gorringok.
Sorginkeria arnasean ere.
Sorginkeriz betea izan du euskaldunak, gizaldietan zear,
bere burua eta gogo-toleste guztiak. Sorginkeria leizee-
tan sortu zan eta antxen dugu euskaldunok geure iturbu-
ru eta jatorria.

Illargi gabeko gau illun batean an doa Mari-gorringo,
malkorretik malkorrara, goiko aztiaren leizera.

-Dan, dan...!

-Nor da?

-Ni naiz, Jauna, Bordatxuriko Mari-gorringo.

-Sar barrura.

Atakan gelditu da Mari.

-Barrurago! Zer nai den?

Krisailuak ugari argi-gorri-beltzeetan, keia dariola;
orma-zuloan ontzaren begi zabal illetargitsuak diz-diz
krisailuen argitara; buru-ezurak nun-nai; suge bizia es-
kuetan aztiak; saguzarrak aidean; ikatz-arrastoekin egin-
dako zaldi, basauntz, larrabei, basurde eta bisonteak pa-
reetan...

Mari-gorringo aztiaren aurrean belauniko:

-Zer nai den? -Orru aztiak.

... nai den ... nai den ... nai den ...

Oiartzunak leize-zulo-barrutik erantzun. Ozkiri larria
Mari-gorringok bizkar-ezurrean goitik beera:

-Ara, Jauna, nere senarraren biotza galdu dut.

-Ta...?

-Zera, maite-miñez il-zorian nagoela...

-Eta, zer nai den...?

... nai den ... nai den ... nai den ...

Berrito oiartzunak eta berrito ere ozkiri Mari-gorringok
bizkarrean zear:

-Ara, Jauna, kutuntxo bat nai nuke.

-Zertarako?
 ... tarako ... tarako ... tarako ...
 Oiartzuna ez zan ixiltzen Mari dar-dar ipiñi arteko guztian.
 -Nere senarraren biotza birrerosteko.
 -Birrерosteko?
 -Bai. Bere maitasuna nereganatzeko, alde eginda daukateta...
 -Emanen dizut kutuna.
 -Bai...?
 -Bai.
 -Eskerrik asko, jauna.
 -Ez aih bizkor.
 -Zer, bada?
 -Aurretik leoi-eme baten iru tanta-esne bear ditut, kutuna egiteko.
 -Irutanta-esne...?
 -Leoi-eme batenak. Ekarriko al ditun?
 -Bearko, jauna.
 Leizetik atera danean, biotza argi eta burua naasi Mari-gorringok. Nundik esne-tanta oiek atera? Nora jo bear dut? Zer bide erabilli bearco dut? Buruan dana illun, lainoitsuak artuta bezala. Nora-biderik ihundik ageri...
 Baiña, maitasunarentzat eziñik ez da.
 Ez da izango ere.
 Eta Mari-gorringoren Hartzenganako maitasunak neuririk ez du, itsaso zabal baino zabalago eta ur-aundiak baino aundiago izan. Bere biotzeko gogo beteko zuan nundik edo andik; bere naia lortuko zuan goitik ez bada azpitik.
 Bai, orixe!
 Burua erabilli bearco. Erabilliz, erabilliz, orra or nun gogoratzen dan, an beeran, itsaso aldeko oian eta baso baten ertzean, ibaitik beste aldera, bazala leoi-kabi bat.
 Egunsentirako bidean da Mari-gorringo itsaso bidean.
 Biotza urduri dijoakio:

-An ote da oraindik kabia? Alde eginda ote daude?
Esnea bear dut nai ta nai ez.

Gerturatu danean, aren poza! Leoi-emea ikusi du titiak dindilizka. Erdibi egiña dagoela dirudi. Esnea ortxe dago ibaiaren beste aldera. Esku luze bat banu, orain artzeko eran.

-Emen daukat, nere begien aurrean; baina, zer egin? Nola nere jokoa eraman piztia iruzurtzeko? Egunez burua pentsaketan lapikoa irakitzen bezala eta gauez lorik atzeman ezin, alde egiten bait dit saretik urak egiten duen antzera.

-Kutuna bear dut!

Dio garraxika biotzak.

-Kutuna bear dut! Kutuna bear dut!

-Nundik lortu? Nundik lortu? Erantzun buruak.

-Kutuna bear dut! Kutuna bear dut! Kutuna bear dut...!

Naimenaren indarrak buruan jo du bein da berriz: eunka bider, millaka bider sukarrian burniak jotzen duan antzera eta, azkenik, txinpartaren argia buruan piztu da. Illunbeak iges. Burubide guztiak eratu ditu gogoaren ganbaran.

Jaiki da Mari-gorringo oetik artaldera joateko. Ortzian izarrak nir-nir egunsentiaren zai. Antxumeak amaren epelean kokaturik, lo. Illebeteko antxume txuri-beltz otzana eskuetan artu eta bere bularren gaiñean estutu du, amaren epela galdu ez dezan abereak.

-Gaixoa...! Atoz nigana, gaxo ori...!

Bere beatzeekin buruko ille kirruak eragiten dizkio maitekora.

-Nere maite-miñaren sendagarri bear zaitut, enetxo...

Eskuak gorri odoletan Mari-goringok: antxume gaixoaren odola. Mariren zorionak beste iñoren eriotza du egarri: maitasun zorionaren prezioa, antxume otzanaren erio.

-Ala da, tamalez. Beste erremediorik ez dut...!

Zumezko otarra garbian antxumea artu eta badoa ibaiertzetik beera leoi-emearen billa.

-Arkituko ote dut...?

Oraintxen egun-argiak illuna menperatzen. Basoan txoriak egunari agurka. Mari-goringoren biotza taupadaka, leertubearrean:

-Lortuko ote dut nere amesa? Izanen ote dut nere eskuetan leoi-emearen titi epela... ? Atzemanen ote dut bere esne zuria...?

Bat-batean leoi zaarraren zantzoak ixilarazi ditu txoriñoen txiru-lirulak eta mendiek alkarri erantzuten diote orru ikaragarria.

Dar-dar Mari-goringok.

Biotza taupadaka leertu bearrean.

-Ene biotz, baretu adi.

-Kutuna bearrezko. Biotzak erantzun.

-Geldi adi...!

-Kutuna bearrezko!

-Baketu adi...!

-Kutuna bearrezko!

Orru berriro leoiak.

Oiartzunak erantzun dio leoiaren orruari eta bat-batean basoak orruz bete dira. Aizea gelditu da adarretan zintzilik. Ostroak ixil. Txoriek lepoa ernai. Enbor zaarreko

illunpeari azariaren belarriak tente... Auzo osoa bildurrez dar-dar.

Emakume argal batek bakarrik dirau zutik errege onen aurrean. Belaunak alkar joka ikaraz; baiña, biotzak indar:

-Kutuna bearrezko...!

-Ene biotz, bildur naiz eta etengo zait gogoa...

-Kutuna beharrezko!

Aragi-usain epela leoiaren sudurretara ibaiaren beste aldetik:

-Aotik lerdea dariola, ezpain-gaineko illeak miazten ditu bere mingain luzez gute leoi zaarrak...

Mari-gorringo eta leoiaren bitartean leiarrezko ur gardena: erreka garbi-garbia. Mari-gorringo uretan oiñak sartzean, amorraia izutu da eta arri-azpian gorde du bere izua. Uraren otz-ikara Mari-gorringoren gorputzean gora. Biotza taupadaka.

-Enebiotz...!

-Kutuna bearrezko!

Ibai-aldeko usai gozoak eraginda leoi-emea dator bere kumeentzat janari-billa. Mari-gorringo ibaiaren ertza arrapatzeko dago oraindik:

-Ene biotz...!

-Kutuna bearrezko!

Arin-arin, leoi-emea eldu baino leen, legorrean da Mari-gorringo. Bertan otarra laga, saskitxo bertan utzi aragi gozoz beteta, eta ibaitik beste aldera berriz ere. Orain, bien artean, ura dago. Otarraren aurrean zutik, Mari-gorringori begira dago leoia. Begiak Marirentzat; baina, sudurra saskiko aragiarentzat.

Zalantzan unetxo batean. Zein une luzea Mari-gorringoarentzat. Azkenik, usainak garaipena. Sudurrak irabazi.

Mari-gorringoarentzat orruak; antxumeari ortzak, ordea. Bi emeak alkarri begira. Ibaia dute bien arteko esi. Leoi-emeak ez dio Mari-gorringori begiak gainetik kentzen; ortzekin antxumeari eldu dio...

Laurden-erdi bat jan ondoren, beste iru-laurdenak kabira daramazki leoi-kumeentzako festa, Mari-gorringoren estutasunari esker...

Saskitxoa artu eta etxeratu da Mari-gorringo.

* * *

Bigaramonean jokabide berdiña.

Egusentirako antxumea otarran, saskitxoan, otzaran...

Errekara elduda.

Leoiak orru.

Urak pasa ditu Mari-gorringok, otarra utzi lurrean eta inguruko zugaitz-enbor baten atzetik izkutatu da. Ez du uraren beste alderik arrapatu nai. Bildurrak dardar:

-Ene biotz...!

-Kutuna bearrezko!

Leoi-emeak begiak Mari-gorringori; ortzak, antxumeari. Bertan laurdena jan eta beste zatiakin kabira.

Mari-gorringok saskia jaso du lurretik eta, une artan, argi bizi bat sortu zaio barneko illunbeetan; bere itxaropenaren egusentia...!

Irugarrenez antxumea...

Irugarrenez ibaia...

Irugarrenez leoia, leoi-emea...

Irugarren aldi onetan, Mari-gorringok otarra arbola lodikote baten ondoan utzi du eta bertan, zugaitzaren atzetik, gorde du bere buru, alde egin gabe.

Leoi-emeak orru. Mari-gorringoren belaunak dar-dar:

-Ene biotz...!

-Kutuna bearrezko!

Kalabaza-ontzia eraman du Mari-gorringok. Eskuetan du.

Leoiak antxumeari eldu dio, iztarrari, eta ari da mauka-mauka jaten. Mari-gorringorentzat auxe da une egokia. Kalabazak ere eskuetan dar-dar:

-Ene biotz...!

-Kutuna bearrezko!

Eldu dio errapeari. Titi epelak esnea dario. Esne-tantoak kalabaza-barrura. Bularra apurtu bear biotzak barnean:

-Ene biotz...!

-Kutuna bearrezko...!

Otarra bertan laga eta korri Mari-gorringok ibaiez beste-aldera. Biotzaren taupadabizkorrak, pozaren-pozez leertu bearrezkoak...!

Bular artean kalabaza txikia, korrika dijoa maldan-gora Mari-gorringo Aizgorriko leize-zulora. Amesak bitartean:

-Ene biotz, kutuna izanen dugu...!

Barru-barneko itxaropen-egunsentia eguzki bete biurtu zaio Mari-gorringori:

-Ene biotz, gurea dugu kutuna!

-Zalantzarik gabe, Mari?

-Bai biotz eta kutunarekin batera gure Hartzaren maitea era bai. Jeiki adi, ene biotz, eta bota irrintzina luzeena...!

Mari-gorringoren irrintzia beeko ibarrean zear eraman zuan oiartzunak aterik-ate bailarako borda guzietara.

Eldu da Mari-gorringo goraino. Aztiaren ate-aurrean dago zutik:

-Dan, dan!
 -Nor da?
 -Mari-gorringo.
 -Berrero emen?
 -Bai, jauna.
 -Zer nai den oraingo onetan?
 -Iru egun direla, kutun billa etorri nizaitzun, ene Jaun orregana...
 -Bai. Eta zer...?
 -Esnea bear zenduala, esnea, kutuna egiteko...
 -Ez. Leoi-emearen esnea!
 -Nerekin dut esne ori. Ona emen!
 Argiaren dir-dirra Mari-gorringok begietan; zorion be-
 tearen dirdirra. Onela dio arro, bularra itxaropenez bete-
 ta:
 -Ona emen esne ori...!
 -Ekatzan.
 -Zure agindua bete dut; ordez, kutuna zor didazu.
 -Emanen dizut kutuna.
 -Eman! Eman!
 Biotza Mari-gorringok taupada larrian. Itxaropen zo-
 riontsuaren taupadak.
 -Eman! Eman!
 -Kutuna izanen dezu.
 -Aupoza...! Eman! Eman!
 -Bainan, aurretik galdera batzueri erantzun.
 -Nai dituzunak egin.
 -Nun eta nola lortu dituzu esne-tanta oiek?
 -An eta onela lortu izan ditut esne-tanta oiek, jauna.
 -Orain kutuna bear duzu?
 -Bai, jauna, kutuna bear dut!
 -Ona zuretzako kutunik ederrena: leoiakin egin du-
 zuna, egizu zure senarrarekin.
 -Eneee biotzzz...!!!

1985

TERRANOBAN

«Urrutiko intxaurrak amalau; gerturatu eta, lau».

Bai ala dio esaera zaarrak; emen, ordea, alderantziz gertatzen duk, etorri giñan urrutirago eziñ. Aizu mutiko udaberria loretu duk, narruak arrapatu dizkitugu kastorenak, eldu al zera? Negua izan da luze...

-Bai, eldu naiz.

-Txomiñ, i kontramaixuakin Keperiñen batelera.

-Bai, jauna.

Jantzi dituzu narruzko galtzak eta soiñekoa, gaiñetik zirazko jantzia euriaren kontrakoa. Bai ba, emen euri asko egiten duanean... Euria bakarrik ez, txo; baita izotzak, elurrak eta laiñoak; iaiñoakin galdu zan Bermeo'ko txalupa bat joandan udazkenean...

-Txomin, eldu arraunari.

-Bai, jauna.

Ontzi nagusitik aldendu zerate itxasoan, kolko zabalean, bi milla inguru. Arraiña dago ur-eztali txaluparen azpitik. Aspergarria ere baduk ainbeste aterabearra, millatik gora jaso dituk gaurko goiz onetan. Nere «Mazuzta» beltxarana zai daukat oporraldi batean lurreratzen geranean, a zer besarkada emango diotan Opor-Portu'ra elduko naitzenean... Etorri zera; bai kosta ere. Nola pasa dezute ne-

gua Euskalerrian? Ez dut astirik itz egiteko, ire ezpain-kereizeak txukatu nai ditut, gero itx egingo dezu... Besar-kada luzea, izarrak nir-nir zeruan...

-Naikoa degu gaurko, bestela txalupa ondoratuko zaigu-ta.

-Bai, eguzkia itxaspean erortzera dijoa. Illunak arrapatuko gaitu.

-Zenbat?

-Bi millatik gora, ikusiko diagubesteak zenbat arrapa dituzten. Egunero eztabaida. Bi milla eta seireun da emezortzi bakaillau gure txalupak. Ez aundi eta ez txiki, neurririk onenetakoak. Kapitanaren txalupak irumillatik gora, artarako duk bera kapitana; gutxien arrapatu dituna pillotua, izan ere gure kontramaixua bizkorra duk, datorren urterako egiñen dute pillotu...

St. Sprit ontzia Ziburu'tik martzoaren erdian irten eta apirillaren aizkenerako San Lorenzo ibaiaren kolko zaba-lean kokatu. Eun tonelada besterik ez du. Doniane Loitzungo kaietik larogei ontzi atera ziran batera. Balearrantzarako zirenak, aundiak eta ederrak. Gure ontzi kaxkarra, bakaillautarako.

Santa Barbara karrikan bizi nauzu. Zaarrak an ditut eta beste sei anai-arreba nere partillaren zai. Iriña ekarri degu gurekin barruan ogia egiteko; gailleta legorra ere gurekin degu. Erri onetan bizia aurrera eramán aal izateko, Terranoba'ra etorri bear. Keperin auzoko laguna dut. Kapitan zaarra dugu gurekin, berrogeiak igaz bete zitun. Bera zaarrena barruan. Bigarren joan-etorria egiten ari naiz. Joan dan kanpaiñan ezagutu nuan «Mazuzta» beltxarana, euskeraz erakusten ari nazaio, zenbait itz ikasi ere egin ditu.

Barruko bizitza gogorra da, lekua ere txikia, berrogeita sei lagunentzako ontzi txikitxo. Bakaillauz betetzen da-

nean emen ez dago une zabalik; gaiñera narruak ere pilloka ekartzen dizkigute barrura uskeri baten truke; kutxi-Uo eta labaiña, aizkora eta itai, azkonak eta izpilluak, sagardua eta gailletak kastor-narruen truke... Narruakin zetorrela esagutu nuan «Mazuzta», beltxarana da, begiak ditu ezti-kolorekoak, ez ditu amasei urte baiño geiago izango, neronek ere ez ditut emezortzibaiño; eskimala da eta bere aita eta anaiak gurekin lan egiten dute bakaillaua legortzen...

-Lan ederra egin degu gaur. Zazpi milla arraiñ arrapatu dizkitugu. Biar goizean eramango dizkitugu legorretara. Txabolak jasota al daude?

-Bai, jauna. Txabolak jasota eta arraiña esegitzeko lekuak era bai. Kaia aukeratu genduan joan dan urtekoa, piñeta bat tantai antzera jaso eta gure ontziaren izena jarri degu muturrean, emen ez da beste ontzirik sartuko, guretzako izanen da kai au udaberritik udazkeneraiño...

-Legortu aurretik gatza eman bakailluari. Aizeetan eguzki gutxibear, eguzki aundirik gabe obeto...

—Laiñoa sartzen bada?

-Txabolan gorde.

Ara eskimalak emen, kastor-narruak dakarzte, kapitanak egiten ditu trato guztiak, Mazuztak umetxoa dakar jaioberria neguko fruitua nik izena jartzeko, izena nai dezu? Zeurea da Neurea? Eta negu luzean zer egiten dezu? Gizon bakarrekoak gera emen; gaztaiñ-konejuen kolorea du, izena, izena? Gaztaiñ-morkotz jarriko diogu ezena. Ez dit bela izena ikasi, emen gauzak onela al dira, bo, emen ez gaituk Euskalerrian, eskimal guztien aita euskalduna izan zala esaten dutenak ere badituk emen, maitekor artzen gaituzte. Euskalerrian ondo? Bai, Mazuzta. Eta zuek emen? Gose aundiak pasa ditugu, negua gogorra izan zait, begira Gaztaiñ-morkotzari zeure begiak

ditu urdiñ-urdiñak itxasoaren antzera, begira egiozu zeñ maitagarria dan. Umea esku artean zapuztu zait, amari biurtu diot... Biotzean gorde izan zaituk ene euskaldun biotzekoa, negu beltzaren-beltzean zeu izan zaitut neure illetargi betea, zeure begien argiaren itxaropenak eutzi nau gogorra onez igaro aal izateko, ezurretan utzi nau gure txiki onek, baiña oraiñ udaberrian zure inguruan gizen zure nazauzu berriro zuretzat. Bi begiak ditu diz-diz maitez ezti, begietan eskeintzen dit dar-dar biotza ere, apaltasunik maitagarrienean... Biotza ez tuta zait barnean, giza-bidea berdiña da emen edo an:

-Jauna, semea izan dut Mazuztarekin eta ezkondu nai nuke zure eta Jainkoaren aurrean.

Eztaiak izan ziran Pazko-egunean, sagardoa eta saiaskiak ez ziran palta egun artan, ba zan ardo eta pattarra ere, eurak izokia eta artza-zuriaren urdaiazpikoak ekarri zituzten, soiñu-aspoak ere agertu ziran, suaren inguruan festa egin degu euskaldunek eskimalekin batuta. Egin ziguten naruzko txabola ere eta antxe biltzen nintzan Mazuztarekin aal nuan guztietan... Udarako egun luzeak gaua du motza, eguzki betea zeruan egunez eta zorionaren illargi betea gauez, bakaillauz osatu genduzen ontziaren barruak... Asieran, elurraren ondoren loratxoak margo-biziez oriak agertu ziran, gero gorriak eta azkenik urdiñak, tarteka zuriak era bai... Gaztaiñ-kimu lau libra geiago bazan, Mazuzta edertuta zegoan, zergaitik ez nauzu Euskalerrira eramaten, ez zenduke Euskalerrian etsiko, gerora bear bada bai, oraindik ezin dut, gure oiturak emengoak ez bezelakoak dituzu, gerora bai esango diet eta eramannen zaitut. Negu luzean negarrez utziko nauzu emen illunpean, eraman nauzu zurekin Euskalerrira...

* * *

-Jauna, eun da larogitamar milla bakaillau arrapatu eta sikatu dizkitugu. Narruak ere millatik gora tolestuta

barruan. Etxera begira jartzeko ordua degu. Ontzia pres-
tatu bear eta edertu. Amukoa eta istipu pikearekin anto-
latu lanerako...

-Bai, jauna.

-Arotzak begiratu bat eman egurrari, okerrik sortze-
ko arriskurik ote dan iñun.

-Bai, jauna.

-Kontramaixuak so oyal eta sokeeri.

-Bai, jauna.

-Kaiñoiak puntuan jarri.

-Bai, jauna.

-Txalupak ontzira.

-Bai, jauna.

Legorrean Mazuzta negarrez. Aurra eskeintzen dio eus-
kaldun mutillari:

-Eramazu Euskalerrira euskalduna da-ta.

-Aurten ezin dut. Datorren urtean izanen da.

Udazkena. Aize epela. Oial zuriak puztu dira. Eskimalak
itxas-ertzean agurka. Malkoak zenbait neskatillen begie-
tan. Negar Mazuztak:

-Etorri berriro udaberrian.

Badoa kresal zabalean ontzia Euskalerriruntz. Eskimalak
ondartzan agurka jarraitzen dute. Txomiñ'en biotza erdi-
bi dago odol-jario negar samiñetan:

-Datorren urtean eramago zaitut nerekin.

Labrador'en gelditu zaio biotzaren erdia. Beste erdia
Euskalerrira dijoakio. Zerraldoan etzanik, negar biotzak
odol-tantaka. Mazuzta etxera eraman aurretik, etxekoeri
jakiñ-arazi bear, gerora bai, nerekin ekarriko dut Ziburu-
ra, oraiñ eziñ...

Oial zuriak kai-baztar guztietatik Euskalerriruntz. Ontzi
aundiak, ogei kañoi alboetan, itxasoko jauntxoak, aurre-
tik; baleontziak dira. Aien babesean bakaillautako itxas-

ontzi txikiagoak. Guztiak aberastasunez beteak. Guztiak itxaropenez beteak. Guztiak ames gozoz beteak. Txomiñ dijoa atsekabez:

«Triste bizi naiz eta
ilko banitz obe,
biotzian badaukat
miila atsekabe.
Maite bat maitatzen det
baiñan arren jabe
sekulan izateko
itxaropen gabe...»

Itxaso izoztuak bota ditu andik Kanada, Labrador eta Terranobako ontzi guztiak. Errukarria bertan preso gelditurik iñor bada...

Pasa zan neguan eta ez Txomiñek nai baiño ariñago. Ziburuko saatzak loratzen asi ziranean, oial zuriak berriro itxasoko aizeetan. Txomiñek biotza urduri pozjariotan eta keskatsu, ez bait dut Terranobako gertakizunaren berri emateko ausardirik izan etxean, baiña datorren urtean eginen dut...

San Lorenzo ibaia. Ona emen gure kaia. Ez dagi iñortxo ere bistan. Nora alde egiñ ote dute? Sei lagun legorrera txabolak jasotzera. Besteak arrantzara. Ez da eskimalik ikusten iñun. Txabolak amaitu dituzte. Lenengo bakailauak legortzen daude egurretatik zintzilik eta arri-gaiñetan...

Seigarren gaua. Seigarren kezka Txomiñen biotzean. Bat-batean suak argitu ditu gau beltzeko ur beltzak. Txabolak sutan. Suaren argira eskimalak ikusten dira, gerra santzoka, eztarriak leertu bearrean. Euskalerritik eramandako aizkoraz txikitu dituzte lo zeuden sei euskaldunen gorputzak. Zer zoramenek eldu diete barnean...?

Gerora jakin izan zuten zorabio arren arrazoi-bidea:
udazkenean bale-ontzi baten mutillek, eskimalekin os-
patzen ari ziran egunean, buruzagiari andrea arrapatu
zioten... Andik aurrera eskimal eta euskaldun artean
etzan geiago pakerik berreun urteetara.
Mazutaren berririk etzuan sekula Txomiñek izan.

1981



ELURRA TA GURUTZEA

Teruel mendi-gaiñean dago jarrita.
Bide nagusia goraka dijoa balkoi moduko enparantza bateraiño. Enparantzaren balkoitik, an beeran, tren-bidearen atzetik ibaia eta erriberak... Enparantzatik gora karrika erpiñak aldatzgoran... Goiko gallurrean katedrala.
Gerratea zan.
Ilbeltza...
Orobeltz.
Orootz.
Izotz beltza: emeretzi gradu zerotik beera...

* * *

Egunak dira Teruel gorriak arrapatu dutela. Kontratakea, urdiñen erantzuna, bat-batean izan da ere, ezin dute Teruelik atzeman...
Erribera guzian zanga-zuloak egin dituzte, beren buruak gorde aal izateko... Zanga-zuloak bai, trintxerak bai, beste gordelekurik ez, ordea, gau beltz onetan...
Jatekoa urri ta eskas.

Gaueko izotza, izotz beltza, sudurreko tantana i[^]oztekoa...

Elur-gaiñeko izotza.

Emeretzi gradu zeroren azpitik.

-Pattarrik ba duk?

-Boteilla baten ipurdia zeukat, Gabonetan etxetik bialdutakotik.

-Ementxe gogortuko gaituk gaur berogarririk gabe. Ez jan da ez eran.

-Tok, erazak tragotxo bat.

-Ederra ziok. Zintzurretik beera sentitzen dek onen beroa...

-Lastima dek besterik ez izatea...

-Bai, gizona.

-Aizak i, lo artzen ba diat esnatu nauk lenbailen.

-Berdiñ esaten diat iri ere... Gaizki bear giñazke... .

-Bart, Joxe Etxepare esnatzeke il duk.

-Tiroren bat?

-Ez, gizona; otzak gogortuta...

-Kamioia zeukak ba arrek lo egiteko...

-Kamioi-barruan lo artu dik bart ta goizean barrutik gorputz atera ditek...

-Kamioi-barruan izoztu...! ?

-Gutxirako al dek au...?

Gaiñeko zeru-zapaiean, odei artean, izarrak nir-nir...

Elurrak eta otzaren otzak otsandu ditu gizonen gorroto griña guziak. Pakea dirudi.

Tiro otsik ez da inun entzuten.

Eriotzak zuriz jantzi du bere soiña ta bere magalpean artu ditu gizonok, naiz gorrinaiz urdiñ... lo artuko duen guzia eramango du berarekin...

Izotza elur gaiñean.
Janikez.
Sua egiteko gairik ez.
Ez arbol, ez sastraka...
Ezerez.
Aize miña. Aize meea, aistoa baiño zorrotzago...
-Gaur, Txomin, ementxe garbituko gaituk...
-Su pixkuabat egiterikba'gendu...! Epel artan eutsi-
ko genioke bizirik.
-Bai, baiña, nun arkitu ezer erretzekorik...? Emen ez
zegokezer...
-Or atzean kanposantua...
-Ta?
-Egurrezko gurutzeak daudela or...
-Motell, motell...! Ori sakrilejioa izango dek...
-Gure bearrak ere ez dituk ba txiki...
-Bai, ori ala dek; gauza oiek, ordea, gauza serioak di-
tuk...
-Gurutzea kenduta ere oieri ez zaiek okerrik etor-
tzen; guri, berriz, bai gurutzerik kentzen ez ba'diogu...
-Ni ez neok atrebitzen...
-Egurrezko gurutz oiek gauza dituk, gauza utsak; gu
gizonak gaituk... Gauza guziak baiño leenago ez al da gi-
zona...?
-Bai, bai, arrazoi-bidean agoala ematen dik, ni ez nauk
piatzen, ordea; gurutzeekin ez diat jokatu nai...
-Ori azaleko gauzei geiegi begiratzea dala esango ni-
kek... Azalakin ajola geiago mamiarekin baiño... Joka-
bide zuzena iruditzen al zak ori...?
-Sakrilejioa egingo genduke gurutzea erreta... ta ori
ez ziak konzienziak agintzen...
-Ondo da... Utzi daigun lelo orreri bakean... Ken
pentsamentutik gurutze oiek...

* * *

Gaueko ordu txikiak aurrera dijoaz... Otzageroz da aundiago... Aizearen txistua trintxera gaiñetik...

Loak artuko ditu...

«Txerri goseak ezkurra ames»... Txomiñ amesetan: sua, sua... Su epela... Bat-batean biotza estutu zaio barnean: kanpusantuko gurutzeak sutan erretzen... Ze pekatu ikaragarria...! Garraxiak irten dio eztarritik...

—Zer dek, Txomiñ!

—Zera, amesetan nengoan... Gurutzeak erretzen ikusi zetiat...

-Oraindik ere orrekin abill... Utzi zekbakean gurutze oiek...!

Esatea erreza da, egitea, ordea, ez da aih errez izaten askotan...

Lo-kuluska berriz ere Txomiñek... Zanga gaiñetik iñor dator... Berak garbi ikusten duna:

-Zeiñ zera gurutze astun ori bizkarrean dezula...?

-Ez nauzu ezagutzen?

—Baietz esango nuke...

-Zeiñ naiz ba...?

-Kalbario bidean ikusi izan oi zaitut gurutze aztuna bizkarrean...

-Gurutza egunerokoa, da Gizonaren semeen bizkarretan...

-Bai, ba dakit...

-Zurezkoa...

-Bai, egurrezkoak izan oi dira...

Besterik gabe bota du Jesusek bizkarrean zekarren gurutza sutara... Argitasun epel artara esnatu da Txomiñ... Bere ondoan soldadu laguna irriparre gozoa (eriotz zuriaren irriparra) ezpañetan... Eldu dio sorbaldatik eta esnatu du:

-Esnatu adi, Pello, il nai ez badek...!

Pelloc irripar eroa ortzetik kanpo...

Eman dizkio Txomiñek bi belarrondoko:

-Jaiki ta ibilli berandu baiño leen...!

Esnatu arazi ta bere onera ekarri du:

-Goazen, Pello, kanpusantura gurutze billa....

-Zeerr...?!

-Gurutze billaaa...!

-Ta konzientzia... ?

-Baketu zaidak ziara!

Gurutze aieri ezkerak etzitian biak Eriotz Zuriak eram-
man.

1965



Katuen arazoak

MATXALEN'EN KOMERIAK

«*LOS GATOS DEL ESPIGON COMEN MORTADELA*» (DEIA-6-1-1986). *KATUAK UGARITU ETA ARRATOIAK GALDU: «Campaña antirratonikida»RIK ONENA. KATU BATENISTORIA.*

Goizero Sagarzazu Manuel jaunak mortadelaz janaritzen ditu eskoillerako katuak Ondarrabian. Berak txistu jo eta ogei katuak erantzuten diote bere deiari.

Beste batzuek ere jarraitzen diote lan orretan eta katuak eskoillerara arratoien ondoren jonak dira eta katuak zainduta, arratoiek amaitu dira.

Zenbat diru erabiltzen den Udaleetan arratoien aurkako kanpaina...! Katuak zaintzea izanen litzake merkeago, garbiago eta seguruago. Arratoien pozoia janda beste animali asko iltzen dira, naiz katu, naiz txakur...

Etxea daukat korta-antzeko eta baratzarekin. Alkan-tarillak ere baditu. Ibaitek eta itxasotik ez ain urrun eta moillaren alturan gutxi gora beera. Kostaldekoek bada-kigu orrek zer esan nai duan: marea bizietan arratoiez be-tetzen zaizkigula kaleak eta etxeak zikin-erreteneetik gora, itxasoaren erasoari iges egitean.

Gure etxe-inguru guztian arratoiak zebiltzen jaun eta jabe. Kurkuxak ere ipiñi ginduzen arratoien aurkakoak ziralakoz eta baratzan zebiltzen aske; baiña, eurakin bu-rutu ezin, kuma guztiak katuek jaten bait zizkiguten. Odol-eskeintza ori ez zitzaigun alperrikakoa izan, ordea, katuek agertu bait ziran ingumarian. Aietako bat, emea, etxean sartu zitzaigun eta bertan gelditu. Matxalen izena ipiñi giñun.

Aren goraltzak esateko prest nago.

Ona zertzuk idatzi nitun arazoak gertatzen ari ziren bitartean.

Matxalen'en larritasunak.

Gure Matxalen larri dabil. Atera dizkit arramario ba-tetik nere galtzerdi guztiak lurrera. Komedoreko beste kutxa batean ere sartu nai izan du burua. Nola esaten ote zuten gure aurrekoek «Komedora»? Griegoz «anoieon» da. Euskaldunentzat, ordea, «anoia» mendira eramaten dan janaria da Goierrian esaten danez. Zuberoa'n ere ala esaten zala adierazten du Pierre Lande'k bere liburu En Torno al Hogar Vasco izenekoan. Ez ote zuten sukaldea beste jan-tokirik? Ala izanik, anoia itza artu zuten jateko bereizi baterentzat: mendira eramaten dan jakiarentzat, ez bait zuten «anoieon»'nik etxean, sukaldea ezik. Ala-moduz jokatu izan du euskaldunak griegotik artutako beste zenbait itzekin ere: «andros» gizona griegoz, euske-raz «andrea». Katua dala eta ez dala, a zelako luzabidea artu degun. Goazen aurrera.

Katua dabillega larri esaten ari nintzan, etxea osoa miauz betetzen, erdi-miñak artu duanean. Lenago umeak izandako txoko guztien billa dabil. Nik aurretik, bada ez bada ere, itxita neuzkan aal nuan bezala; berak, ordea, ama-izan-bearrak ematen dion indar, kemen eta argiak, ate guztiak irikitzen dizkit.

Saskitxo bat ipiñi diot komunean. Komuna? Garai batean lan oiek ikulluan edo kortan egiten ziran. Beste izenik bear ez; gaur, berriz, izen berria bear, komuna edo «guater-klosa» bear bada.

Komuneko saskitxoaren barrua paperez eta soiñeko-zatiz betexamartu diot. Ibilli da maixiatzen eta ataltxo batzuek ere atera ditu barrutik kanpora. Katakumak bertan egingo ditudala espero dut. Komunean sartu dan batean, atea itxi diot. Onezkero barruan egin bearko ditu...

Aparilegea bete ondoren, lotaratu aurretik an sartu naizenean, gure Matxalen ikusi dut saski-barruan. Otarratik begirune triste eta eskerronezko bat egin dit. Komun-zuloan eseri naizenean, an etorri zait igurtzika berri ona ematera. Nik orde, esne apur bat eta jana txalitxo txurian...

Gaueko triskantzak

Bart triskantza gogorra izan da gurean. Ba dut txakur deabru bat: begiak illun, konfiantza gabekoak, zoro-aldiak ematen dionean, ez dago arekin burutzerik. Ez dakit nundik ikusi ere egiten duen. Ille-matasak ditu bekokitik beera begien gaiñetik. -Txakur onek nundik ikusten du? Esaten zidan atzo auzoko Perutxok. Berak nai duanean astintzen ditu onek ondo bere betazal gaiñeko ille luze oiek...! Bai, orixe eta orduan agertzen zaizkio txinparta-

dun begi gaizto oiek. Ardi-txakurra da. Etxe-zaindari zitala. Aundi baiño obeto, txiki. Nabarra: iru koloretakoa. Bizkarra du illun-illuna, paparra zurixka, tripa barrena eta ankak orixkak. Aizeak alde onetik ematen dionean, orduan da jolastun amorratua. Elduko dizu oiñetatik edo esku-muturretik, edo soiñekotik; batez ere «goazen» esaten diozunean...

Gaur illargia gorantz dijoa. Ez da illargi-bete oraindik, baiña oneri zaindari-sena esnatu zaio bart. Mendian ardiak zaintzeko egiña izanik, amorrua die pizti guztieiri. Sei illabete bete berriak zituala, ekarri zidan onek arratoi aundixamar bat ortzetan etxera. Ez aiz makala, esan nionean, onen poza. Katuekin ez da ondo konpontzen; ezta etxeko Matxalen'ekin ere. Beti dabilta «txakurra eta katuak bezala».

Makaillau zati bat arrapatu zidan atzo eta gauez egarri zan. Komunean du ur-ontzia beretzat eta edatera joan bear. Maratilleiri eragiteko apartako trebetasuna du. Iriki du komuneko atea eta Matxalen otarratik kanpora topatu duanean, santi-amen batean akabatu ditu iru katakumak.

Ama larritu da; baiña, ez geiegi. Gertu zeukan bere Txanbolin maitea. Zein dan Txanbolin? Ama orrek orain urte t'erdi izandako kata-kume tigratua, zuri-beltzez eiotako narrua gaiñean duena. Naiko otzana jaio zan bezala jaiotzeko. Nola jaio zan? Besteak bezala jaio; baiña nun? Ganbarako txoko illun batean. An arkitu nuan nik beintzat, garraxi bizian, goseak amorratzen eta oso izuturik. Ipiñi nizkion txalitxo batean esne-sopak eta bizkortzen asi zen. Izua zan oso. Apurka-apurka, ordea etxean sartzen asi zitzaigun.

Izan ere gure etxea ikustekoa da: joandan mendeko etxe zaar aundi bat. Bealdetik, eskaillera muturrean, ate bat bere zulo eta guzti txakurrak eta katuak sar-irtetzeko; garai bateko zaldientzako ikullua eta aterpean «labadero» bat. Ura baratzako ugontzi edo pozaderatik zetor-

kipn.zuzenean. Baratzean ur zikiñentzako erretenak eta zuloak: arratoientzako egoitza egokiak.

Be oietan jaiotako lenengo katua, nik dakidala, Matxalen degu. Nundik norakoa dan jakin ez. Beetik gorako eskillara estu bat goiko bizitzako sukaldera, zurubi nagusitik alde. Zinema bildurgarriak egiteko aukera-aukerakoa. Ortik gora agertu zan bein, janari eskean, gure Matxalen.

Txakur aundi bat gendukan orduan etxean katueiri jaramonik egiten ez ziena eta katua pake santuan sartu zan egoitza berrira. Iru margo ditu gorputz osoan atalxoetan sakabanatuta: zuria, oria eta illun-nabarra tigratua. Begirune apala eta jenioz otzana. Etxerako modukoa; baiña, oraingo txakur erne-zipristin au etxeratu ezkeroz, emen izaten dira gerra-santzoak eta istilluak.

Eskerrak etxea alakoa danik: baditu «milla bat ate» Iztuetaren kantuan bezala. Ez itxita, ordea, aien antzera, irikita baizik. Eskillera-maillak ere badituzte sukaldetik beeko kortara alde egiteko. Komunean era badu nun gorderik: askaren azpian. Askea daukagu burnizkoa, joandan mendekoa edo, aundia, lau ankatxoen gaiñean. Arren azpian gordetzen dira katuak, Matxalen eta Txabolin, txakur zitalaren erasoetatik iges doazenean...

Txakur zitala esan dut eta ez txikia orrelako triskan-tzak egiteko: iru katakume jaio-berriak ortzetan triskaldu, alazankoa! Eskerrak ordezkoa bere inguruan zebillela; amaren inguruan, alegia. Onek ordezkoari, Txabolin'eri sekulako miazketak egiten asi zaio etenik gabe. Bere amari nai ditunak egiten utzi dizkio Txabolin'ek. Artaro oituta dago. Bere kumak errez galtzen ditu Matxalenek eta orduan bere jokabidea berdiña izaten da beti: aurretik izandakoak zaindu; orregaitik eldu dio Txabolin'eri. Biak arkitu ditut arratsalde saskitxoan sar-

tuta estu-estu. Amaren gaiñean semea, aunditxoia izan arren, titiari elduta, errapetik esnea egosten; aspaldian ikasitako lana eta sekulan ez aaztua. Bapo, motel -esan diot-; ori dukpatxara ori...! Gorabegiratu dit, titiaezpañetatik kentzeke.

Bereala zapuztu da Matxalen eta ara or arrak berriro bere ondoren.

Iru illabete eskas pasa dira eta orra berriro Matxalenbarrenak zearo azita, dindilin-dandalan txintxan eskubitik ezkertera... Orain ere lau katakuma gutxienez izanen ditu.

Ala gertatu da laugarren illebetera orduko. Laurak galdu ditu. Berriro kumadun eta laugarren illebetea baiño lenen, katakumak berriz ere...

Umeak berak ezitzen ba'ditu, orduan erditzetik erditzera sei illabete pasa oi dira; bestela, berriz, laurik ez.

Esango al det oraingoan ere katakumak galdu ditula gure Matxalen'ek?

Gaur uztaillak 24. Amaika egun bete dira katakumak galdu ezkeror. Bere errapea xurgatzeko Txanbolin'ik ez aldamenen. Bada illebete galdu zala arratoiak akabatze-ko botika zabaldu zutenen artan. Aurretik eta atzetik botaka asi zan eta gorri-uneak zitun ezpañetako txistuan... Jai-goizean alde egin zidan miauka negarrez, begirune tristea begietan. Antz eman nion agur esaten ari zitzaidala eta ez det arrezkero geiago ikusi.

Jaio-berritan ganbaratik atera nuan bizirik esne-zo-peri esker. Andik sei astera, Matxalen ardura gutxiko ama zalako edo antzututa zegoalako, dena den eta dana dala, Txanbolin topa nuen baratzeko baster batean erdi-

illik. Ekarki nuen etxera eta, esnez asetuta, bizitzarako gertatu zan. Bere gaitzak ez ziran, ordea, orretan amaitu: andik beste zortzi asteetara, oraingoan maillak baratzarako dituen terrazatxoan, berriro Txanbolin zoko batean etzanik bizitzarako aalmenik gabe. Artu nerekin eta kajatxo batean bigungarriz sartu nuan txakurraren ortzeetatik urrun. Komuneko apaltxo batean ipiñi nuan. Zazpi egunez egon zan zirkiñik egin gabe, ez jan eta ez edan. Zortzigarrenean, orratio, edaten asi zitzaidan. Ogeitalau orduko urak apetitua iriki zion oillazko gibel-gordiñak jateko. Jaki orrekin zortzigarren egunerako bere onera etorrita zegoan eta laga nuan baratzako bere askatasunean.

Andik aurrera, bere bistan agertzen nintzan bakoi-tzean, an etortzen zitzaidan arin-aranga nerekin egon-alditxo bat egitera. Maiean asten nintzanean lanerako, nere aurrez-aurre eseriko zan begi-begira. Sorginkeriren bat billatzen zuan nere begietan. Nik uste, nere betaurrekoe-tan bere irudia ikusten zuela eta zuzenean begiratzen ba'nion, orduan txunditurik bezala gelditzen zitzaidan. Bisitatxoa egin ondoren, baratzara alde egiten zidan bere bizimodua egitera. Benetako katu maitagarria.

Txanbolin ezean, ama gelditu da bakarrik. Katakumak galtzean, emen ibilli da egun osoan batetik bestera, miau larriak eztarrian zitula. Noiz beinka neregana gerturatzen da. Gauetz izanen degu letanien errosarioa...

Gaur, 25 uztaillak. Santio-eguna. Gure baratzako beste katu batek iru katakuma izan ditu saskitxo batean. Txakurra konturatu da eta zalapartaka asi zaio. Amak alde egin dio eta iru katutxoak seaskan gelditu dira bakar-bakarrik. Alegiñak egin arren, ez zan txakurrik otarreraño eltzen. Alde egin bearra neukan eta txakurra eraman det nerekin.

Ordu bete kalean igarota, berriro nintzan etxean. Katakumak falta ziran. Ama zapuztu egin zaigu eta beste baztarren batean gordeko zitun bere kumak gure ingurutikat.

Arratsalde, jan-gelako arramario batean sartuta ikusi det Matxalen. Egun auetan bi xagu arrapatzen ikusita nengoan eta an bertan. Orregaitik, xagutan zegolakoan, pakean utzi det. . , • . . • . .

Bigaramon goiza. Gozaltzen nengoan eta Matxalen arramario barruan oraindik. Arrituta, beregana inguratu naiz zertan ari zan ikustera. Arranoa! Katakuma jaio-berrria du errape artean. Zuria, tarte gorrixka eta illunez. Ezin litekean gauza da: katu onen kumak illik daude amaika egun auetan eta zuri au beste saskian ikusi nuan nik atzo. Sasaki artatik katakuma bat arrapatu du Matxalen'ek. Titi-lerrotik tiraka ikusten det, eskutxuekin titiari zapalketak emanaz. Ez alperrik. Amaika egun auetan antzututa egon bear errape oiek.

Uztailak 26. Goizetik katakumea ilda aurkitu det eta inguruko katarren akelarrea ementxe gertatu da, Matxalen'en ondoren. Inguruko ormak txis-zirriztadez ornituta daude katar bakoitzak bere lurraldea markatzen.

Apustu egingo diet nai duen guztieri Azillaren lenengo astea bukatzerako berriro katakumak Matxalen'ek izan baietz...!

Eguberri eguna. Iru katakuma Matxalen'ek. Apustua galdu det. Gerturatu naizenean, beatza miatzen dit. Ne-

gua eldu da. Etxebarruan ondo dabilMatxalen; okerrago daude or kanpotik dabikzanak.

Or ikusten det Gallegia, bere alaba eta onen katakuma beltza; iruruak daude saskixo batean sartuta alkar berotzen, lau aizeetara daukagun aterpe batean, emen goiko lenengo bizitzaren terrazan...

Oiek, nik dakidala beintzat, ez dira Matxalen'en sendikoak. Gallegiak panazko soiñekoa daramala dirudi: lau kolore alkarrekin naastuak zearo. Gure ingumarian Matxalen'ekin batera agertu zan, baiña, ez da sekulan etxebarrura sartzen ausartu. Onen alabak ere lau kolore ditu zatika gorputzean zabaldua nasterik gabe. Beti kaleko izan ditugu: baratzen eta baratzatik gora degun egurrazko maillan eta terrazako aterpean bizi dira. Oiekin batera Matxalenen senitartekoak ere bai eta kanpotik agertzen diran beste zenbaitzuk. Arrak batez ere. Emeak emendik gelditzen zaizkigu.

Asiera batean arrak orixkak ziran leoién antzera. Aundiak eta ederrak. Aiek galdu ziran eta ondoren bi katar zuri: aietako batek txokolate plastada bat zeukan soiñeko zurian. Oraindik ere bere muturra agertzen du gure artean, itxusi eta zaar. Nun galdu ote ditu leengo arrotasun aiek?

Oraingoa beltza da, galanta. Buztana tente darama, emetegi osoaren nagusi, jaun eta jabe. Isatsa gora begira, argi-mutil baten antzera. Orixe seiñalerik onena emen zeñek agintzen duen jakiteko.

Bada emendik alde egiten ez duen ar beltza ere; baiña, onek ez du festeetan parte artzen. Au osaba degu. Osaba zaindaria. Beronek jaten ditu beste guztiak utzitako ondokiñak. Alaz ere, beste katar txiki narratx bat azaltzen danean, orduan agertzen da bera nagusi eta ez dio gure plateretik jaten utziko. Buztan tentedunaren aurrean, bera otsein apal eta mirabe...

Gazteenek beuroen amari aotik kentzen dizkiete janariak eta ondoren, titietatik zintzilik, esnea edoskiko diete lautik sei illebeta bitartean.

Jaten ematen asi giñanetik ona aldaketa bat izan da: katakuma bakarra izaten zuten emeak, orain iru edo lau izan oi dituzte erditze bakoitzeko. Bizirako, ordea, oieta-tik gaur ere bakarra geldituko da, egoitza bait dute zailta-sunez betea, etxerik ezean.

Otz dagoanean amak seme-alabeekin batera lo egiten du luzaroan; bi izan oi dira: aizkeneko umea eta aurrera-gokoa. Irurak moltso batean.

Matxalen menopausiara elduxamartuta dabil. Aizke-neko erditzea, utsa: «sabelak bete, aizeak erne ditugu». Berak ere antzera: odol apurtxo bat eta ezer ez.

Gaur ez du egun guztian nere oiñetatik alde egin; aurretik, ordea, iru egunez parrandara emana ibilli da gure etxepeko ikullu antzeko oieta, gora etortzeke. Gaur igo da etxera eta gonbitoka igo ere.

Arratoien aurkako kanpaiñak asten diran bakoitzeko izaten ditugu orrelako istilluak. Bost egun dira aurreko atarian arratoien aurkako konpittak ikusi ditudala...

Gauetz nere oatze-azpira etorri zait, bertan daukan alfonbratxo batera, negua izan arren; udarako etzin-toki izan oi zaio oge-azpia. Neguan naiago kalefazio-aurrea: baiña, gaur negua izan arren eta berogaillua pizturik, naiago izan du nere oge-azpi otza. Pentsa izan det oke-rrer bat izango zuala; ez, ordea, ain larririk.

Goizeko ordu batetan, ordu txikiak astean, intziri batzuek egin ditu eta oge-azpitik burua atera du, nik jeikitzean oiñek ipintzen ditudan unean bertan. An il zait gora-begira, nere laguntzaren eske. Agur, Matxalen. Betirako agur.

1986

EZKURRA, URDAI-AZPIKOA ETA FUTBOLA

Udaberriak sortu nau aritz-adartxo batean. Txikia naiz oso; baiña, aundirako indarrak eta zuzenbideak neregan ditut. Ez keixa: okerrik ez bada elduko naiz neure elburura.

Orlegia naiz, muskerra, nere inguru osoaren antzera, eta borobiltxo. Badut txapela ere kirtentxoarekin eutsigarrirako eta adarrari itsatsiteko.

Eguzkiak, euriak, aizeak, ama-lurak laguntzen didate aurrera bidean, aritza tartean dala.

Udaberriarekin osotu naiz polit eta eder. Begiak irikitzean, ene poza biotzean, aizpaz inguraturik ikusten dut neure burua. Zenbat geran! Adarrak bete-bete dau de eta aizearekin batera kulunka egiten degu eguzki epeletan.

Adar-artean, an goienetan, ortzi-zapaia ikusteñ dut urdin eta urrezko erraiñuak datoz tarteetatik beera eta lurrean margotzen dituzte milla marrazki argitsu, geldi egon eziñez urduri...

Udaberria aurrera doa; zugaitzaren oiñetan, gauek goizera, perretxikoak sortu dira urretxak urdin-more eta gibelurdiñak orlegi. Baita ziza oriak ere.

Ez dute bizi luzerik izan: aldameneko baserritik ume mukizu batzuek agertu dira eta jaso beuroen betera eldu ez diran perretxikoak.

-Zergaitik orren txikiak jaso dituzute?

-Bestela, beste batek jasoko dituelako.

-Baiña, obe izanen litzake danentzako, alkar errespetatuz, aunditzen eta bere onera etortzen lagatzea perretxikueri bezala, beste izaki guztieri...

-Obe dut perretxiko txikia batere ez baiño.

-Eta, ori ondo al dago?

-Booo...! Ori, esanez, sorbalda jaso eta badoaz etxe-

Or datoz maldan gora, arnas-estuka, gizon eta emakume gazteak. Aupa mutillak! Jantzi gorritz, urdiñez eta oriz, urrutira perretxikoak dirudite, alai datoz eta sasoi sendoa darakuzte.

Atsedean artu dute aritz-pean.

Eguerdi-eguerdia da eta eguzkiak berotzen du itzalik ez danean. Aritzak bere itzal ozpilla eskeintzen die alai eta biotzetik. Etzanda daude gora-begira, izardi-tanta sendoak bekokietatik dariela. Ostoaetik igarotzen diran erraiñuek beuroen gorputzeetan jolasten dira, burutik gerrira eta gerritik oiñetara.

Berri txarrak entzun ditut euren agoetatik: arizti au ebakitzera doazela, alegia, egur-ikatzaz egiteko eta enboretik etxegintzarako zura ateratzeko. Protesta bizian ekin diote alkarrekin. «Orlegiak» omen dira eta «Ortzadarra» elkarteak osatzen duten oietakoak. Indar gutxi daukate auek gauz onerako. Borondate ona: «albanuke, egingonuke»... Moto-zerrak, ordea, orrek bai duela indarra!

Baiña, emen gaude gu, millaka, aritz berriak sortzeko. Nere barruan ditut sustrai, enbor, adar, osto eta ezkur berrien indar-kemenak. Guk sortuko degu arizti berria...!

Uda bere aizkenerako bidean ari da eta eguzkia aspalditik dagO beruntz asita. Lengo gibelurdiñak orain ontto beltz biurtu dira. Zein usain gozo beetik gora...! Gaur ez da iñortxo ere auen biUa etorri, bart euritsu izan dalako edo gaur astelena dalako. Unetik unera aunditzen doaz: tsapel aundi galanta sortu dute bakoitzak eta sutabe potoloa... Zer perretxiko eder!

Umeak eskolan asita daude goizetik eta emen ez da umerik agertu. Biar ikusi bearko.

Ikusi dut: agure zaarrak emen, pardeltxo bana eskuetan, iru lagun. Auen poza eta zoriona onttoak ikusi dituztenean. Amar urte gaztetu dira. Izan era bederatzi ontto ziran alkarredin banan-banakoak, oso-osoak eta eder-ederak...

Auen poza nere tristurarekin batera dator: soiñekoa orizkatzen asi zait eta nere inguruko ostoak ere bai...

Udazkena amaitzera doa. Zerua goibel eta mendebaleko aize zakarra euri-jasarekin batera. Astindu du geure adarra eta aidean bota gaitu eutsigarria etenda. Sail batek lurra jo degu. Neure buru orlegia gaztain-kolore bihurturik ikusita, Ituren'go kanta zaarra etorri zait burura:

Atzo ttunttun
gaur ttunttun
beti ttunttun
gaittun gu.
Gure diruak aittun eta
Nork naiko gaittun gu?
Atzo ttunttun
gaur ttunttun
beti ttunttun
gaittun gu.

y. j.

Lurrak artu nau bere magalean epel eta bigun eta arizetik eroritako nere aizpeak ikusi ditut sakabanatuta. Erreten batean nago gorderik. Danon artean sortuko degu arizti berria... Au poza!

Baiña, zer da or datorren zerki ikaragarri ori! ?

Bere azkazalak sartzen ditu loietan barrurairiño eta karterpillak baten muturra du. Belarri aundiekin begiak estaltzen ditu goiko aritza ikusi ez dezan. Muturrean bi zulo bildurgarriak ekaitzaren aize-kiratsa botatzen dutenek, itto bearrekoa.

Sartu du muturra lurpean mendiak arrotzerairiño. Mutur artetik likaz betetako misto lodikote bat atera du eta arekin sartu nau errotara. Arririk gabeko errotea. Arririk ez ba' du, bai agiñ ikaragarriak, gora eta beera dabiltzanak. Agoa zabaltzean batak gora egiten du eta besteak beera, agiñ-illara osoak; agoa ixtean, ordea, biak alkaritzen dira karraska mingarria lagun dutela. Birrindu naute bi sailleen artean eta irentsi este-gorrian barrena, irakiten

dagoen pertzaraiño. Bertan naastu gaituzte aizpa guztiak, zapero eta morokilla gurekin egin ondoren, odol-erreak gorri batean zabaldu gaituzte gorputzaren bideetan zear. Atze-aldeko laurdenekoetara eraman naute eta bertan urdaiazpiko biurtu.

Nere aldamenean zegoan aizpak suerte oberik izan du: lurrak arrotzean, azpian geratu da, lurpearen magalean goxo kokatuta, udaberriaren zai. Urteero izaten da udaberri bat. Bitartean elurrak eta euriak, aizeak eta eguzkiak lurra onduko dute artiz berriari ongi-etorria emateko. Arek beteko du gure eginkizuna, bizia aurrera gertatu dedin; gu, berriz, emen gizonentzako janari goxo biurturik.

Gure mustro au-txerria deritza-or dabil ariztiko ez-kurrez bere sabela betetzen. Ondo miazten ditu baztarrak. Bai gizendu ere sendoki koipez baiño geiago aragiz eta okelaz, korrikalaria bait da eta ez kortan bizi osoa etzanda igarotzen duten oietakoa.

Begiak ditu beti beruntz, belarri aundiekin estalita, lurrera begira. Sekulan ez du, ez eta alditxo batean ere, aritzarengana beure begi txiki oiek jaso. Lurrera begira, beti lurrera begira...

Sanmartifiik gabeko txerririk ez da oraindik sortu eta goietan elurrak agertzearekin batera, arrapatu dute gure txerria mendian eta arategira eraman. Aizto zorrotzez odol-uztu dute odolosteak egiteko. Atzeko laurdenak, ordea, piparrez eta gatzez, aize otzeetan esegi dituzte eta,

ara gu, ezkurrok, negua zintzilik pasatzeko asmotan urdaiazpikoa umatu arte, eta ondu.

Ama-lurraren magala galdu, negu osoa otzeetan zintzilik esegita pasatzeko, ez da gozo-gozoa izan. Alaz ere emendik jeisteko eguna eldu da. Esku biguñez eta leunki artu gaituzte begirun aundiz eta artillezko zorro zuri batean gorde. Tokiko marka ipiñi eta bialdu gaituzte Urlia jaun euskaldunaren tabernara.

Emen ere zintzilik. Aize otzik ez da; bai, ordea, zigarro-keiaren atsa. Berrero umatzeko ote da? Mendi garai-ko aizea au baiño ohea, otzago izan arren. Aize garbia zergaitik zikintzen diti gizonak ezpañetan, kentzeke, daraman zigarro narratx orrekin?

Zenbat itz, zenbat berba eta zenbat mintzo egiten duten gizonak gure urdaiazpikopean... Emendik begiratu-ta, naiko kaskarrak ikusten ditut: txerria aundiago ikusten ariztian. •

Gaur berbetako gogoa dakarte: futbol-zelaitik datoz. Atletik eta Real naasten dituzte. Zein geiago dan ala ez dan... Real'ak sei gol sartu diozkala Valencia'ri eta Atletik'ek ez duala orrenbeste sekulan egin... Baietz eta ezetz: eztabaida gogorra sortu da.

Gol ori gauza interesgarriren bat dogu, aizez puztuta eta itz-jario etorri bait dira futbol-zelai orretatik. Zer ote da Gola? Jainkoren bat ote?

Guztiak ekin diote urdaiazpikoari ortzak ezartzen mauka-mauka... Gauza gozoa gera, nunbait. Ez da iñor-


txO ere txerriarekin gogoratu, ezkurarrekin gogoratu, aritzarekin gogoratu...

Txerriak ezkurra lurrari begira jan; gizonak urdaiaz-pikoa lurrari begira jan, gora begiratzeke... Txerri-kumak ore dira...? Ez dute, babelarri ainluzerik, ez eta mutur ain zakarrik ere...

Ebagi naute. Irentsi naute. Pertza txikiagoa: atsa aundiago, ardo-usaiña... Galdua naiz...

P.D. Konsolagarri gertatu zitzaien bere aizpa bat Gernika'n erne zala jakiteak, aritz eder bat sortuz, sekulan galduko ez dana.

1986



IZARTXO

(GABONETAKOIPUIÑTXOA...)

Izartxo neskatilla bat zan eta bere laguna Katamixar. Orain Katamixar lo dago areztiko enbor zaar batean, negua bait-da. Udazkenean egin zioten agur alkarri, zugaitzak gorri gelditu ziranean, orri ori guztiak oiñetan zituztela, lotsatuta bezala.

Gaur goiko meni-gaillurak zuri disdiratsu daude eguzkiaren argira. Gabon usaira elurra jetxi da lurrera maluta ederretan. Baso ñlunean Olentzaro kantari:

Mesias badator
Eguzkiaren sortzetik
ez egin entzungor
sartzen dago atetik.
Bere izar garbia
dirdiraz or dago
argitu du ortzia
or goian gorago.
Badator, badator
Belen'era bidean
ez egin entzungor
biotz-barrenean...

Olentzaro'ren oiua esnarazi dute Izartxo bere ames zoragarrietatik. Katamixarrarekin amesetan, an goiko aritz artean amesetan... Katamixar zeukan eskuetan eta urrak jaten zizkion eskutik... Une berean txori buru-beltxak, sorbaldan zutik, españetatik jaten zizkion ogi-apurrak...
Olentzaro'k esnatu du amets gozo aietatik.

Ganbaran, leio borobil baten ondoan, du Izartxo'k bere oatzea. Bertatik ikusten ditu izarrak gabea kiñuka eta illargi zuria parrez. Leiotik begira dagoala, orra or nun datorren izar berri bat.

Ori ote da Belen'era doan izar berria?

Bai, ala izango da, sortaldetik dator-da eta urregorrikoa du margoa.

Zeregin?

-Belen'era joan nai nuke nik ere. Baiña, Erregeekin batera lotsatu egiten naiz. Ondoren joango nazaie, Zer diot Aurtxoari eramango?

Amatxok an, kutxa illunean, baditu intxaur ximurtuak, baita mizpero umatuak ere. Jeiki da oetik Izartxo eta kuxtara-bidean, alastatik datorren sagar-usaiñak jo dio sudur-zuloa.

Auetxek errege-sagar zimelduak...!

Artu ditu dozenatxo bat Jesus'entzako. Oso dira goixo eta gustatuko zaizkio.

Aitaren musu-zapi urdin aundiarekin pardeltxo bat egin du. Gorde ditu bertan sagarrak eta kuxtara gerturatuta, estalkia jaso du. Saskitxo batean intxaurrak daude eta kajatxoan mizperoak. Artu ditu eskutaratxo batzuek eta pardelean ipiñi.

An, atearen ondoan, anttxen dago aitaxok mendira eramaten duan gorozti-makilla ere. Pardela makilla-murturrean dula, irten du Izartxo'k atzeko atetik mendira. Etxean ez da iñor konturatu. Iñor ez, baiña, Txuri txa-

kurtxoia bai konturatu da eta saltoka ekin dio bere nagusi txikiaren ondoren.

-Ez, Txiki. Zu etxean gelditu; gure amatxori lagundu bear diozu.

-Ez, Izartxo, nik ez zaitut utziko. Zurea naiz eta zurekin joan nai dut.

-Emen geldituko zera.

-Ez, orixe.

-Esan dizut ezetz.

-Nik zurekiri joan nai dut.

-Ez zera etorriko.

-Bai, joango naiz.

-Zurekin alperrik da.

Salto ta brinko, buztanari eragiñez, aurrera joateko prest dago Txuri. Ez du nai etxean gelditu. Txuri burugogorra dala Izartxo'k ondotxo daki eta berekin joaten utziko dio. Pozik, alaz ere, maite bait du Izartxo'k bere ttottoa. Ez luke ezergaitik galdu nai. Jostallu politago eta maitagarriagorik nun topa?

-Ator, Txuri. Pozik eramango zaitut.

-Eskerrik asko! Eskerrik asko! Eskerrik asko....!!!

Asi da ugالاتik tiraka tximista baiño bizkorrago. Zeiñek gelditu arazi?

Basoan katamixar lo dago Udaberrirarte. Goiko zugaitz-adarrak billutsik daude, sorgiñen beatz luze okerrekin egindako armearma-sarea dirudite. Ankapean Udazkeneo ostoak, basoaren estalgarri, zurrumurru gozoan...

-Txuri, an izarra nun doan!

Txuri'k izarrari zaunka. Enbor aundi baten zulotik ontza oska. Izartxo ikaratu da:

-Nordaor?

-Ontza dezu, Izartxo, adarretik xiuka.

Egia zan Txuri'k esandakoa. An zeuden bi begi aundi zabal-zabalik, illargiaren argiz zuri-zuri, elurrezko begi zuri argi-argiak.

Irten dute basotik zabal-gune batera.

-Txuri, an gure izarra. Iges egingo digu.

-Ez, Izartxo, gu gelditzen geranean, bera era gelditu egiten da. Gu aurrera goazenean, bera ere bai. Lasai ibilli, etxekoandre, bestela nekatu egingo zera.

-Zu gabe, Txuri, nik zer egingo ote nuke emen gau illunean...

Aurreraxeago zarpaildutako txabolatxoa agertu da eta bere inguruan umetxo sail bat erdi narru-gorri. Gerturatu diranean, barrendik andratxo bat agertu zaie, aur beltxaran bateri bularra ematen:

-Zer zabilzate emendik, gau illunean? Krisaillua dakar eskuetan.

-Jesus jaio-berriarengana joan nai degu eta aren izarren ondoren gatoz.

-Belen aurrerago dezute; baiña arek aiña beargorri badegu guk ere...

-Sagartxoak baditut emen eta pozik emango dizkizut.

Beste gabe atera ditu sagarrak pardeltxotik Izartxo'k:

-Torizu. Ez da gauza asko eta barkatu.

Urbildu dira aurrak amarengana eta ekin diote sagar-jateari. Gosea zeukaten alakoa...

Badoaz aurrera Izartxo eta Txuri. Pardela ariñago eta biotza ere bai alai-kantari. Bidetxigor bat artu dute mendi-muiño batean zear. Muiñoaren beste aldetik eskale bat dator, makulua besapean, ibiltzen asmatu eziñik.

Izartxo eskalearekin izketan ari dala, izarra zeruan geldi.

-Neke aundia izango dezu ibiltzen...

-Bai, erren nabil. Belauna daukat eskubikoa perlesiak jota. Tolestu ezin. Gogortua daukat zearo eta egur batekin lagundu bear ibiltzeko. Lizar-egurrakin egin nuen makulu au.

-Eskean erri batetik bestera joateko aldi luzeak bear-ko dituzu.

-Bai, alaxe da. Orregaitik jeiki naiz illargi-beteakin batera. Bestela ez dit astirik ematen bear ditudanak biltzeko ere. Beti gose.

-Baditut emen nerekin intxaurrak eta emango dizkizut.

-Bai nik eskertu ere. Ekatzu zer ori eta milla ta milla esker...

An utzi zuten bide-ertzean eskalea arriakin intxaurrak puskatzen.

Ekin diote berriro bidean. Aurretik izarra aintzindari. An, urrunean kanpaitxoaren dan-danak:

«Dan, dan, dan
amabiak Belen'go torrian...

Dan, dan, da,

Jesus aurra jaio da estalpien...»

Zaunka Txuri'k kanpai-doiñuari. Izartxo, berriz, urduri kanpaiak entzunda.

-Goazen, Txuri. Gure Erregetxoja jaioa da.

-Goazen. Guau, guau...!

Arbolape batean artzai gaztetxoak artzantzian.

-Otzik bai, mutillok?

-Jana baiño obeto.

-Ez al dezute ezer jatekorir?

-Esnea jeisteko gaude, gaztaiak egiteko.

-Umatutako mizpero gozo-gozoak baditut, emen.
Nai? .

-Bai, pozik, tripetako garraixiak ixil-arazteko>
Ekin diote besterik gabe mizpero jaten. Iziartxo'ri parde-
la erabat uztu zaio eta gorde du musu-zapiapoltxikoan...

Bat-batean, izartxo talde bat agertu zan kantari, dis-
diratsu eta argiz jantzita:

Aintza Zeruan, Aintza Zeruan
goian goiko Jaunari
pakea lurrean, pakea lurrean
beko Gizontxoari...!

Bitartean, an beeran, erreka ondoko leize-zuloaren
gaiñean, Izarra zintzilik. Izartxo ta Txuri gelditu dira
txunditurik, oiñak lurrera josita lez.

-Eldu ote gera, Txuri, gure elburura?

-Bai, Izartxo. Asto-usaiña datorkit sudurretara. Ikui-
lluan daude.

Lo sakon batetik esnatuta bezala, asi dira bere bidean,
biotza taupaka lertu bearrean.

-Au zoriona, Txuri. Gure amesak oraintxen beteko
dira.

-Bai, etxekoandre. Eta eskerrak zu laguntzera ekarri
nauzulako.

. * * * .

Beerago eta laisterrago doaz. Aizkenean, tximistak
artuta agertu dira Belengo estalpera. Erratz aundiakin lu-
rra garbitzen ibillia da Jose; baiña, ardi-zimaurraren usai-
ñik ez da emen galdu oraindik.

Aurra Amaren magalean esnea bularretik edoskiten.
Pozik errotik tiraka.

Izartxo Maria'ren aurrean auzpeztu da eta Semeari musu eman dio oiñetan. (Txuri'k zaunka buztanari eragiñez). Oial zuri batean gaztaitxoak ikusi ditu eta bat-batean bere pardeltxoak gogora zaio. Baiña, utsik atera du. Erakusi dio Amari.

-Zure Semearentzat nekartzen intxaur, mizpero eta sagartxoak bidean eman ditut eta orain zuentzako ezer ez.

—Zoragarria da zuk egin dezuna.

Aurak, berriz, Amaren titia utzi eta Izartxo'ri maitekor begiratu dio. Amak berriro:

-Izartxo, nere Aurak maiteen ditunak, zuren esku-txoak dituzu: maitasunez uztutako esku uts oiek.

Pozarren eta kantari biurtu dira etxera, basoari irrintzika eta Izaki guztiari garraixika, pozaren-pozez biotza leertu bearrean. Izartxo'k Txuri'ri:

-Emendik aurrera nere lagun-urkoaren alde lan egiten saiatuko naiz, ordaiñetan ezer eskatu gabe.

Txuri ez dator bat asmo orrekin:

-Gaurko egunez gauza guztiak daukate ordainkizun bat. Ez du iñork eskurik jasotzen zenbat ordainduko diozun galdetu gabe. Ez du iñork esaten zenbat lan egingo duan; zenbat ordainduko zaion, baizik. Zu alrebes zabil-tza...

-Bai, Txuri, ori ere ala da. Baiña, guk ikusi degun Aurak ez du galdetu zenbat ordainduko diogun gure aldeko gizakunde eta eriotzagaitik... Alkar maitatzea agindu digu... eta maitasunak ez du ordaiñik eskatzen. Justiziak, bai. Maitasunak, ez. Eta, gu, Txuri, maitazunaren semeakgera...

Ilbeltzak, 6.

1983

61

ARALARKO ILLEMOZKETAK ETA IRAUNSUGEA

Unako Putzuaren inguruan dabilta artzaiek, negua itxalsaldean pasa ondoren. Udarako Aralar mendira etorrita daude, garaiko larrainetara. Ardiak esnea ematen du axuriak azi-arazteko, gaztaiak egiteko eta artzaia berbera janaritzeko. Esnearekin bakarrik ez da, ordea, ardiaren iturria agortzen; badu beste zerkirik ere beregan, ille-matasez gorputza estalirik dauka-ta.

Udaberriak alde egitean, udarako beroeldiak ematen die artzaieri ardien illeak mozteko aukera, il-bereen bada. Auzotasunak, gure artean, bere legeak beti izan oi ditu eta alkarri lagundu bear; orregaitik bildu zaizkio Ataungo Pellori artzai lagunek, ataundarren ardiak bere illez arintzeko asmotan.

Aurretik Pellok, errenka zebillen Petralin ardia, il du eta, Zaldibiko erara, odolosteak egin. Odoloste zuriak ere egin nai zitun, baiña artarako bear ziran aña arrautza ez dizkiote oilloek ipiñi; beraz, odoleste beltzekin kon-

prome bearko dute. Egunsentirako agertu dira lagunak eta ekin diote etengabeko lanari, goraiza aundiekin illemoltsoak osorik ebagiz, soñeko baten antzera, abereak billutsik laga arte.

Tartean Premin betelutarrak sua piztu du babesleku-aterpe batean eta ardia erdibi egiña gurutz batean esegi du suaren aurrez-aurre... Laister aragi errearen usain gozoak egan egin du artzaien sudurretaraño.

-Naikoa degu -dio Pellok- eta bazkaltzeko atsedean artu dezagun, eguna luze joango zaigu-ta.

Pertza odolkitz bete agertzen da eta andik ekin diote lenengo... Koipea okotzetik beera zein gozo! Ondoren ardiari eldu dio bakoitzak aal zuan aldetik, iztarretik edo besotik, naiz saietzeetatik, ezurretan eskuak eta ortzak aragietan, berbetarako astirik gabe. Korroskada ederrak ardo beltza zintzurretik beera dijoan bitartean.

-Gu bezala bizi danik nun zegok mundu zabalean... ? Otsorik eta artzik ez balego, gu aiña iñortxo ere ez...!

-Nik Pello -diotza Lakuntzako Peruk-, otsoari baiño bildur geiago zioat erensugeari. Orixe bai dala bildurgarria...!

-Erensugea sorginkeria duk -erantzun dio Premin Betelukoak- eta sorgiñik ez dala esan oi dute Leyreko abadeek.

-Bai, eurak an barruan seguru daudelakoz -berriro ekin dio Peruk-; baiña, nik emen ikusi nai nituzkek larrañean, gau beltzeko tximista eta trumoi artean, kaskabarra eta arriak goitik Marik bidaltzen dizkigunean... Sorgiñik ez dala? Izena duan guztia bada, eta sorgiñak izena badik; baita erensugeak ere...

-Neri ere (Antonek) zarrasta aundia egiten didate barruan sorginkeriz betetako gure gizabideak: mendiakin, euriakin, gauakin, ardiakin, naiz bero, naiz otz, naiz eguzki, naiz illetargi... Auek guztiak gorputz-azalean eantzita dauzkagu eta barruraino odoletan eta biotz-muiñetan sarturik.

-Zeiñek erabiltzen ditu Ilargi amaren aldaketa oiek? Eta, illargi berrian batez ere, aize epeletan, gau-erdikoan ikusten diran an goiko zulo txo argitsu aiek zer dira? Zeiñek pisten ditu? Illargian an dabil oraindik, bere egur-sorta bizkarrean, okerra egindako agurea; ikusi ere ikusten da illargi beteko aize bigunetan... (Pellok odolzkoi).

-Sorgiñak edonun eta sorginkeria nun-nai (berriro Peruk). Leyre eta Iraxekoek esango ditek nai dutena; baiña eurak an zeudek beeran, gu berriz emen goietan izaki guztiarekin bat egiñik. Gurekin aizearen epela eta aizearen ixilla, baita zalaparta eta burrundara guztiak ere; gurekin euriaren erauntsiak eta ekaitzaren txingorak; gurekin elur-maluta zuriak mara-mara txabola gaillurrean kokatzen diranak; gurekin biziak eta illak ebagitzen dituen ifarraldeko aize miña... Emen sorginkeria besterik ez dago.

-Mari ez bada, nor da? (Pello ataundarra berriz era). Mari gurea degu. Nun bizi dan ere badakigu: leizeetako atakan agertzen da; baiña bizi, lurpeetako eremuetan bizi da. Lurrak baditu gutxienez iru bizi-leku soillak: bata goietan lainoentzako, bestea lur-gaiñean, gizakientzako eta irugarrena lurpeko eremuetan. Goikoetan eta azpi-koetan ez du gizonak zer egiñik; Marik, ordea, bai. Or ikusten degu zeru-goietan leize batetik bestera dijoanean su eta argiz inguraturik illargiaren itxuran edo, asarre danean, zalaparta osoan bere zaldi-gurdian; lurrera, berriz, noiz-nai jeisten da, eza kobratzera batez ere gezurrik esaten badezu; eta lurpeko eremuetan bizi da, an du bere egoitza beste sorgin eta deabru askorekin. Erensugea ere arpe-zuloetatik agertzen da eta leize-zuloak lurpeetako atean dituzu...

-Bai, bai, gure aitaitak esan oi zuan (Anton Amezketarren txanda da oraingoa) sorgiñak danetarikoak daudela: onak eta gaiztoak. Txindokiko Mari bera ere alditan ona eta alditan gaiztoa izan oi da. Zergaitik ori? Tarteka geu gaiztoak geralako, eza kobratzen duanean bezala: ge-

zurra esan badezu, egia izateko falta dana, kenduko dizu. Eun ardi izan eta larogeita amar dituzula esan dezu? Egi osorako amar ardi falta dira, oietzek kenduko dizkizu Marik, ezeztik bizi bait da. Egirako falta dana ezetza da. Zenbaitetan, ordea, Mari bera ere okerra da eta Irabe baserriko neskatoa arrapatu eta bere leizera eraman zuan. Beia galdu zan mendian eta neska bialdu zuten gurasoak bei-billa. Illunabarrean Mari agertu zitzaion bei gorritxo baten antzera. Isatsetik eldu zion neskatoak eta tximistak arturik eraman zuan bere leize-zulora. Arrezkero an omen da eta atakan ikusten omen dute bere ille-tximia urregorritzko orraziakin orrazten...

-Zuek usten dezute sorgiñek eragiten diotela bizuari, lurra biziberrituz udaberriro? Sorgiñek biurtzen dituzte loreak fruitu eta igali? -Beteluko Preminek.

-Gizona, nungo munduan bizi aiz? (Pellok eraso berriro). Ataunen sorgiñari sorgain esan oi diogu, sortzea eurak zaintzen dutelako. Sor guztien gain. Ori ume batek ere bazekik gure artean. Beraz sortzen dan zer guztietan dago sorgiña eta sorginkeria. Ara zer entzun nion nere amari zazpi urte betetzeko nituala: bein Garitasoro baserriko alaba joan zan gau batez arto-txuriketera auzoko etxe batera. An berriketan ari dirala, sorgiñak ukatu zitun Garitasoroakoak; etxera doala, Maizpeko zubian, sorgin moltso bat agertu zitzaion, esanez: «Ez gerala, baiña bagaitun; Mari Petralin ez beste guztiak emen gaitun». Eta ori esanez bakoitzak ille bakar bat kendu, buru-soil utzi arte. Kontuak atera diran ala ez...

Ortan ari dirala, orra goiko malkorretik kate otsa arkaitz artean; gizona dator kateak arrastaka txorkatilletatik zintzilik, kapusai urratua gañean duala eta abarkak amantarrakin oiñetan naiko zikiñak; bizarra eta tximia orrazteke, sasien antzera naasi...

-Zer da ori? -dio arriturik Anton amezketarrak.

-Penitentzia egiten ari dan gizakia. Emen dabil Naparroako mendietan malkorretik malkorrera eta gaillurretik gaillurrera. Oker aundiren bat egiña izango du: Lakuntzako Peru mintzatu da.

Aizkeneko itza bukatzerako gerturatu zaie gure gizon menditarra.

-Eguerdi on, jaunak! Goikoak eman dizuela bere laguntza eta grazia.

-Zein Goikok, Illargiak ala besteak...?

-Neretzako illargia zerki bat da berez ez dana eta beste bateren bear dana...

-Emen ari giñan berriketan, itz-jario, sorgiñeiri buruz. Sorgiñak badirala sinisten al duzu zuk?

-Gai orretan sartu baiño naiago nuke nik ardi-zati bat banu jateko...

-Artu gizona nai duzun beste eta ez egon begira. Edan ardoa ere. Naparra da eta beltza. Onek egingo dizu odola barnean, arpegiko kolore oiek apur bat gorritzeko.

-Ardorik ez. Penitentzia egiten nabil.

-Zer da ori?

-Ibilli-nabil batetik bestera, etenik gabe, kate auek ausi eta apurtu arteko guztian.

-Ez duzu lanbide makala, orratio, oiek eusi arte emen bizi bear badezu...

-Ibilli bearke nere okerkeria barkatuko bazait...

-Atrebentziakin, eta ser okerkeria da ori? -zion Pello ataundarrak.

-Ara -erantzun zion bere lagun Lakuntzako Perukonek erantzun baiño leen nik emango dizkiat Sakan bailarako berri batzuek. Erensugea Artxueta inguruan bizi da eta urtero Sakanako gizaki bat, neskatxa aal bada, eskeiñi bear izaten diote janaldi baterako.

-Ori arazo beltza dek!

—Nola arazo ori konpondu eta korapilloa askatu ez zekitela, jakin dute Sakanakoek gizona dabillega mendie-

tan penitentzia egiten. Eta beregana etorrira daude la-
guntza eske.

-Bai, egia da -erantzun dio menditarrak- Ni Urbasa
eta Andia mendietan nenbillen nere eginkizuna betetzen;
baiña orain Aralar mendia artu dut nere egoitzarako eta
erensugearen billa nabil.

-Arabeko kazketarra terebita ta tximista anketan
puz, puz, putz...! -dio Pellok eskuarekin irukiñu egiñaz.

-Zer ari aiz?

—Konjuroak egiten. Nik ez diat emen erensugerik iku-
si nai. Aparta sartago kendu ansenago mendi Beriain, sar,
sar, sar...!

Pello kiñuka ara da eta Aralar menditik kanpora bota
nai du erensugea Sakana beste aldera.

-Keiñu oiek alperrikakoak dituzu -erantzun dio Pe-
llori- NiTeodosio naiz Goñibaillarakoa, etxe oneko zal-
duna eta bizitza latza daramat gaillur auetan baiña egin
nuan okerra ere benetan beltza eta latza zala...

-Esan, esan...

-Okerkeri guztiek badute bere ondorena zuzentasu-
naren aurkakoa. Zuzentasunak besoak bear ditu berdi-
ñak aldamenetara balantzarik egin gabe. Zuzenean bear
eta zuzentasuna galtzean balantza eginda, orduan okerra
sortzen da eta gaitza egiten izakiaren aurka eta gizakiaren
aurka, Goigoikoaren aurka bezala. Oker ori zuzendu
bear berdintasuna besoetan berriro sortzeko...

-Bai, bai, jan zazu beste mokautxo bat, ederra dago-
ta... Eraso zion Antonek ardi-koipea ezpañetatik dariola;
ez bait zion tutik entenditzen.

-Nik zuzentasunaren besoa lurreraiño jetxi dut eta
okerkeri aundiagorik egin dedana baiño, egin ezin.

-Zer arraio egin dezu, ba? -Ataundarrak berriro-.
Esaiguzu bein betiko zertan dan okerkeri ori. Arranoa
bezala zabiltza jira-biraka aidean, ariari eldu gabe. Zatoz
ardatzera eta jo emen muga.

-Gauzak urrutitik datoz eta bi itzeetan esi ezin. Esan dizuet Goiñikoa naizela, zalduna eta etxe onekoa...

-Zalduna bazera, ez zera nolanaiko etxekoa izango.

-Zaldun naizen ezkeroz, mairuak burrukatzera alde egin nuan Tudela aldera.

-Tudelaraiño elduta al daude mairuak?

-Bai, antxen daude, eta Ibar erritik gora pasa ez ditezen, antxen bertan eutsi bear diegu. Orretan gabiltza danok elkartuta. Urte bete gerratean pasata, pozik netorren etxeruntz, nere barruan biotza kantari nuela. Etxeko be-roak eta etxeko maitasunak espero ninduen. Zoriona ez zidan barruko argirik itzaltzen. Nere poza illargi betearen antzekoa zan: borobñ-borobilla, bete-betea.

-Eta, gero zer?

-Gofii ballarako egira eldu nintzanean, eremuetako gizon bat agertu zitzaidan esanez: -Teodosio, zoaz lenbailen etxera; emaztea duzu ogean beste batekin-. Batbatean aldendu zan ikuskizuna. Gau illuna, illargirik gabeko gau illuna. Laiñoak beltz. Tximist-argiak zeru-sapaiean bere santzo ikaragarriekin. Eremuetako berrimaillea lurrak irentsi zuan. Parte txarrekoa zan benetan, gerora ikusi nuanez nere zori gaiztorako. Sua dariola ekin nion aldapabeeran etxeraiño, ainbeste bidar zorionez beterik egin nituen bidexka aietatik. Ezpata motza eskuan nuelarik sartu nintzan lo-gelan eta ogean zeudenak, biak irañ nitun batera amorruez beterik.

-Ondo egiña. Pellok.

-Odoldutako ezpata eskuan nuela, ekin nion berriro mendiruntz nere asarrea baretzeko. Alaz ere, nere barruan odol-egarria ez zan asetzen, burua nuan irakiten, euria eta kaskabarra gora begira artzen nituen begietan, ezpañetan, bekokian barruko beroaren lasaigarri... Egunsentiak arte baten azpian arkitu ninduen, lur-gaiñean eserita, ezpata alboan... Ortz-garbi zegoan. Laiñoak eta ekaitzak alde eginda zeuden eta nere barrua baketuta.

Etxera biurtzeko garaia zan. Nere gurasoek eta seme-alabek erailtzearen berri jasoko zuten onezkero...

-Merezi zutena eman ziñun. Moztu zion Lakuntzako Peruk. Gu kanpotik gabiltzanean auskalo zertan aritzen diran gure emazteak. Neu ere nereakin ez nazaizu geigi piatzen...

-Ni bai, nerearekin zearo eta oso-osorik piatu nintzan eta amorruz orretzek bete nindun: nik orrelako uste osoa beregan izan eta berak ni orrela iruzurtzea...

-Geienon korapilloa ortan datza -ebagi zion Peruk-: gu emen gabiltza mendirik mendi udaberri, uda eta udazken; gure emazteek berriz beetan gu gabe eta askotan geura premirik gabe, etxeko giltza eskuetan dutela eta gu beti etxetik at. Eurak nagusituta bizi dira lurra lantzen asi ziren ezkeroztik eta alkartzen ez bagera gure eskubideak defenditzeko, errukigarri izanen gera...

-Ixilleko elkarte bat bear degu -diotza Pellok.

-Sakanean -berriro Peruk- asita gaude. Noiz-beinka, il berrian, alkar ikusten dugu emaztekien nagusitasuna salatzeke eta elkarri laguntzeko...

Eskumuturrekin ezpañetako koipea garbitu eta Antonek itz:

-Arazoa beste baterako utzi eta entzun daiogun Teodosiori bere gertakizunak agertzen.

-Argiarekin batera jetxi nintzan etxeruntz eta goiko malkorretik entzuten nitun negar-garraxiak. Benetan esan nezake, une artan malkoak katilluka edaten zituztela nere senideek. Gauza ez zan gutxirako. Gerturatu nintzanean, biotza gelditu zitzaidan korde gabe: nere emaztea ikusten nuen sotinka etxe-atarian. Emaztea ii ez badut, nor il dut? Arra sortu zitzaidan barnean: nor il dut? Ekin nion arin-aringa eta txakurra irten zitzaidan bidera, buzana ankartean. Zer gertatu da? Esan nien arnas-estuka. Gurasoak il dituztela gabaz eta nork ez dakigula. Arritze-koa izan da txakurrak iñor ez salatzea. Esagunen bat dugu anima elkor gaizto ori. Gorroto gaituenenbat...

-Gogorra egin zenduan.-eraso zion Premin Betelukoak.

-Barruko indarrek utzi zidaten bat-batean eta belau-nak alkar jotzen asi. Lurrera erori nintzan, pitzatutako orma zaarra erortzen dan antzera. Odoldutako ezpatak biotzaren erdia zulatu zidan. Nere errua, nere okerra, osin beltza... Malkoz betetako osiña, beltza, mendia baiño aundiago... Barkamen gabea. Emazteak, lepotik elduta, jaiki-arazi nindun negarrez. Baiña, Teodosio, gaitzen batek jo zaitu. Zer duzu? Nolatan naastu zera orrenbesteariño...! Sorginkeri batek galdu nau. Gaiztoa agertu zait aingeruz jantzia, aolkua eman dit, bultzatu eta osin beltzera bota nau... Nik iñuzu iñuzu bere esanak sinistu eta esan oien ondorenak jaso ditut, maillaz-mailla beeko infernuetara jetxi arte... Nork aterako nau emendik...! Barkamenik ez dut, salbamenik ez dut, itxaropenik ez dut...! Bai, Teodosio, salbamena badezu eta itxaropena era bai. Gogoratu ezazu Iratxeko abadeak zer esaten zigun: gure siniskeriak utsak zirala. Illargia ez dala Jainkoa. Beste Jaun bat dagoela gorago eta Semea bialdu digula bere odolez gu askatzeko. Okerrak badu zuzenerako bidea. Arrek ordaintzen du, Semeak, gure gaiztakerietatik sortzen dan zorra. Aurretik ordainduta dago, itxaropena zearo galdu ez dezagun. Gogora itzatzu oiek, Teodosio maitea, eta goazen bertan Iruñara, apezpikuarengana, gurasoak eortzi ondoren... Eta alaxe egin genduan.

-Eta, seme ori al da Kixmi?-Pello ataundarrak.

-Gure aurrekoek ala deitzen omen zioten Jesus Salbatoreari eta argi aundi bat sortu omen zan arekin batera eta gure aitona batek etorkizuna ageri: Kixmi jaio da eta gureak egin du.

-Gureak egitea, zer da?-Pellok berriro eraso.

-Gurea aztikerietan sinistea izan da beti. Goikoa ez dala illargia, ezta eguzkia ere. Oiek baiño gorago beste Jaun bat dagoela eta goienean dagoen zerki orrek maite gaituela eta gure okerkeriak zuzentzeko, Semea bialdu

digula lurrera. Orretzek ematen dit poza barnean eta nere malkoak txukatzen.

Ataundarra ez zan ixilik gelditzekoa:

-Nik usten det, eta Ataunen denok sinisten degu ori, aztiak bearrezkoak dirala gaitzak gugandik aldentzeko, indarrak sortarazten dituztelako euren kiñuz eta itz misteriosoz. Adurra sortzen duten eta adurra bada gauza baten eta bere itxuraren artean...

-Ori ere, bear bada, ala izanen da; neri, ordea, Kixmi orrek pakea dakargit barnean eta lasaitasuna biotzean. Eta, zuek ondo artuta banoa ni, zueiri eskeintzeko txabolarik ez dut. Koba zaarrak billa oi ditut nere atsedentoki eta egoitza. Altxuetara bidean noakizue eta bertaraten bazerate, alkar ikusiko degu berriro. Agur, jaunak eta esker mila.

Ango burni-zarata Teodosiok alde egin zuanean.

-Gure Sakanara ere eldu dira berri oiek -zion La-kuntzakoak-; baiña aztiak ez zeudek batere pozik: gure aurrekoen siniskerieri eutsi bear zaiela...

-Bai baiña iUargia jainkoa ez baduk -zion Beteluko Preminek- zergaitik gurtu bear dugu Jainko bezala? Jarri dezagun beste bat gorago eta segi dezagun ilberriak eta ilbeteak ospatzen oitura degun erara. Zer ajola dik orrek?

Jarraitu zioten oraindik ere apur batean, Teodosiorekin asitako gaiari; bereala, ordea, aspertu ziran gaiez; ez bait ziran arazo orretan artzantzan bezain maixu. Alaz ere, kezka barruan zeukaten eta bigaramonean ardiak illez arindu ondoren, Altxuetara joatea erabaki zuten Teodosiorekin izketa aspertu bat egitera.

Ifar aizea sortu zan une artan eta laiño-matasak alden-du zitun Andia mendiaren gibelerat eta ortzia garbi agertu zen. «Goiz gorri, arrats euri» dio esaera zaarrak eta «arrats gorri, goiz aizetzu»; emen ez zan ez bat eta ez beste gertatu; bera, eguna ondo etorriko zan, naiz eta Putterriko ttonttor-ttonttorra laiñoz estalita egon, txapel baten antzera. Orrek zera esan nai du, Mari ogia erretzen ari

dala leizeko bere labea, patxara ederrean, eta ori beti izan da agerbide ona, ez bait du ekaitzik sortzen aserre ez danean. Borda-atarian bertan lo egiteko ere ez zan giro txarra, an goian izarrak kiñuka...

Goiz-sentirako erne zeuden. Bakoitzak bere ardiak larraiñera bialdu eta eguerdi-osterako asi ziran Altxuetarako bidean. Mendia ifar-aldetik artu eta gaillurrera igo ziran. Beria in mendia zeukaten aurrez-aurre; atzerago Andia eta Urbasa; eskubitan Aizkorri eta ezkerretan, an beko zuloan, Iruñea eta emen aurrean auspez, Sakana. Atsetik, berriz, ifar-aldetik, an urrutian Pirenee-mendiak. Ikusmira osoa eta borobilla. Begiak zabal-zabalik dituzte beuren erriaren ingurueri begira. Ikusmira zoragarria.

-Baiña, zer ari da or gertatzen? Orru ikaragarriak entzuten asi dira or beeko zelai-gune orretan...-dio Antonek.

-Bai, bai -erantzun Peru Lakuntzakoak- an erensugea, begira beren zulotik agertzen. Bildurgarria da benetan, mizto luzea, ezpataren antzo, ortzez jositako agoan darama.

-An Teodosio bere aurrean egurrezko gurutzea esku-bian konjuroa egiteko. Ikaratu da, igesi dijoa, ez bait dio gurutzeak laguntzarik eman...-Pello ataundarrak.

-Segitzen dio erensugeak eta kateetatik eldu dio, kate luzeak irentsiz... Galduta dago Teodosio.

Une artan, bere burua galdurik ikusita, Goiñikoak eskuak gora jaso eta santzo egin du:

-Mikel, Mikel gurea, salba nazazu!

Artzaiek sundituta gelditu dira begien aurrean agertzen zaien ikuskizunarekin: Mikel goiangeruak ezpataz lepoa moztu dio erensugeari eta lepo barruan irentsita zeuden kateak zatitu. Mikelek gurutzea dakar burugai-

ñean. Odolik gabe daude beera begira sorginkeri arren aurrean. Lakuntzako Peru da bere onera lenen etorri dana:

-Sakana libre da, Sakana libre da, erensugea akabatu-ta gero!

Teodosio lurrean etzanda erensugearen alboan, kapusaia odol-zipriztiñez, oiñak eta eskuak aske kateak ebagi ondoren, arnasarik bueltatu ezinda eta bere penitentiaren azkenetan, kateak eten artekoa bait zan eta kateak etenda zeuden... Biotz-biotzetik atera zaizkio eskerrak Teodosiori, bene-benetako eskerrak Goiko Jaunari... Bitartean artzaiek inguratu zaizkio eta beure esku aundiz bizkarra berotzen diote zorionak emanetz. Onela mintzo zaio Peru:

-Zorionekoa zu, Teodosio, sinistu duzulakoz. Sinismenak ekarri dizu salbamena. Sinismenez oiu egin duzu eta zure oiura Mikel aingerua etorri zatzu. Zorionekoa milla bider, zorionekoa milla bider...!

Izan ere Lakuntzako Peru artzaia kristautasunez kutsatuta daukazute eta itz-jario biurtu zaigu; besteeri izua ez zaie oraindik biotz-barrendik aldendu; baiña, ori bai, Teodosiori lagundu diote eskuak eta oiñak kateetatik askatzen. Ondoren Igaratzara eraman dute, naiz eta arek Goñira abiatu nai. Bide luze ori egiteko atsedeen bat bearezko zaio eta orretarako festa bat antolatzea erabaki dute artzaiek. Beste ardi bat il eta festa ospatu. Bigaramonean, gorputza apur bat sendoturik, bialdu zuten Teodosio bere Goiñeko etxera Peruk Lakuntzaraiño laguntzen ziola bidean...

«Egia bazan, sartu dedilla kalabazan» esan oi da guren artean ipui bat esan ondoren; baita sorgiñenak eta erensugeanak diranean ere. Dana dala eta dana den ipuiak esaten digu Teodosio berriro zaldun gertatu zala

eta bere esker ona erakusteko, arri landuz egiñiko elizaxo bat eraiki zuala gertakizun auen oroigarri.

Gaurko egunez ere antxen dago Altxuetaren zabalgunean Teodosioren eliza. Zortzigarren eunkian jaso. Polita benetan. Romaniko garbi-garbia. Ez da ipuia, histori zeatza baizik. An dago Mikel Deunaren irudia, gurutza buru-gaiñean duela.

Mikel Deuna Goikoari (In Excelsis) arrera ona egin zioten Sakan osoan eta Sakanatik, oligoa bezala, zabaldu zan Aralar inguru osora, Naparro eta Gipuzkoan zear, bere jaiera Euskadiko lurraldeak bete arte.

Jaiera orrek, lenengoaren gaiñetik, beste eliza aundiagoko bat jaso zuan, txikia aundiaren sabelean kokaturik. Amairugarren gizaldikoa. Ederra. Erromaniko legetara makurtzen dana eta napar erregeen jaiera aitortzen duna. Jaiera onen testigu eta lekuko ona Aralarko erretablo zoragarria, esmaltez egiña eta Bizanziotik ekarria. Oraindik orain lapurtua, ez da geiago bere tokira biurtu, naiz eta zati geienak berriro eskuratu agintariak.

Eliza txikian daude Teodosion kateak erromes baikoitzak bere gorputzaren inguruan pasa oi ditunak, gaitzak aldentzeko; baita burua sartu ere aldara ondoan dagoen zulo batean, Kredoa esanaz, buruko miña kentzeko.

Anton, Pello, Peru eta Preminen ondorengo artzaiak ikusi ditugu Corpus-Christi egunean prozesiorako pallioa, guante zuriz estalitako atzaparez eramaten. Kixmi onartu zuten, aztiak konforme izan ez arren. Baiña, orduko eta aurreragoko kutsurik ez da galdu. Zenbait siniskeri eta oitura zaar kristautasunaren magalean eldu dira gureraiño. Triku-arriak, dolmenak, egin zituztenen semeak dituzu gaurko artzaiak, lengo mendietan bizi dira gaur ere eta lengo bizibidetik jaten dute gaur ere ogia.

Aralarko mendiak, bere larrainetan, millaka asko ardi janaritzen ditu, eta ez gutxi larrabei, moxal eta urde. Baiña, ez orain bakarrik, millaka urteetan baizik, gizaldietan zear. Euskalerriko biotza degu Aralar. Maparen ardatzean dago. Neurtu zazu Aralartik Zubero-Benabarra-Lapurdira, batetik; Naparroako egaletara, bestetik; Bizkai eta Arabako lurraldeetara irugarrenez eta ikusiko dezu mendi-kate au erdi-erdian dagoela.

Ez da bakarrik geografia aldetik; baita ekonomi eta kultura aldetik ere gure erriaren ardatza zan. Ori garbi asko erakusten digute orain bost milla urteko trikuarriek. Proporzioz, alkarren arteko gertueraz, ugaritasunez Aralar mendia da mendi guztien artean trikuarrietan txapeldun.

1983 garren urtean irurogei baiño geiago ziran ezagunak. Arrezkero multso aundia topa dute. Ugaritasun onek zera esan nai du, orduko aberastasunak emen zeudela, aberea bait zan aberastasunaren neurria. Artzaia dabilen tokian dago aberea, eta artzaien illobiak dira trikuarriak. Illobi aberatsak. Goiko larrainetako illobiak. Itsasaldean ez dago trikuarririk, orrelako neurrian beintzat; euren illobiak arpe-zuloetan zeuden, pobretasun aundian. Gerora, nekazaritza ugaritzen danean, orduan aberastasuna ibarretara jeitxiko da; baiña, goikorik galdu gabe. Goikoak eutsi dio gaurdaiño.

Trikuarriak nabarmentzen du zer lekuetan bizi zan bertan eortzitako artzaia. Ez goieneko tontorretan, bera-xeagoko zelaiguneetan eta larrainetan, baizik: zortzireun metrotik millarako bitartean. Belarrik goxoena dagoen tokia; gaztairik ederrenak sortzen dituen lekua.

Eortzeko moda berriak eldu ziran euskaldunen artera eta trikuarriak zertarako ziran aaztu zitzaizen gure artzaieri. Zertarako ziran ez zekiten; baiña, misterioaren bat gordetzen zutela, ori bai bazekiten. Trikuarri edo tregoarri izenak berak ere badu zer edo zer adierazten; baiña, beste izen bat ere ipiñi zioten: jentilarri. Jentillak gizandi in-

dartsuak ziran eta goienetako basoetan zuten beuren egoitza; kristautasuna, berriz, erririk-erri zabaldu zen eta gero igo gailiurretara, Sakanatik Aralarrera. Gertakizun auen lekuko degu Mikel Deunaren zortzigarren eunkiko elizatzko polita.

1985



EUN RUBLOAK

(*gertatua*)

Kaleak utzik daude.

Lokatza eta elur nabarra: erdi-urtutako elurra buztin artean...

Tanke, guda-tresna oien arrastaoak ugari eta naasi.

-Ez, ama, ez...! Ama, lagundu eidazue...! Mesedez...!

Intziri luze penagarriak eten du gauaren ixilla. Ate guziak barrutik trankaz itxita daude, baiña beti izaten dute soldadu zaar auek aitzakiren bat etxeetan sartzeko:

-Dan, dan...!

-Zeiñ da...! Ate-barrutik erantzuna.

-Mesedez atea irikitzen ba'didazute... Ura bear dut, ez bait dago erri onetako kaleetan iñungo iturririk...

Atea irikitzen ba'dezu, galdua zera. Bildurrak eraginda, etxeko atea iriki duen zenbaitek intziri eta negar, iriki ondoren...

Errixka txiki kutuna.
Mendi-magal luzean etzanda... Goiko gaillurrak zuri;
beerago, nabar; errian lokatz eta buztiñ...
Erriaren erdian, etxez inguraturik txitaz ollaloka be-
zelatsu, elizaren kanpai-dorrea zerura begira, kristau zaar
auen begiak bezela...
Bei, zaldi, asto eta ardi ikulluetan, pipar-gorri xortak
sukaldean... Beko-kalean maixuaren etxea eta ikastola.
Gaur da bigarren gau tristeia.
-Dan, dan... Kalerako atean.
Yuskak maigañeko kutxillorik aundiena artu du es-
kuetan... Katerin, Yuskaren arrebak ikulluan gorde du
bere burua egur-artean...
-Dan, dan... Kalerako atean, bigarrenez.
Yuskak kutxilloa eskuetan.
Aita-amak alkarri begira eta alkarri elduta atzekabea-
ren atzekabez...
-Dan, da... Irugarrenez.
-Zer egingo dut, aita...?
-Ireki, seme, okerragoak gerta ez ditezen eta gorde
begien aurretik kutxillo ori...
-Ez, aita, ez, nere arrebari ez dio iñork ikuturik egin-
go!
-Yuska, kendu nere aurretik arma ori...
-Dan, dan, dan...
-Nik irikiko det! Bai, banoa...

Poliki-poliki iriki du aitak atea. Arnasa eta biotza,
biak batera, gelditu zaizkio:
-Ur apur bat nai nuke... Ez bait da iturririk kalean...
Kutxillo-kirtenari eldu dio Yuskak.
Bildur zutena gertatu da.
Soviet-gudaria daukate ate ondoan, sartzeko baime-
naren zai. Ofizial jazkera du. Une batean denakixil, ez itzik,
ez arnasarik...

-Pasa neike aurrerago...?
-Bai, jauna, bai, pasa barruraino.
-Eskerrik asko.
-Ez da zeren.
-Ur apur bat, mesedez.
Amak dakarkio ura sukaldetik antxosin batean.
-Eskerrik asko.
Zanga-zanga ura soldaduaren zintzurretik beera.
Eranda gero:
-Eskerrik asko, berriz ere. Emen apaizgaia dezute semea.
Argizari zuria odolaren orde zañetan: zuri gelditu dira irurak:
-Bai, jauna.
-Esan apaizari biar Pazko Eguna dela eta Errusian ere Pazko Eguna ospatzeko oitura degula. Kanpaiak nai ditut goizetik eta Meza.
Besterik gabe, militar-agurra egin da, ba dijoa soldadu bere bidetik...

Bere gorde-lekutik irten du Kateriñek. Emezortzi urte bete-berriak. Gordiñ, panpoxa, beltxarana... Begi beltz, ille matasa beltz...
-Entzun al dezute...?
-Bai, aita, baiña ez geigi fia... Kateriñek erantzun.
-Ez digu okerrik egiñ...
-Ta zenbat oker egin dute bi egun larri auetan...? Auzo guztia urduri dago... Kontuz, aita...
-Zergatik ez...? Yuskak Kateriñeri. Zure onagaitik, orren kontra kutxilloz jeikiko nintzan, bearrik izan baltz; oraiñ, berriz, bere agindua bete bearrezkoa dela esango nuke...
-Baiña, seme, (amak erantzun) apaizengana joatea arrixku aundiegia da...

-Aundiegia, ez.
-Ta bidean elduko balizuteke gudari gorri oietako batek...? Ta biar Meza ematea txorakeri aundi bat baltz...?
-Ama, biar Pazko Eguna degu eta ez nuke nai nere kulpaz orrelako egunez Mezarik ez egotea... Apaizengana joan bear dut!
-Ez, seme, ezaitz joan...!
-Bai, andratxo, joaten utzi egiozu, ez du bestela pakerik izango ta...
-Bai, ama. Ta oraintxe bertan noa, gero Mezakin jakingo du apaizak zer egiñ...
Iltzedun oiñetakoak jantzi eta, or nun dijoan saltoka lokartzartetik lokatzartera Yuska apaizgai mutill gaztea...

Gertakizun au 1944'gn. urtekoa da.
Hungriako errixka batekoa.
Pazko Eguna; Errusiako soldaduak errian sartu ziralarik bi egun t'ardi.
Egitako histori bat.
Erri tipia.
Erri xarmanta.
Baserria.
Soldadu gorriak dirala-ta, bildurra sartu zaio erri politari.
Basauntzak baiño bildur geiago dute baserritar auek...

Jo du apaizetxeko atea Yuskak.
-Zeiñ da...?
-Yuska naiz, jauna...
Atariko ateak txirrio...
-Sartu azkar barrura!

Yuska apaizaren aurrean, arnas-estuka itzik atera ezi-
ñik...

-Zer dek, mutill...? Bildur ematen didak...!

-Ara, jauna... Soviet ofizial batek agindu dit zuri esateko, biar goizean kanpaiak jo eta meza emateko...

-Zeeerrr...?!

-Kanpaiak jo eta Meza emateko...

-Kanpaiak jo eta Meza eman...???

-Bai, bai, orixe esan dit.

-Ez al dek tranparen bat izango...?

-Ezba jakiñ...

-Izango balitz...?

-Kaiola barruan arrapatuta gertatuko giñazkela.

-Ta, izango ez balitz...?

-Mezarik gabe Pazko Egunean bildurtiak izan gerala-
ko...

-Korapilloa dek au, Yuska, eta ez nola-naikoa.

-Zer egingo degu...?

-Orixe galdetzen diat neronek ere...

-Nik, jauna, Meza emango nuke.

Goizeko seiretan kanpaiak jo eta sei t'erdietan Meza ematekotan gelditu ziran biak.

Ez zan gau ura belako batean pasa. Gelako goiko so-
laiduari begira igaro zuan denbora gure apaiz zaarrak.
Aspaldi ontan ormak zuritugabe zeudela konturatu zan...

Gudari gorri aiek errian zeuden artean, kanpaio jo eta
Meza ematea ez al zan zorokeri utsa...? Ez ote zan ori
zuur-palta izugarria...? Zuurkeria ta bildurkeria biak an
tzeko gertatu oi dira sarritan...

Bildurkeriaren kulpaz Pazko Egunean erria Mezarik
gabe uztea, ez al zan Jainkoganako maitasun gutxi...?

«Ni gizonen aurrean ukatzen nauena, neuk ere bera
ukatuko dut Jainkoaren aurrean...!»

«Bere bizia gordetzen duenak, berorrek galduko du; neregatik galtzen duenak, berak gordeko du...»

Jesusen esaera oiek eta oien antzeko asko zetorzkion burura errenkada luzeetan...

Alderantzitik gauzari begiratu ezker, berriz, ez al zan Meza ematea zuurkeri edo prudenziaren kontrako pekatua...?

«Zuurkeria askotan bildurkeriaren tapaki bat, estalki bat, besterik ez dezu...» (Esaten zion adimenak).

-Bildurra badut nerekin, bildur aundia; baiña nik ez dut nai bildurragaitik jokatu, ezta zuurkeriaren kontra ere...

-Martiri bokaziorik ez dezu nunbait, konfesorena bakarrik...(Adimenak, berriz ere).

-Geiago gustatzen zait konfessore martiri baiño, eziñ ori ere ukatu...

-Ta bildurragaitik Meza utziko zenduke Pasko Egu-nean...?

-Ori ere ez...!

Bere buruakin eztabaidan igaro zuan gaua osoa gure apaiz onek:

Gezurretan ari ote zan gure soldadu ori...?

Egitan ari ote zan...?

Zeiñek jakin pruebarik egin gabe...?

Bere bizia Jainkoaren eskuetan jarri eta pekatu guzien barkamena eskatu zion:

-Jainkoak nai duena izan dadilla, ez bait dut nik korapillo au askatzerik...

Jeiki eta bizarra kendu ondoren, elizara txiliña jotze-ra.

Sokari eskuekin eldu dionean, biotza zeukan neurri-gabeko taupadaka:

—Latza dek eskuetan soka au... Nere urkamendiko soka ote...? Ez dek leuna izango lepazamarra estutuko didanean...

Zalantzatik irten bear:

-Jainkoaren izenean...!

Ekin dio gora eta beera sokatik tiraka...

Tilin talan, tilin talan, tñin talan...

Enara bizkorren antzera kanpai-soiñuak arbolatik arbolara, etxetik etxera, menditik mendira agur alaiak kantari (funeral batean zirko-pallasuak ala moduz)... Oeazpi guzietan bildurra zegden, tristurakin batera, kukuldurik... Egoera larri artan, kanpai-ots alaiak zarrada eragiten zien kristau bildurti aien bizkarrean gora:

-Zer asmo txar ote zerabilen buruan Errusiko soldadu sinisgabe aiek, Pazko Egunean kanpaiak jotzen aste-ko...?

Leioetako kurtiñapeetatik ikarak zabalduriko begiak zekusten nun-nai. Biotza kuskurturik, arnasea geldirik, oiñak loturik...

Zer ote zan ura...?

-Mezatarako deia, joango al gera...?

-Ez, gizon...! Jainkoak daki kanpaiak zeinek jotzen dituan...

-Apaiza izango al da jolea...

-Ez burutik eginda ezpadago... Ori tranpea dezu.

Bigarren kanpai-saiorako Yuska elizan da.

-Egun on, Yuska. Iñor bada kalean...?

-Ez, jauna, ez dut iñortxo ere ikusi.

-Lo egih duk?

-Ez asko, jauna.

-Aldarako argizariak piztu eta liburuak iriki.

-Nik, jauna, konpesatu nai nuke aurretik...

Yuskak bere bizi guziko pekatuen barkamena eskatu dio Jainkoari eta apaizari konpesatu apalki.

Ondoren Mezatarako jantzi da apaiza:

-Begira, Yuska, elizan iñor ote dagon.

—Iñortxo ere ez.

-Jozak irugarrena.

Irugarrenez kanpaiaren soiñu alaia kaleetan zear, e-txeetako zirrikitu artetik, baserritar bildurri aien belarrietan kokatu da:

-Ze deabru ote dabil kanpai-joka...?

-Ori tranpea dezu gizon, gu iruzurtzeko.

Meza asteko ordua.

Eliza utsik.

-Zertarako etorri ote gera, Yuska. Engañua dezu. Tranpan erori gera. Iruzur egin gaitue... Guziak gu baiño azkarragoak... Tonto utsak izan gera...

-Gaur Pazko Eguna degu, jauna...

-Bai, ori ere ala da. Arrixkuan geure buruak jartzerik merezi du. Goazen!

Irten dute altara aurrera:

-In nomine Patris et Filii et Spitu Sancti...

Elizako ateak txirrioka...

-Koipe gutxi du ate orrek... (Pentsa du apaizak).

Bat-batean apaizak eta Yuskak, biok batera, atzeraka begiratu dute:

-Zeiñ ote da...?

Zeiñ izango eta soldadu komunista da sartu dana.

Danba, danba, danba... Pauso bakoitzeko danbadak ormeetan gora dijoaz, eliza-goienak arrapatu arte; za-paian jo eta bera dator berriro:

Danba, danba, danba...

Aurrera dator.

Apaiza eta bere akolitua biak mututu clira... Izardi o-
tzak bekokitik dariola... Noiz bizkarretik bala txikiren
bat, ziriaren antzera, sartuko zaien daude ixil eta geldi...

Pausoak aurrerago:

Danba, danba, danba...

-Ain gertutik ez du utsik egingo... (Apaizak bereki-
ko).

-Ene Jainko, artzazu nere anima... (Yuskak otoi).

Pausoak gelditu dira:

-Oraintxen asiko da tiroka ... Ez, ba... Belaunikatu
egin da... Dominus vobiscum...

-Et cum spiritu tuo.

Izardi larritan, Meza aurrera:

-Noiz sentituko ote ditut bala-zuloak bizkarrean...?
Zer egiten ari ote da...?

Tilin, tilin...

Meza-erdikoa da.

Tilin, tilin...

Jaunartzea.

-Orain asiko ote da tiroka...?

-Txisst...! Txisst...! (Gudariak).

-Zer nai ote du...?

Yuskak eta apaizak, biak batera, eragindiote buruari
atzera begiratzeko:

-Komunioa emateko...?! Oraintxen gureak egin
dik...! Oraintxe garbituko gaitu...!

-Ecce Agnus Dei...

Tirorik, ez.

-Kristoren Gorputza.

-Amen.

Yuskak eskuetan daraman txali txikian, zillarezko
bandejatxoan, eun rubloko diru-papera dar-dar...

-Garai aietan eun rubloko papera diru aberatsa zan. Sinistu egi dazu.

-Soviet ofizial arren berririk izan zenduten geiago, Yuska?


-Ez. Etorri zan bidetik alde egin zigun, arrastorik eta astamik utzi gabe.

-Nik uste nuen ruso guziak adardun deabruak zirela...

-Oietakoak ere izango dira, baiña kristau zintzo bildurgabeak ere bai...

Yuska, gerrateko goseak edo, biriketarik gaxotu zan eta sendatuko bazan erritik alde egin bear... Ogei urte dira Hungriatik alde egin zuela. Berak esan zidanari sinisten diot.

Erroman (1960)



ILLUNA, PETRALIN ETA PERUREN ARPOIA

Andre Illuna dago zaurituta oean. Zauria zabala eta sakona da; arpoiez egiña dirudi. Bere senar Peru arrantzaleak etxean ditu arpoi-mota guztiak... Erriko Agintariek Peru artu dute estu eta odolezko arazo onetara dararmaten bide guztiak aztertu nai dituzte:

-Nola gertatu da ezbear au, Peru?

-Nik ziur jakin ez, itsasoan bait nintzan ordu orretan...

-Zuk egin ez ba'dezu, zeñek egin du?

-Nik ez dakit.

-Arpoiaz egiña da eta zuk arpoiak etxean dituzu...

-Bai, etxean ditut eta ontzian ere bai.

-Orduan...?

Onenbestez asiera eman diote auziari. Polizi-gertaera zaarra. Azterketa aietatik sortu zan sinistu eziñezko ipui-kandaira auxe:

Egun batez, itsasoan arrantzan eginda gero, txalupamutillak lo artu du illunabarrean branka deritzan txalo-

pa-muturreko txoko azpian. Soka bilcluak eta txikote-
matasak ditu buruko.

Gau-erdia da.

Sorgin guztien orduak dira, oillarrak goizeko kikirri-
ki jo aurreko orduak. Amabiak dorreko kanpian. Andre
Illuna, Peru patroiarene emaztea, eta bere alaba Petralin
txalopara datoz. Barruan sartu eta berbetan asiak dira:

-Gaur egoaldera joan bear diñagu.

-Zer dala-ta, ama?

-Indar aundiak bear dizkiñat biar...

-Zertarako?

-Aztikerirako, alabatxo, aztikerirako.

Bitartean, branka-azpian lo zegoan mutilla esnatu da.
Lo ala esnai, amesetan oraindik ala bere onera etorrira,
ziur-ziur ez daki; baiña, ama-alabak ikusten ditu alkarre-
kin marmarrean. Amak lemari eldu dio bere eskuakin pa-
troi baten gixan. Alaba aldamenean eseri zaio. Itsasora
bear ote dute andre biak? Nork arraunari eragin? Zer
arraun eta zer itsaso, gero! Amak onela dio:

-Lar guztien gaiñetik eta odei guztien azpitik.

Bat-batean txalopa indarrean asi da ibaiean zear eta,
urak utxita, aideak artu arrapalada bizian. Bere txokoan
mutilla arri-ta-zur gelditu da, ikarak artuta kuskur. Iza-
rrak zeruan nir-nir; ego-aize epela inguruan. Txalupa doa
legun eta ixil mendi-tontor guztien gaiñetik. Tarteka lai-
ño azpitik sartzan dira eta tximistak artuta bezala igaro-
tzen dituzte laiño-moltso luzeak...

Ulargi berriaren adarrak izar-artean. Illargira ote goaz?
Mutilla larri. Aizkenik, olio-arbola baten gaiñean gelditu
da txalupa xamurki.

Aurrez-aurre landa zabala. Aldamenetan maastiak ugari eta maatzondoan artean olio-zugaitz zimur lodikoteak. Zenbat urte ote dituzte? Eta, nun gaude? Ama-alabok jeitxi dira txalupatik. Oraintxe lasaitu da apurño bat gure mutilla. Irten branka-azpitik eta muturra agertu du karel-gaiñetik. Begiak iriki zaizkio zabal-zabal antzararrautzaren neurriko. Zer da ikuspegi au? Zer da ikusten nagoen au? Landa osoa giza-emakumez beterik dago: zaar eta gazte. Gaztetxoak ere bai; baita umeak ere. Auek eta gaztetxoak sapo-zain daude...

Besteen aurpegiak mamu-jantziz estalita daude. Dantzan eta oiuka. Baiña, zer da, an erdian, kutxa baten gaiñean dagoen zer ura...? Akerraren adarrak ditu eta okozpean bizar luzeak. Aker beltza izango da. Akelarre batean nago zalantzarik gabe. Akerraren aurrean auspez turik giza-emakume zerrenda luzeak. Ama Illuna eta bere alaba Petralin ere lerroan sartu dira, txitxara antzean dabilen lerro luzean...

Begi zabalik nago ikusten dedana sinistu eziñik. Oraintxe makurtu da ama Illuna akerraren aurrean eta eskerreko ankan muiñ eman dio; jira da akerra eta bigarren muiña ipur-zuloan. Ondoren, eskariak. Uluna indar bereziak eskatzen ari. Zertarako ote?

Gaua aurrera doa.

Goizeko oillarra esnatu da eta, lepoa luzatuz, argiaren aintzindari dan bere kikiriki luzeena jo du. Ango zalaparta akelarrean sortu dana. Zuziak itzaldtu eta sorgin bakoitza bere aldetik aintxintxika, korrika, presaka, arin eta bizkor... Ama alabak txalupara; mutilla dar-dar bere izkutuan:

-Zer, ama, eskatu al diozu?

-Bai, alabatxo.

-Eta...?
-Arritzekoak ikusiko dizkiñau.
-Zer, baiña...?
-Nere gorrotoa beteko diñat bein betirako.
-Gorrotoa al diozu...?
-Ase eziñezkoa dionat. Gaur amaituko den nere gorrotoa...

Txalupa aidean berriro ifar-alderuntz. Gure mutillak ez zitun itz guztiak ondo entzuten ama alabaren arteko berba-jario artan: iru olatu aitatu zituzten; baita esnea, malkoak eta odola; bale-arrantzarako arpoia odoletan sartuta libratzen zala... Ez dakit nik zer zoro-arteko naaste-borrastea...!

Ustekabean eldu ziran Deba'ko portura. Egunsentia zetorren Donosti aldetik gure ama-alabok etxeratu ziran. Laister zan etxeko patroia jeikita arrantzarako prest. Ez zan oartu etxetik iñor falta izan zanik gaez. Lobelarren bat eman ote zioten bezperan...?

Peru gizarajoa suerte txar batek jota dabil aspaldi onetan; ez baitu du arraiñik arrapatzen iñundik ere... Ez da ba makala izan arrantzan; ez orixe. Punteenetako arrantzalea izan da beti. Baiña, orain arraiñ guztiek alde egiten diote bere txaloparen usaiña artzerako. Zergaitik? Al daki iñork? Gauzak ala dirala eta segi egunero itsasora arraiñetan, itxaropena galdu artean... Egunen batean okerbideak zuzenduko dirala-ta, segi aurrera. Gaurko goiz onetan ere burutapen oiek ditu bere gogoan txalopara urreratu ala.

Peru patroia da eta patroiak bear du lenen edozertan. Txalopara eldu danean bere lagunak ez dira oraindik etorri. Ez dirala etorri? Bateren bat, orratio, etorri da txalupa-maixua baiño leenago: Manuel agertu zaio branka-azpitik dardaraz.

-Baiña, txo, nundik agertzen aiz otzak dar-dar aize epel onetan...?

-Ez da otzik, jauna.

-Otzik ez eta dar-dar...?

—Ikaraz, jauna.

-I aizen bezelako mutillak ez dik iñoren bildurrik.

-Ez, jauna.

-Orduan, zer...? Sorgiñak ikusi al dituk, ala...?

-Orixe, jauna.

-Zer...?! Sorgiñak...?! Egizak aitaren bereala.

-Sorgiñakin ibilli naiz gau osoan...

Eta agertu zizkion bere nagusiari gaueko gertakizun guztiak. Odolik gabe gelditu zan Peru patroia. Orrelakorik ezin gerta zeikean iñundik ere. Mutilla gaixo egongo zan... Sukarrak artuta, amesetan egingo seguru asko...

-Ez, jauna, ez. Ez det amesik egin...

-Nola,ba...?

-Esnai nengoan eta begiak zabal-zabalik. Neure begiz ikusi ditut ikusitako guztiak.

-Ez diat sinisten, sorgiñetan sinisten badet ere...

-Ara emen amesetan ibilli ez naizen seiñalea!

Ori esaterakin batera olio-zugaitzaren adar bat erakusten dio,

—Arbola-gaiñean geundela neuk ebaki det geure mendietan orrelako ostrorik ez dagoelako.

-Egia diok. Emen inguruan, eun kilometrora, ez zegok orrelako zugaitzik... Egia ote...?

-Bai, jauna. Sinistu egidazu eta bear diran neurriak artu...

Patroia eta txo Manuel autuetan diardutela, orra or nun agertzen diran beste txalupa-lagunak ere. Arraiñetan doazenean euskal-txalupak beti eraman oi dituzte balearrantzarako tresnak, edonun eta edonoiz agertzen bait da balea beiñ udazkehezkko aize epelak sortzen diranean.

-Txomin, jarri zaitez lenengo tostan eta, barrara alde-ratzen geranean, zutitu, ezkerreko oiña brankan ipiñi, arpoia eskuan, balea aurrean bazeukizu bezala.

-Balearen aurrean...?

-Bai.

-Eta, zer egin bear det nik?

-Arpoia jaurti.

-Noiz?

-Nik esandakoan.

-Nori?

-Urari.

-Urari arpoia sartu...?!

-Nik esandakoan, bai.

-Ez det tutik entenditzen.

-Neuk ere ez askorik. Gertakizun xelebreak izan ditugu bart, eta oiek egiak ba'dira, gertakizun berriak izango ditugu barra igarotzean...

-Zeuk esaten ba'dezu...

-Neuk esaten det.

-Bale da. Prest nago zure itza betetzeko.

Arrantzale bakoitzak eldu zion bere arraunari eta patroiak lemari, eraman zuten ontzia ibai-erdira eta barraruntz zuzendu. Egoi-aize epelak itsasoa baretzen du barreago ezineta gaur ego-aizeak jotzen dulegorretik. Barra ikusten da geldi iñungo goi-berarik gabe. Izara batez es-talita dirudi... Arpoilaria zutik txalupa muturrean, arpoia eskuan:

-Gure patroi au zoratzen asita zegok. Itsaso orreri arpoia sartu...?! Makurtuta bota beariko diot, orratio...!

Traiñerua doa zuzenik, ibaiaren zillarra erditik ebagiz, iñungo aldenkerarik gabe, ez muturrik jasotzen, ez beeratzen... Ez da itsasoan olatu-susmurik ere.

Barrara diranean, bat-batean, urak bizkarra jaso du, mamu beltz aundi bat bere barruan balu bezala. Iru mamu dira bata bestearen ondoren txaluparen aurka datoztenak. Iru uin, iru olatu aundiak eta zakarrak, oiuz betetako ur-moltso bildurgarriak...

Iru?

Zergaitik iru?

Begira eta ikus zazu Kauntauri-itsasoa asarre datorrean, beti ikusiko dezu irunaka olatuz etortzen. Aldiko iru olatu bidaltzen ditu batera bata bestearen ondoren. Badirudi bere indarrak gastatzen ditula aldiko iru uin oietan. Gero, berriro, arnas artuta, beste iru botako ditu bere aurretik.

Gaurko egun onetan itsasoak bere legeak bete ditu iru olatu auekin. Irunaka.

Iru olatu.

Bat, apar zuriz ornitua, esnearen antzeko.

Bigarrena, oi-u-samiñez betea, malko-negarrez egiña, aundiago.

Iruugarrena, otso amorratua ardi-gaiñera salto egiten duanen antzeko, amorrus bete, odolez gorri, aundiena.

Irurak bata bestearen ondoren...

-Noiz, jauna?

-Oraindik, ez. Nik esango.

Aparrez betetako esne-zuridun olatua igaro du txalupak odeietaraiño muturra jaso ondoren...

-Orain, jauna?

-Oraindik, ez. Eutsi mutilok arraunari!

Bigarren olatuak dar-dar eragin dio txalupa-killara osoari, erdibitzeko eran. Tripaz erori da txalupa ur-zulora. Sakon artatik nola irtengo? Odolezko olatua datorkio gaiñera, infernuko orru guztiak berekin ditula. Zapalduko du. Ondoratuko du.

-Noiz, jauna?

-O-ra-in-txe. Sartu!

Arpoia sartu da uin gorri artan biotzeraiño. Olatua erdi da eta erdi artatik pasa da txalupa pakezko uretara. Urak erdibitzean ikaragarritzko naigabe-intziri itzala igo da kresal-barreketik barrako aitzartetik gora zerurantz...

Biotzak lasaitu dira. Amesa izan ote da? Sorgikeriren bat? Auxen da poza: aurreko egunetan arrapatzen ez ziran arraiñ guztiak, emen dabilta gaur txalupa-azpitik. Arrantzua egin dute sekulan ez bezelakoa...

Kaira eldu diranean:

-Ondo al zerate, Peru?

-Bai, ondo gera eta sekulako arraiñak atrapa dituguz.

-Emen, legorrean, ez dira gauza guztiak ondo...

-Zer, ba...?

-Zure Illuna, alegia...

-Zer du nere emazteak...?

-Etxean dezu ia odol-uzturik.

-Zerk egin dio...?

-Iñork jakin ez; baiña, arponazo aundi bat dauka saiatzeetan. Il-zorian daukazu...

Etxera etorrita, Peru'k emaztearen begietan bereganako gorrotoa ikusteko beste astirik ez zuan izan...

Matasa naastu artatik ari orixe besterik ez zuten atera agintariek. Eskerrak Manuel'en agerpenari: gaizki bear-ko zuan bestela Peru'k agintaritzaren eskuetan...

Berri oiek eman ondoren onela zion Ostatu'ko Mike-la'k:

-Egia ba'zan, sartu dedilla kalabazan.

1970



ZALDUNIRAULIA

Lau zaldidun gurdi oparo bat gelditu da El Cordon deritzan etxe ospetsuan eta bide luzeetako autsa dakar gainean. Erromatik dator Gazteizera amaseigarren gizardia aurrera doan garaiean.

Gurdiaren kanpotik datozen bi gurdi-zaiñek atea iriki eta iru maillako eskaillera ipiñi dute atepean. Barrutik lau gizonek irten dute, laurak goi-sailleko zaldunak.

-Utrecheko Kardenal agurgarria emen dala esan digute.

-Bai, ementxe da bere Korte osoarekin.

Sartu dute zal-gurdi bebarura etxeko morroiek eta eraman dituzte jaunok goiko solairura.

Ez da arritzeko orrelako zal-gurdi ederrak Gasteizko kale zaarretan ikustea, Kastillako Korte Gasteizera etorrita bait dago, Ondarrabiko arazoa dala bide.

Zer arazo?

Frantziarrek Ondarrabi menperatu ondoren, bere gudarostea Donostiara bidean ipiñi dutela, alegia.

Karlbs Espaiñietako Errege eta Alemaniako Enperadoreak, Holandatik ekarri ditu bere laguntzailleak, bere ordezkio Utrecheko Kardenala izendatuz. Orrexegaitik arkitzen da jaun agurgarri au El Cordon deritzan etxean, Erregearen ordezkio Ondarrabiatik datorren erasoari aurpegiemateko.

Kardenalenera albistariak sartuta, aurrean auspeztu zaizkio laurak:

-Jaun agurgarria -diotza buru egiten dunak— Erromako Konklabeak aita Santu izendatu zaitu. Gurekin dartzkigu an zeuretzat emandako agiriak.

Albisteetan albiste aundia benetan albiste ura, Italiako erregeederik aundiena Aita Santuena bait da. Eta, orrezaz gairera, berau da kristau-erregedien arteko auzietan epaille bakarra.

Berri onek istilluak sortarazi ditu Gazteiz eta Araba-ingumarietan, agintari-mota guztiek asi bait dira bertara biltzen, Aita Santu berriari beuroen agurrik miñenak eskeintzeko.

Adriano, Aita Santu berria, Erromarako bideak artzeko antolaketak egiten asi da. Bien bitartean badirudi munduko bide guztiak Gazteizera daramatela... Erlauntza etxe-aldaketan, nola? Ba, ala.

Gazteiz'tik Barzelonarako bideak artu dituzte, Errioxa eta Zaragozan zear. Barzelonatik ekingo diote gero Aita Santuaren erregeidira, Erromara.

Bide oiek zaldunez bete dira.

Aien artean bat, errena, Bitxi-bitxi jantzia: bi rriargo biziz akutxillatutako soiñeko eder-ederra, kapa irikia, galtsa estu-estuak, ezpata gerrian ugaletik zintzilik eta zillarrezko esku-muturradun puiñala, leporaiñoko ille-matasa kirru-orixka eta buruan kapel gorria luma luze liraiñarekin.

Beste zaldunekin bide berean joan arren, ez du aiekin ezaupiderik nai.

OndaiTabiako arazoa

Beaumont Leringo Kondearen laguntzarekin, Naparroa menperatzen du Kastillako Errege Fernandok 1512garren urtean.

Naparrek erdibituta dabilta: Beaumontarrek Kastillarekin bat eginda; Agramontarrek, berriz, Frantzian dituzte beuren lagunak.

Agramontarrek, Frantziarekin batera, eraso egin diote Belate inguruan Kastillako gudarosteari: giputxeen laguntzaz baliaturik, Kastillak irabazi.

Naparroa dala Frantziatik Kastillari erasoteko biderik erosoena konturatu zan, eta laister konturatu ere, Fernandoren ondorengo Karlos errege berria. Ori dala-ta, Doniane Garaziko arri-esi bat ereikitzen du: bata bestearenbarnean.

Naparroako errege-ordezkaritza, Najerako Kondeari eskeintzen dio, 3.000 oiñezko eta 700 zaldizko presta aal zuelako bere kontura Konde onek. Orrezaz gaiñera, Leringo Kondea laguna zuen; baita giputxak, beuroen bear izanez gero. Auek, Naparroa menperatze-arazoan, beti Kastillaren alde jokutzen zuten geroz eta areago. Batasun au sendotzeko, gotzai gipuzkoar bat izendatzen dute Errege-ordezkoaren Konseju-emaille: Rodrigo Mercado de Zuazola. Onek eraikiko du Oñatiko Ikastola Nagusia.

Gauzak orrela izanik, Karlos eta Franzisko erregeek, alkarren arteko asarrean bizi bait ziren, guda zortzen dute Espainia eta Frantziaren artekoa.

Belateko burrukatik onera bederatzi urte pasa dira; baiña, ez daude iskanbilla aiek aaztuta. Ez, orixe. Aien arantzuna izan nai duen eraso antolatzen dute berriro frantziarrek, Enrike de Labrit naparro-errege-aulkian ipintzeko asmoz, eta, bide batez, Naparroan zear, Kastillaren aurka ekintzeko, Comuneros deritzen taldearekin bat egiñik.

Foix'eko Kondearen anai Andre da gudarostearen buruzagi eta 1521eko otsaillean, Agramonteko Enrike Labrit lagun, Bearnera inguratu da 12.000 oiñezko, 800 laztadun eta 21 kañoiekin. Erronkaritik sartu da eta erriz-erri dator Iruña bidean, bazter guztietan ongi-etorrikerik beroenak egiten dizkietela.

Maiatzaren 12an festa egiten du Iruña osoak, Enrike Labrit gudarostearekin batera datorrelako. Burladara eldu dira. Iruñaren oiñetan daude. Iruña-barruan ongi-etorria emateko ospakizunak egiten asi dira. Bien bitartean Najerako Kondeak eta Beaumontarrek aldegitzen dute uritik at ego-aldera, ifarretik bait datozte etsaiek. Alaz ere, alde egin baiño lenen, gudari moltso bat, ez ain ugaria ere, utzi dute uriaren bigarren arri-esiaren barnean.

Ondoren, Erri-konsejuak atea iriki ditu parez-pare, Agramontarrak sartzeko. Andre Foix'ekoak ipiñi ditu kañoiak bigarren arri-esiaren aurrean eta sei ordu bear izan dituzte arri-esia apurtzeko. Barrukoek amor eman dute.

Aurrera joateko asmoarekin etorri dira frantziarrek, Kastillari erasoteko eta utzi dute Iruña gudaririk gabe. Bien bitartean Najerakoa, Beaumont eta giputxeek alkarrekin bildu dira eta Noingo baillaran burruka irabazi dute Foix eta Labrit'eren kaltean. Etorri ziran bidetik alde egin bear izan dute Agramontarrek mugaz beste aldera.

Ez dira, ordea, pakean egotekoak eta, bi illabete pasa orduko, badatoz berriro erasoan 25.000 gudari eta kañoi aundiek lagun dituztela. Lenengo lana Maia edo Amaiur gaztelua artzea izan da, Agramontarren eskuetan lagatzeko eta orrela gibelaldea gorderik eduki, frantziarrek Ondarrabiaruntz abiatzen diran bitartean. Amairu egun naikoak izan dituzte, kañoika gaztelua menperatzeko eta orrela, urriaren 16'ean, barrukoek atea iriki dizkiete: errezege, zenbaitzuen iritxirako. Garaipenaren egoetan, aurrera doaz Donostiaruntz...

Gertakizun auekin Gipuzkoa osoa dabil urduri eta urduritasunez kutsatu da Valladolid'eko Kortearen ere, Gipuzkoaren arazoak Kastillaren arazoak bait dira. Orregeatik gerturatu dira Gazteiz aldera, bertatik obeto aztertu aal izateko eraso-aldi au, Utrecheko Kardenala, eta bere lagunek, Elizako Aita Santu izendatu duten garaiean.

Alguazilla eta eskalea

Santutegi aretan erromesak ugari etengabe gora-beerran multzoka. Talde bat bildu da enparantza erdian eskale baten inguruan. Alguazilla ari zaio galdezka:

- Nun arrapatu dituzu soiñeko eder oiek?
- Sakukiz jantzitako gizon batek eman dizkit.
- Sakukiz jantzitakoak...?
- Bai, jauna.
- Eta, berak nundik zituen, lapurretatik ez bada?
- Nik orixe ez dakit, jauna.

-Zer itxurazko gizona zan?

-Tximia du orixka, kirrua eta luzea; eskubiko anka-
tik, berriz, errenka egiten du.

-Ezaupide oiekin erreza izanen da gizaseme ori to-
patzea; bitartean, zu barrura.

Besterik gabe giltzaperera eramán du eta bera epaillea-
rengana agertu da, sakukiz jantzitako gizona billatzeko
agindua eman dezaion. Jende asko dabil, baiña esparruak
esi estuak ditu eta bereala egin dute topo sakukiz jantzita-
ko gizonarekin. Epailleak artu eta galdezka asi zaió:

—Zuk eman dizkiozu soiñeko auek eskale oneri?

-Bai, jauna.

-Nundik dituzu?

-Neureak dira, edo izan dira orain arte.

-Nundik dituzun galdetu dizut.

-Neureak zirala erantzun dizut eta ortik aurrera ez
daukat ezer esan bearrik.

Entzulebategak:

-Albako meza ondoren, gizon ori ikusi dut nik apai-
zari ezpata eta puñal bat ematen, aldara aurreko burni-
esian esegitzeko.

Alguazilla bialtzen du epailleak, aiek auzitegira ekar-
tzeko.

-Zeureak dituzu?

-Bai, jauna.

-Nundik atera dituzu?

-Orain arte neureak izan dira; aurrerantz ez dira neu-
reak izanen.

-Nundik, ordea...! Zuk buru-gogorra baduzu; nikez
dut biguñagoa. Esan beariko dituzu direnak eta ez dire-
nak...!

Armak eta soiñekoak zaldunenak dira eta zaldun billa
doaz auzia erabakitzeko.

Najera eta Erevalo

Barzelona'ko lau zaldun ekarri dituzte auzitegira. Irurak, ezetz; laugarrenak, baietz, bazuela aren ezaupidea.

-Nundik norakoa da zure ezaupide ori?

-Najeran ezagutu nuen.

-Nola?

-Naparroako Errege-ordezko dan Najerako Kondeak emaztea du katalana, nere senitartekoa. Onek ematen dit aukera noiz-beinka ara joatekoa. Gizon au Kondearen serbitzuan ezagutu izan dut, gudarosteko oiñeko kapitana. Gizon ausarta, burruka guztietan parte artutakoa eta aizkenekoan anka-ezurra apurtu zioten iru zatitan... Oiek guztiok jakin arren, ez dakit nungoa dan, Arevalotik etorri zala besterik.

-Nork bialdu zuan Najerara?

-Arevaloko Jaunaren alargunak, gutun batekin.

Epailleak arloteari:

-Arevalotik etorritakoa zera, beraz?

-Bai, ala naiz. Amasei urterekin joan nintzan Arevalora eta urte batzuek igaro nituen bertan. Ango Jaunak, nere aitaren lagun miñak, seme bat eskatu zion bere etxean azi eta gerora Erregearen Kortean aurkezteko. Amairu anai-arreba giñan eta pozik eraman ninduen Arevaloko gaztelura.

-Eta, zuk zer egiten zenduen Arevaloko gazteluan?

-Alde batetik idazteari ekin, kaligrafia ontzeko; bestetik, berriz, zaldunen guda-burrukak ikasi.

-Kontu-kontari ari zera ipui polita asmatzen. Nobelistaren bat al zara?

-Ez, jauna; nik egia esan dizut.

-Nun duzu jatorria?

-Galdera orretxeri ez dizut erantzungo.

-Garbitasun osoak eman bearko dizkidazu.

-Guztiak, ori ezik.

Kastillako Kortean

Jakin-miñak eraginda jendetza bildu da arlotearen inguruan. Lekuko bat ere agertu da onela esanez:

-Nik ori Valladoliden ikusita daukat Kastillako gudar-ostearen kapitan.

-Egia al dio jaun orrek? Juezak arloteari.

-Bai, egia dio.

-Zalduna zera, beraz, sakukiz jantzitako arlote ori?

-Bai, jauna.

-Eta, nun egin zinduten zaldun?

-Erregearen Kortean.

-Noren babesean?

-Foixeko Germana Erregiñarenean.

-Nola?!

-Nere ama-ordezko, Arevaloko Maria de Velasco andreak, Germanarekin arremanak zitun estuak oso garai aietan. Onen senar Fernando il da gero, Portugalera alde egin zigun, Felipe I eta Juanaren alabarekin batera, printzesa Portugaleko Pedro II erregearekin ezkondu zanean. Andik ez zan geiago Kastillara itzuliko. Orduko artan bialdu nindun Najerara gomendiozko gutun batekin.

-Zu zoratuta zaude eta emen zoro-etxerik ez degunez, alde egin emendik len-bait-len, zeure burua giltzapean ikusi nai ez baduzu.

Arloteak ez dio berriz esateko astirik juezari eman. Errenka alde egin du. Lenengo lana ille-matasa luze-ki-rrua ebagitzea izan da, kaskamotz gelditu arte. Ixilleko bere ibillaldi artan ez du nai iñungo ezaupiderik eman iñori. Orrenbestez, pozik abiatu da mendian beera, erro-mes artean, zorotzat artu dutelako eta, egia esan arren, tutik sinistu ez diotelako. Urduri eta larri zeukan biotza epaillearen aurrean, iñork antz emango ote zion... Baiña, ez da ala izan eta onezkero seguru da: sakukiz jantzita, txima errotik ebagita, bere nortasuna izkutuan geldituko da sekulako. Aurrerantz, nork ezagutuko du, itxura oien azpitik, Kastillako kapitan gazte arroputsa...?

Amadis eta Oriana

Egia esan arren, zertzu batzuek gelditu dira esan gabe. Ez du esan, Felipe eta Juana, errege-erregiñaren amabost urteko alabatxo panpoxarekin maite-mindurik dabillega aspaldi onetan. Oiek esanbalitu, orduanbai, eta arrazoi guztiarekin, zorrotzat artuko zutela; Errege-Kortean, ordea, zaldun asko zebillen neskatoak zorabiatuak; baiña, gure eskalearen neurrian, iñor gutxi.

Zaldunen ipui ikaragarriak burua zearo naastu zioten gure arlote erromesari. Amadis eta Orianaeren istorioak bizi-bizi eragin zion irudimena bere bizitzaren aldi batean.

Zaurituta, bere etxera eramán zutenean, bein lenengo nekeak pasa ondoren, orduak igarotzen ziren luze, apurtutako berna-egurra bere onera etorri arte. Amadis eta Esplandian zaldunen liburuak nai zitun irakurgai. Ezagunak zitun eta berriro gogoratu nai; eurokin burubat eginda bait zebillen aspaldian bere irudimenean. Alkarren arteko bizkitasuna bazutela iruditzen zitzaion.

Elisena eta Perion'en ezkontza-aurreko maitasunetik sortu zan Amadis. Ezkondu ondoren izan zituzten Melizia eta Galaor. Sasikumea, Moises errekan utzi zuten antzera, itsasoan laga zuten, saskitxo batean, eraztuna, ezpata eta idatzi bat berekin zitula. Gandales'ko zaldunak jaso zuen uretatik eta Itsasoko Mutikoa ipiñi zion izen-goiti. Denboraz, Oriana printzesaren paje-laguntzaille izendatuko dute. Oriana zein zan? Bretoiña Aundiko Lisuarte Erregearen alaba. Alkarrekin maite-mindu ziran bi gazte auek; baiña, bakoitzak berea badarrik zekien eta ez bestearena; orregaitik Amadiseri «gauza ausarta iruditzen zitzaion bere begiak arengan ipintzea». Zaldun izatera iritxi nai zuan eta «zertzuk egingo zituen orduan» gogoratu bien bitartean.

Berdin-berdin gertatzen zitzaion gure zaldun zaurituari ere. Berak ere bere begiak Kastillako printzesaren-

gan ipiñi zitun zearo maitemindurik, eta, Amadisen antzera, berak ere bere maitearen alde izugarriak egiteko prest zegoen.

Zoritxarrez, ordea, orrelako libururik ez zan bere etxe-ko jauregian. Irakurtzeko afiziorik ez eta, astirik, berriz, gutxiago. Etxeko gizaseme guztiak, aitagandik asita, gerrari beuren buruak emanak zebiltzen aurrekoen antzera. Aitaita frentean moroekin burrukan lau urtez ibillia zan Xemena egoaldekoan. Aita, berriz, Granadaraiño eldua zan mairuen aurka. Bi anai Napolesen illak, beste bat Hungarian eta laugarrena Indiasetan: guztiak gudari. Bera zan gazteena eta bera ere gerratean zauritua.

Kortetik, bertan paje egiña, errira itzuli zanean, goiak arro erabilli oi zitun bere ogeita lau urte erneak erakusten. Ederrez jantzita, errian ederrik bazan, tximia orixka eta kizkurra sorbaldaraiño, kapela gorria luma luze liraiña lau aizeetara emana, galtza estuak, ezpata eta puiñala gerrian.

Itxura berdin-berdiñean agertzen zaizkigu, 1519ko liburu batean, Amadis eta Galaor bere anaia: ille mata-sean, txapelean, jantzi eta galtzeetan. Oro berdin. Eskaleari emandako soiñekoak ere oietxek ziren.

Neska politen ondoren ibiltzeko beti prest eta, ezpata eskuan, iskanbillak sortarazteko beti erne. Iñauterietan, eriotzarik izan ez bazan ere, odola ixuri zan erriko enparantzian eta arazo aretan gure zaldun gazteari ez zitzaizkion erantzunkizunik falta epaitegietan. «Kastatik kondea eta zepatik matsa» esan oi zuten gure arbasoek; gure aitonak, berriz, onela esan oi zuen: «el genio del kristaugenero del zain viene». Bere aurreko leiñoak burrukalariai zitun eta berari ere ez zitzaion burrukarako arnasik falta.

Etxetik alde

Zaurituta gaixo egon ondoren, ordea, berotasun oiek otzitu zitzaizkion zearo, anai nagusia bere onetik ateratzeko moduan. Anai zaarrena burruka guztietan buru-belarri sartuta zebillen Belatetik Ondarrabirako guztian Kastillaren alde eta Naparroaren aurka. Oiek orrela izanik, bere anai gazteenak, kapitanik ospetsuenak, jaramonik ere ez; gauza oiek aintzakotzat artu ere ez.

-Gure anaiari odola meetu zaio, ur biurturik. Nork egin dio begizko? Gure sendi osoaren itxaropena ziñan ori, nola erori zera ain beera...!

Gaixotasunaren lana, erori-aldi ori. Ez zizekean bestela izan. Martiñek itxaropenik galdu nai ez eta aldaketarako epea luzatu zion... Ez alperrik! Goiz artan biotza lurreratu zitzaion, anai gaztea bere aurrera agertu zitzaionean onela esanez:

-Najerako Kondearengana joan bear dut.

—Burruka Ondarrabi inguruan dago!

-Ura da nere jauna eta aren esanetara egon bear dut.

—Zeure erriko eta senitarteko arazoak bertan beera utzi bear dituzu?

-Nere jaunaren serbitzuan nago batik-bat; gero, geroakoak.

-Ez dedilla ori burrukatik alde egiteko aitzaki bat izan.

Anai gaztea jantzi ederrez apainduta, mando gaiñean, aldemenetan bi eskudero zitula, etxetik alde egiten ikusi zuanean, burua zapaltzen dioten sugea zirudian Martiñek.

-Aldatzen ez bada, onetxek ekarriko dio gure etxeari ondamendia.

Najerako Kondearen eginkizunak bete ezkeroz, librea zan bere asmoak elmugaraiño eramateko. Dukearen diru-zaiñari zor zizkioten dukatak eskatu ondoren, bere bi morroieri dukat batzuek eman eta etxera bialdu zitun. Aurrerantz, bakarrik nai zuen, iñoren laguntzarik gabe.

Errioxatik Zaragozara eldu zanean, uri onetan mogimendu aundia zebillen Aita Santu berriari ongi-etorria prestatzen eta, barrura gabe, aurrera ekin zion, ez bait zuan ezagunekin topo egin nai. Igaladako errian saku-kizko orpotaraiñoako soñeko luzea erosi eta mendian gora Monserrateko santutegira doa erromes.

Iru egun otoitzean eta baraurik bere bizitzako pekatuen zerrenda luzea egiteko, soiñetik jantzirik eta oiñetakorik kentzeke. Laugarren egunean zerrenda luze ori aitortleari irakurri; ondoren, pakea eta poza barnean.

Abadegian bere mandoa utzi; ezpata eta puiñala aitortleari, aldara-aurreko burni-esian ex-boto baten antzera esegiteko, eman; soiñeko ederrak, alkandora aiñako guztiak, eskale bateri eskeiñi; gauez bere burua sakukiz jantzi eta albako Meza entzun ondoren kalera irtetea, asi zitzaizkio egun arteko istilluak...

Otazuko jauregian

Bien bitartean, gure zaldunaren morroiak, Errioxatik Arabarako bidea artu dute Otazura eltzeke, Aizkorriren ego-aldean. Bertako jauregian atea jo dute. Iriki orduko, morroiak:

-Ene! Emen zerate? Eta, zuen zalduna?

-Alde egin digu eta ez dakigu nora.

Etxekoandreak barrutik:

-Nor da or ate-joka?

-Zure illobaren bi morroi-laguntzailleak.

-Sartu, sartu barrura, sutegiraiño otz dago-ta. Elurra-
ren poderioz zezena akabatzeko Martxoak Apirillari es-
katutako bi egun t'erdia, zozomikoteak alegia, gaiñean

clitugu. Aizu, Peillo, upeltegitik pitxar bat ardo ekarri urdaiazpiko xerra batzuekin...

Su-inguruan eseri dira lasai. Etxekoandreak:

-Bederatzi illabete dira emendik etxeruntz abiatu zinetela.

-Bai, andrea -erantzun dio Andres Nabarnizek—; oraintxe bete dira bederatzi illebeteak Juan Landeta eta biok, frantzes taldearekin batera, emen agertu giñanetik.

-Gurean egon zīñaten aste bete, arnas-artzen, illoba ilko ez bazan.

-Osta-osta eldu giñan etxera bizirik eta ondorengo egunak ez ziran eder-ederrak izan. Erdi-illik sartu gendun atetik eta irugarren solairuan ipiñi.

-Ezagutzen dut irugarren solairua, an bait daude seme-alabeen gelak eta bisiteentzako ere bai.

-Bi leio ditu gela arek, bata iparraldera eta sorkaldera bestea; bera ez zan, ordea, konturatu nun zegoen. (Andresek).

-Nola sendatu zuten?

-Inguruko sendagille guztiak bildu zituzten etxean eta sekulako triskantzak egin zizkioten zorioneko berna aretan.

-Zaldunentzako lo-belarrik ez da, ukabillak estutzea baizik. (Andre Mariak).

-San Juan egunean, sendagilleen aolkuz, Azken Sakramentuak artu zitun. San Pedro bezperan, berriz, aldakuntza aundirik ez bazan bien bitartean, gauerdirako ilko zala, adierazi zuten medikuek.

-Baiña, bizirako gertatu zan zorionez, arrezkero guretik azaldu ez bada ere...

-Apurtutako ezurrek gaizki eantsi zitzaizkiolako alkarri, eskubiko zangoa gelditu zitzaion ezkerrekoa baiño apur bat motzago, ezur-mutur bat agertzen zitzaiola bistan. Naiko itxusi. Galtza estuak eta polaiñak nabarmenkeririk gabe jantzi ezin.

-Nola, bada, ezbear ori ainbeste mediku inguruan izan-da...?

-Etxekoandrea, zuk ondo dakizu nola zekarren berna-ezurra zatituta.

-Eta, ori zuzentzeko zer egin zuan gure illoba dotoreak?

—Ezurrak obeto antolatzeko, berriro ebagi.

-Izugarria; baiña, gure illobari dagokiona.

-Izugarriago oraindik, zaiñak luzatzeko, ondoren egin ziotena; tramankulu batean sartu, saiñetatik tiraka, geldirik mogitzeke egun askoetan; martirien antzera. Ukabillak bilduta eraman zitun neke guztiak, senideak ikaraz beterik...

-Neke oiek jaso ondoren, ondo gelditu zitzaion berna?

-Beti eskubikoa motzago; baiña, oiñazpian txataltxo bat ipiñi ezkerro, ez zitzaion errena nabari, ondo begiratu ezik.

-Gure illoba ori beti izan degu irtenxamarra eta gora begiratzen duena. Orain bertan ere goimaillako emakume gaztearekin maite-minduta dabil eta ez nau batere arritzen egin ditunak egitea...

-Irrikatzen zegoen Kastillara biurtzeko eta ez dakigu zer aizek eman dion buruan asmoak orrela aldatzeko: Kastillara begiratu bearrean, Kataluniako bidean jarri zaigu.

-Nor du, ba, Katalunian...? Ez da iges joango...

-Iges ez, etxekoandrea; bildurragaitik ez beintzat. Beti izan da ausarta eta bildurgabea. Zauritu zutenean ere, bera bakarrik zan etsaiari aurpegia emateko; gutxi ziran askoen aurka eta beste guztiak, kañoiak izketan asi ziranean, burua makurtu nai zuten eta ateak iriki; baiña, zure illobak ezetz, eta, gudariak zirenez, gudan iltzeko errenditu baiño lenago. Arresian kañoiak egindako zulo-ra salto egin eta, ezpata eskuetan, ekin zion burrukari ka-

ñoi-bala batek zauritu zuen arte. Zure illoba erori zanean, arnaitu ziran ango burrukak.

-Bai, badakit biotz eta arnas aundikoa dala nere illoba ori. Aurrera joateko asmoa artzen duenean, ez dago iñun indarrik ura geldiaraztekorik. Baiña, zer aje ote du oraingoan...?

Zaldunaren ajea

Etiket irtetzean, beste tresneen artean, idaztiño bat darama gure zaldunak ondotoxo gordea, idaz-luma eta tintarekin. Guztiak eman ditu; baiña, idaztiñorik, ez.

Idaztiño artatik dakigu zaldunaren oraingo ajea zer nolakoa den.

Gaixo-aldiko ordu luzeak igarotzeko lagungarri, ez zuten bere etxean Amadis eta Esplandianen libururik; ordez, Santuen eta Kristoren bizitzak eskeiñi zioten. Besterik ezean, eurokin konformatu bear.

Ez zien liburu aieri arretaz eldu, egun asko pasa artean. Barneko gogoetak naikoak zitun orduak atsegiñez pasatzeko; baiña, asper-aldietan, aiengana jotze zuen, iru-lau orduz bere maitearenganako maitasuna ausnartu ondoren. Liburu aiek irakurtzeko ez oitura ez afiziorik. Alaz ere, orduak luze zijoazkionean, liburu oietara jotzen zuen eta apurka-apurka gustoa artzen asizen, bere aietan zearo murgildu arte.

Liburu oien pasadizoak irakurri ondoren auxe gogoratu zitzaion lenengo eta bat: oiek egin zutena neuk ere egingo neuke. Santuekin batera bere Kastillako maitea gogoratzen zitzaion: bi arpegikera zituen joko bikoitza zan ura, Santuekin bere maitea naasi.

Santuen artean Asisko Franzisko agertzen zitzaion bi-ziena eta egokiena, alkarren antza ematen bait zuten biak. Biak zeukaten bizitzaren lenengo zatia munduari eta panparrokeriari emana; bigarrena ere berdiña izango ote zan? Orrek au eta au egin dizkik, neuk ere beste orren

beste egin bear diat... Santuen bizitzak, eta Kristorenak batez ere, eragin aundia egiten zioten.

j. j.

Ausnartze auek berekiko eta bakarka egiten zitun, iñungo laguntzarik gabe eta ez zion iñori bere barrurik erakuzten. Ausnartzen zitunak, bere kolkoan gelditzen ziran. Bakardade artan eta iñoren aolkurik gabe, sortu zitzaion bere bizitzari elburua aldatzeko asmoa.

Buru-jokabide oiek, ez bereala nekez baizik, auxe erakutsi zioten: maite-miñeko pentsamentuetan pozik egoten zala luzaroan; baiña, egoera orrek barru txarra sortzen ziola ondoren. Beste aldetik, berriz, Santuen ekintzeeri begiratu-ta, ordu pozgarriak igarotzen zitula eta ondorengoa ere pozgarria eta paketsua zala. Orra or espiritu txarraren eta onaren arteko aldea eta diferentzia: espiritu txarrak poza dakar eta ondorio tristea; espiritu onak, ordea, poza eta ondoren pakea eta gozamena.

Arretaz ipintzen zitun auek danak bere idaztiño maitean Arevalon ikasitako kaligrafia ederrez.

Ustekabean asmoak aldatzen zijoazkion: asieran, Santuen ekintzak baiño aundiagoak egitea zan arazo guztia karga-jasotze proba baten antzera, nor geiagoka; gero-ra, berriz, bere bizi osoaren uskeria eta lotsa nabarmentzen zitzaion biotz-barnean. Egoera orrek penitentzi latza eskatzen zuela, garbi asko ikusten zuen bere barruko argitan eta asmo ori aurrera eramateko indar bizia sortu zitzaion gogoan.

Ala gertatzen zitzaion soldaduzkan ere: egin bearra ikusita, ekingo zion aurrera etenik gabe zearo bete arte, arri-esian zauritu zutenean bezala. Nekeak eta arriskuak ez zuten atzera botako. Naiago, il.

Oraingo onetan bide berriak iriki zaizkio bere aurrean eta bideari eutsiko dio, atzera begiratu gabe: artutako erabakiari ez dio bizkarrik sekulan emango.

Bere inguruan ez zan inortxo ere aldakuntza auen jabe egin; inork ez zion inungo susmorik jaso: asmo guztiak ixilpean gorde zitun eta santutegiko aitorle ezezagunari bakar-bakarrik agertu zizkion.

Bere anai Martiñek, orratio, aldakuntzaren bat eza-gutu zion; baiña, ez nundik norakoa zanik. Txepeltasuna, odolik-eza, gerraterako griñaren otza... besterik, ez. Lengoa ez zala: lengo burrukalari ausarta, gerrari emana... Oraingoa, epela. Zenbat burruka alkarrekin egiñak eta beti bera, Martin, baiño ausartago, zauritu zuteneko artan bezala... Baiña, orain inguru osoa guda-santoz bete danean... Nafarretera iges Najerakoa dala eta ez dala... Sekula orrelakorik...!

Penitentzi latza egin bear eta orretarako nora jo? Zalanta orretan Monserrateko santutegia etorri zitzaion gogora. Zaldunen ipui-liburuen artean ospe aundikoa zan «Melusina» izeneko idazti frantziarra. Suge-itxuran Melusinak gaztelutik alde eginda gero, bere senarra Monserratera baztertu zan penitentzia egitera, bertan il arte.

Gure zaldunak ere Monserrat zeukan buruan Nafarretetik Zaragozarako bidea artu zuanean.

Etxeko berriak

Bere morroi-laguntzaille biak, Andres eta Joan, Otazutik gora Aizkorriko bidean doaz San Adriango kobatuneletik aurrera. Elurra zegoen gaillurrean arra bete eta itsas-aldeko kresal-usaiña nabari zan aidean...

Elmugara eldu dira.

Torreak bi zati dauzka: karaitza bizia bi lenengo solairuetan eta bustinezko ladrillu gorria garaikoenean. Aide-nagusien erribilleen aurkako burrukak zirela aitza-

ki, Kastillako erregeak moztu zitun Aide Nagusien etxe-torre arroak, goiak ebagiz. Nagusi agertu zan serbitzariaren deiari erantzunez. Bere anaiaren bi morroiak ikusi eta onela dietze:

-Nun da nere anaia?

-Alde egin digu.

-Nundik alde?

-Najerako Dukearen Nafarreteko etxetik.

-Nora?

-Zaragozarako bideak artu ditu: baiña, ez dakigu noraiño doan.

-Burrkak eta bearkizunak gure artean daudelarik, nolatan aldendu da urrutiratuz...?!

-Zuretzat mezu bat dakargu.

-Mezubat? Gaitz-erdi. Esan, esan...

-Auxe esan digu; aurrerantz ez duzutela aren berririk izango, pobrezian eta penitentzian doala erromes-eta.

Begiak ditu su-ta-gar Martiñek ori entzutean. Eskuak dar-dar. Biotza taupaka leertu bearrean. Lotsa, lotsa, lotsa betirakoa Aide Nagusien buru izandako leiñuari bota diona sekulako.

-Gure etxea mesprezios bete du eta lotsagarri utzi senitarte osoa Gipuzkoa guztiaren aurrean. Amaitu da aren izena guregan. Ni bizi naizen artean, arbasoen Loiolako Torre onetan, zin dagit, ez da geiago aitatuko Iñigoren izenik.

1986

KATALIN ETA PIARRES

Deba'ko elizan, «Gorularia'ren Kapilla»n nengoan Zubelzu'ko Andre Madalen'eri begira. An zegoan bera leyartzatik (bidrieratik, alegia) neri begira, gorua eskuetan, eta bere alaba Katalintxo'ren illobi-aurrean. Aldameneko beste leioko kristal-margodunetan, Katalintxo ikusten zan, itxaso barrura urrutiratzen ari zan barkuari agur egiten...

Bat-batean, Andre Madalen Zubelzu'ko izketan asi zitzaidan:

-Begira zaude eta zeure buruari galdezka nola eresi onen xeetasunak gertatu ote ziran eta neronek emango dizkizut berri guztiak.

Deba'ko Monreal erria berritik eraikita zegoan ibaia-
ren ertzean, itsasoari begira. Ordurako erromatarrek as-
palditik zeukaten Euskalerria erdibi, Pirenee mendietan
ipiñi zuten mugaren bitartez. Ez zan berezko muga, eus-
kaldunak bizi bait ziran bi aldeetatik:

«Emen dela España
an dela Frantzia
mugaren bi aldeetan
da Euskalerria...»

Akitania Ingalterra'ra Leonor'ek eraman zuan Plantagenet batekin eskondu zan egunean eta Akitania'n zegoan gure erri Bayona ere. Ez da ba arritzeko gu Ingalterra'ren burrukeetan sartuta ibiltzea. Burrukak itsasoan ere. Ingalterra eta España alkarren arteko burrukeetan zebiltzelako gu ere bai, euskaldunok bata bestearen aurka. Zergaitik ori? Orrelako naigaberik asko jaso bear izan ditu Euskalerrriak bere historian zear. Emen gaude erdian txingudi eta mailluaren erdian burnia dagoan bezala, bien erasoaldieri eutsi eziñik... Zeltak eta iberoak, frankoak eta godoak musulmanekin batera, frantsezak eta espaiñolak: batek eutsi eta besteak eman. Ori gutxi dalarik, gure artean ere burrukak...

Oiek orrela dirala, egun batez itsas-lapurrek agertu ziran gure kai aurrean. Sortu zan burruka eta ondoren, itsasontzi bat ondoratu zan. Zaurituta, baiña bizirik, mutil gazte bat eldu zan igari ondartzara. Gure gizonak eldu eta arrastaka enparantzara ekarri zuten. Baimenaren eske zeuden itsas lapurra zinzilikatzeko... Gure Zubeltzu-torrea enparantzaren ertz batean dago. Ango istilluak ikusi nituanean etxetik jeitxi nintzan zalaparta ura baretzeko asmotan. Euskalduna da -esan nien- eta kristaua. Burruka ez du berak asmatu eta beste gabe ezin genezakegu gizona erail... Urak baretu ziranean, neure etxera eraman nuan, kristau-legeak agintzen duan eran. Gaiñera, ura ez zan benetako etsaia...

Pozik zegoan egun artan nere Katalintxo eta mutillari zauriak sendatzen laguntzeko ere presta zan... Goizero berak eramaten zion gosaria; pozik eta alai eraman ere.

—Zergaitik gure arteko burrukak, Piarres?

-Bai, Katalin, neuk askotan pentsatu izan det ori, zergaitik ari ote geran burruka bizian alkarri kalte egiten...

-Gu euskaldunak gera guztiok: zuek mugatik aruntz eta gu mugatik onuntz... Baiña, erri bakar bat. Euskalerra bakar bat osatzen degu alkarren artean. Zergaitik, alkarri burrukan...?

-Bai, Katalin, arrazoibidea zeuk dezu; baiña, gu biok zer egin genezakegu?

Arian arian, uste gabea, maitemindu ziran biak. Gure Katalintxo oso zan gazte; mutillak bazitun urte batzuek geiago. Ez geiegi. Nere alabak biotza zeukan elurmalutak lurreratzen diranean bezain zuri eta garbi. Maitemiñak menperatu zion biotza oso-osorik. Piarres'en ondoan egun osoa. Piarres'eri Deba'ko berriak ematen zoriontsu igaro oi zitun orduak eta egunak...

Mutilla sendatzen asi zanean, ibai-ertzetik ondartzara, itsasoari begira:

—An dago nere erria, Katalin. Muiño oietara igo ezkerro ikusiko genduke, laiño-ifarrik ezean. Zer poza zurekin an ba'nego... Nerekin eramango zaitut sendatzen naizenean...

-Bai, Piarres; pozik joango nazaizu zurekin edonora, alkarrekin bat egitekotan.

-Ori egia ba'litz, zer zoramena, Katalin...

Sendatu zan gure mutilla eta ordurako emanda gendukan albistea bere gurasoei. Goiz batean beste aldeko iru mastadun ontzi galanta agertu zan itsasoan ondartza aurrean. Bota zuten txalupa uretara: sei arraunlari eta patroia...

Berri au egaka eldu zan Zubeltzu'ra, albistaria bera baiño leenago. Mutilla eramatera etorri ziran, gurasoen aginduz. Aberatsak ziran eta bazituzten bale-ontziak ere...

Alkarri lotuta zeuden biotzak eta askatu ezin lokarri ura... Azken-agurrik atzeman ezin... Luza ta luza, ondartzaraiño eldu ziran...

-Agur, ene Piarres. Eraman nazazu len-bai-len zurekin.

-Laister etorriko naiz berriro zu eramatera, nere gurasoen baimena lortutakoan.

-Izan dedilla laister, ilko zait biotza bestela-ta...

-Bai, Katalin, laister natorkizu berriro...

Txalupa eta arraunlariak zai zeuden agurrari noiz aizkena emango ote zioten.

-Piarres jauna -esan zion pillotuak- marea beera doa. Ez daukagu geiago luzatzerik eta mesedez barrura igo...

Besarkada luze batek eman zion agurrari amaiera. Igo zan Piarres txalupara pillotuak eskatu bezala eta agurka aldendu zan itsas-ertzetik barkura... Oial zuriak aizeetara jaso zituzten eta ontziak kulunka ifar-aldeko bideak artu zitun.

Katalintxo ondartzan agurka, pañuelo zuria eskuan. Piarres agurka barkutik. Ura urdiñ, kresala, bien artean geroz eta zabalago...

Katalin etxeratu zanean biotza zeukan kezketan urduri. Utziko ote diote nerekin eskontzen? Noiz etorriko da berriro guregana?

-Ai, amatxo, ni orrela ezin neike bizirik iraun...

-Bai, alabatxo, iraungo dezu. Maite-miñak, odola darío biotza ipintzen ba'du ere, ez du iñor iltzen...

-Ez, ama, ni ilko naiz: zauri gorri aundi sakona daukat barnean... Bizi ezin, ama...

-Egunak luze zai dagoanentzat. Argizaria bezala ari zan urtutzen gure neskatoa, egunero tanta bat. Zai, beti zai. Urduri, egon ezin. Lo ezin. Jan ezin.

-Noiz, ama. Noiz?

Azkenik berriak izan ziran Ifar-Euskalerritik. Ezetz. Etsaien arteko eskontzarik ez zutela sekulan onartuko gurasoek... Tximistak jota bezala, erori zan Katalin. Ez zuan geiago, bere burua jasotzeko aalmenik izan. Urtu zan. Maite-miñak il zuan.

-Eta, Piarres?

-Itsasora berriro ekaitz eta burruka artean bere miña ittotzeko. Toki arriskuenetan beti zutik. Bonbarda batek garbitu zuan, ez bait zitzaion bizitzarako gogorik biotzean gelditu...


-Eta zu, Andre Madalen, zer egiten dezu kapilla onetan?

-Alaba bakarra nuan eta alarguna nintzan, Katalin'en eriotzak, nere buru-barruko ordenamentuaren aria eten

zidan. Zoratu nintzan. Arrezkero emen nago, bere ondoan, sepultura onetan, bere loa zaintzen, ardatzean ari naizela. Baiña, ixo, esnatu ez dedin...

Orregaitik deitzen diote «Gorularia'ren Kapilla» elizaren baztar oneri.

1973



KATAMIXAR BATENISTORIA

Davos (1963)

-«Antzi, koon...!»

Udaberriaren etorriarekin asi dira basoan Katamixar-
rleri oska.

-«Antzi, koon...!»

Udaberria, bere aita Eguzkiaren eskutik dator, dana
zuri, gorri, urdin, orlegi... Inguru guziak, berak argitu eta
pizten ditu...

-«Antzi, koon...!»

Negua lo pasa du Katamixarrek basoko enbor-zulo
batean.

Iilunean.

Baiña gaur, jeiki da Udaberriaren irrintzira:

-«Antzi, koon...! Jeiki adi, Katamixar...!»

-«Zer den, Udaberri...?»

-«Negu illunaren indar beltzak nere menpean zeu-
dek...!»

-«Bai ote...?»

-«Bai orixe...!»

Katamixarrek, belarriak tente, begiak iriki ditu.
 Enbor zulotik gora begira dago...

An goian, zeruko zapaian, urdiña... Urdiñarekin batera, Odei arrastoak aizearen egoetan, aurrera...

-«Agur, Odei...!»

-«Agur, Katamixar...!»

-«Agur, agur... Zoaz pakean, eta zure erraietako urtanta, elur-maluta eta kaskabito borobillak urrutira eramantatzu... Zoaz arin, aizearekin batera... eta utziguzuzo gozo-gozo Udaberriaren egalpean egoten...»

Eskuak eta anak luzatu, ao-zabalka une batean egon... eta irtetzen du Katamixarrek bere zulotik arboladarrera... adarretik, berriz, goi-goiko puntara...

Ikuzkizun zoragarria...!

Alpes'etako tontor-galluretan, elur zuria... Beerago, piñariak...

-«Ni naiz -dio Katamixarrek- piñari auetako nagusi...!» :

—«Zu...?»

-«Bai, ni... Nagusi naiz eta errege...! Ta zu, zeintzea...?»

-«Mendi auetara ikus-mira etorritako euskaldun bat...!»

-«Or beian, zenbat lore-mota dauden ikusten...? Orrelakomargo-kolorerik ez da ikusten Euskalerrian...»

-«Zergatik ote da...?»

-«Emengo loreen margoa biziagoa da... Zergatik dan...? Loretxoak, berak esango digu zergatik... Zergatik, Loretxo...? (Galdetzen dio Katamixarrek loreari).

-«Zergatik geran ain gorri eta ain urdiñ...?»

-«Zergatik dezute kolorea ain bizi...?»

-«Negu beltz luzeeko gure egoera elur-azpikoa izan da... baiña, oraiñ, Udaberriarekin, egarriz eraten ditugu Eguzkiaren errañoak... Udaberriak uxatzen ditu emengo odeiak eta ortzia agertzen zaigu garbi eta urdiñ. Onen kolorea artzen degu urdiñ, Eguzkiarena, gorri...»

-«Oiek, Kuskalerrian ere ba ditugu...»
-«Bai, baiña, gu gaude ernen Eguzkitik eta Zerutik Euskalerrian baiño gertuago... Orra zegatik geran urdiño eta gorriago...»
-«Eskerrik asko, Loretxo.»
-«Eskerrik asko -dio Katamixarrek ere-. Agur, Euskaldun eta urrunarte...»
Besterik gabe jetxi da arboletik eta ba dijoa, basOan zear, Udazkeneko urrak gordetako zuloen billa...
-«Agur, Katarnixar...!»
-«Agur...! Agur...»

Ori da jolasteko gogoak dakarrena Katamixarrek...!
Urrak j an ondoren, or- nus dijoan gora eta beera, esker da eskubi, jira eta bira, salto eta brinko... baztar guziak aztertzen.

Eun, berreun, millaka zugaitz oianean zeruraño-koak... Euren itzalpean, argi-izpiak, arboletatik txintxilika, lurreraño...

Bere biotzeko poza eziñ gorde Katamixarrek bere barñean...

Bat-batean, zugaitzetik beera, orra or bere lagun zaar bat agertu:

-«Kaixio, motell...!»

"— «Kaixiooo...!»

-«Ondo altzerate...?»

-«Bai eta zuek...?»

-«Udaberria etorri ezker... Gau luzeak, izotz makurrak pasa dira... Emendik aurrera argia, beroa, maitasuna, zoriona...»

Bere zorionari ezin eutzirik aurrera dijoa Katamixar korrika, saltoka, laisterka:

-«Agur, lagun zaar...! Agur ta Udaberri on...!»

Bere itz eta garraxietara, Udazkeneko lagun talde osoa agertu zaio zugaitzeetatik bera...

-«Agur, jaunak...! Agur, danori...!»

Ala dio Katamixarrek, etengabeko arin-aranga artan, arnasa artzeko astirik gabe... Ekin diote besteak ere bere ondoren eta or sortu da sekulako iskanbilla eta ankaotsa... Batzuek besteen ondoren... Guztiak, arin... Guztiak, korri... Guztiak, salto... Guztiak, garraxi...

Ango izkanbilla eta zoriona...!

Ihik zegoan basoa biziberritu dute...

Bat-batean, gelditu da Katamixar.

Tente.

Belarriak, luze, gora begira, Begiak, argi. Irriparra, ezpañetan. Bustana, dardarka. Biotza, lertzeko zorian. Zoriona, erraietan gañezka...

Katamixar-Andereño du bere begien aurrean.

Zer erantzun emango ote dio...?

-«Bai...?»

-«Bai!» (Diotza Andereñok begiak).

-«Baietz...?»

—«Baietz!»

Alkarri eskuak eman... eta or dijoaz, berriz ere arbolatik arbolara, adarretik adarrera... kabi billa.

—«Piñu zaar onetan izanen degu toki egokia... Ikus dezagun...»

-«Arrazoi dezu, Katamixar. Ona emen zulo bat aukerakoa...»

-«Egokiagorik eziñ: gordea, beroa, preskoa, illuna eta, an goian, argia...»

-«Gure maitasunaren kutxa ixilla...»

Katamixar, Udaberri artan, gizondu eta aita izateko bidean jarri zitzaigun... Bitartean, Uda eldu da...

Uda...!

Piñari artean bidexkak zeuden asfaltoakin txukun egiñak, oso garbiak. An, beeko zelaiean, etxe asko zeuden alkarrekin; baña, banaka batzuek goietara zetozen baso-ertzerano...

Udarekin batera arpegi berriak etorri oi ziran Davos errira.

Katamixarrek ba-zekien ondo asko arpegi aien berri.

Bai, orixe!

Aiek etziran Suiza'n jaioak, kanpotar turistak bai-zik... Egun batzuek Davos'en pasatzera zetozen...

Davos erriari askotan begiratu oi zion Katamixarrek bere arbolen puntatik... Hotelak eta Sanatorioak ugari... Baña, Davos inguruetako zelaietanba-ziranbaserritarrak ere... Buruko kapela, oñetako bota eta polañak kendu ez-kero, Euskalerritik etorritako baserritarrak zirela ere esateko zegoan Katamixar... Txapela eta abarka-mantarrak bear euskaldunen antzekoak osorik izateko...

Ibar aietan belarra Euskalerrian baño aundiago eta mardulagoa zan.

Beiak ere, bai.

Ta, beien txintzarriak...?

Pertzeen antz geiago zeukaten, txintzarriena baño...

-«Aizak, i, Euskaldun...!» (Katamixarrek, neri).

-«Zer dek, Katamixar...?»

-«Orain, Uda asieran, agertu diran auek kanpotarrak dituk...»

-«Orrenbeste neronek ere antz ematen zioet...»

-«Ik ez dakik emengo berri... Arpegi zimel oiek, biak inglesak dituk... Neskazarrak... Azal zimel eta biotz bera... Oiek dituk gure zoriona... Poltxatxo batean urreak zekarzkitek; bestean, berriz, ogi puxketak...»

-«Ogirik jaten al dek ik...?»

-«Ogia txorientzako dek... Urrak, neretzako... Txo-

riak eskura etortzen zaizkiete... Ni, berriz, euren aurrean jartzen naiz, urra ematen dien arte; baña, urra artutakoan, ospa, motell, adar batera urrak jatera... Naikoa egindakoa, sobratzen diranak, arbolapean gorde... Zer deritxok...?»

-«Mutill azkarra eta bizkorra aizela i...»

-«Or datorrenbikote gazte ori ikusten al dek...?»

-«Bai...»

-«Eskon-berriak dituk... Emen agertzen dira egunero... Poza eta zoriona erakin daramakite... Biotz aberatsak, baña poltxak eztiak uste aiñ aberatsik izango dutenik... Orroko banku orretara etorri oi dituk; baña, ni agertzen ba'naiz, neretzako dituk oien kunplimentuak... Ara, zorrotik gozo batzuek atera dizkitek... Nik gozoak baño urrak naiago; besterik ez ba da, ordea, gozoakin konprome...»

-«Ta an datozten aiek...?»

-«Biotza ximurra oiek, urrebitxi eta diamante asko gañean ekarri arren. Biotza legorra. Gastetasuna jun zitzaien denbora baño len. Ez ditek alkarrekin pozik arzen. Bakoitza bere bakardadean bizi dituk...»

-«Alkarrekin zetozte, ba...»

-«Alkarrekin egon, bai; alkarrekin bizi, ez. Ez ditek emen egonaldi luzerik egingo... Ez diat uste... Beti toki berri billa... Auetatik eztiat ezer espero eta banitzoak arbolan gora...»

Gure Katamixar gaur poz-jario dabill.

Tximistea bezela eldu da, piñu enborretik gora, goigoiko puntaren puntaraño. Andik, bere emastetxoari, irrintzi luze pozgarri eta alaia egiten dio... Bai arrek azkar erantzun ere... Orra or nun datorkion bere bidera... Alkarri muxu eman eta ba dijoaz, oianean zear, mundu zabalari bere poza agertu nairik...

-«Antzi, koon...!»

-«Enee...! An, beran, amerikanoak... Ikusten al ditun...?»

-«Bai...»

-«Oiek aberatsak ditun... Urre eta intxaur ederrik ekartzen diñe... Goazen eiengana...!»

Ba-datoz biak, arbolan bera korrika amerikanoen oñetara...

-«Antzi, koon...!»

-«Emen generala... Ateraitzatzue lenbailen urre oiek...!»

-«Antzi, koon...!»

-«Amerikano onek kartera dik gañezka diru ederez... Aldamenean dakarren atsoa ere ez dek makala izango, antioju eta guzti... Argazki makina, kataleju eta, ze ez dakarre gañean bikote onek...! Ni gizonarengana nijo... eta zu, andratxo, emakumearekin konpondu...»

-«Antzi, koon...!»

-«Aitu diat, motell... Geiago gerturatzea nai al dek... ? Egingo diagu ori ere... Ara ni, ire zapata aundiaren ondoan, gora begira... Eskuakin kiñadea egin eta eman ez...? Zer nai dek, ba, geiago...? Ire prakan gora igotzea...?»

Esan bezela, or nun dijoakion amerikanoai, anketan gora, eskumuturreraño... Amerikanoak eskutan duen urra artu eta korri, berriz ere, anketan beera aldameneko arbola adarrera.

-«Eupii...! Ederra zio, benetan... Parre eizak nai badek... Ire kontura gizendu bear diat aurtengo udara onetan... Aukerako okasioa ixilleko poltxa egiteko ere... Ja, ja, ja...!»

Katamixarrek eta bere anderetxoak, biak, partilla ederra egintzuten illunabar artan... Naikoa janda, gogai-

tu zutenean, sobratu zirenak goldio eta belar artean gorde...

Urreungo goizean goizik, an nun billatu nituen biak belar asterketan, besperako jakiak gordeta nun zeuden asmatu eziñik.

-«Katamixar, i orrelako mutill azkarra izan da, nola leike atzoko gordelekua, gaur billatu eziñik ibiltzea...?»

-«A, gizarajoa...! Zer usten dek ik, gordeleku bakar bat egin genduela atzo, ala...? Gordeleku asko ta aizkenerrako danak naastu... Orra ainbe jaki izatearen okerkeria...! Zulo bakar bat izan ba'litz...»

Ala ere topatu zituen beren intxaur eta urre aiek.

Jan zituzten.

Jan ondoren, berriketako gogoia:

-«Aizak, i, euskaldn, Euskalerrria polita dek...»

-«Orixe, bai!»

-«Baña nabarmen xamarra...»

-«Kontuz, gero...! Euskalerririk ez gaizki utzi, nere aurrean, beintzat...!»

-«Nere aurrekoak ere, Euskalerritik etorritakoak ziran... Ango mendietako giroa ohea zan emengoa baño... Emengo elur eta izotzak etziran an...»

-«Zergatik etorri ziñetan, ba, ona...?»

-«Ara, motell: emengo giroa gogorragoa izan da ere, eraman ohea zeukek emengoak angoak baño.»

-«Zergatik?»

-«Ez al dek ire begiz ikusten ze arrera ona egiten diguten gu ikustera datozten guztiak...?»

-«Bai, ori ere ala dek...»

-«Emen, intxaurrak eta urreak... An izan ba'litz...?»

-«Perdigoiak, seguroena.»

-«Alde ederra dagoala, alegia...»

Berriketan ari giñala, an beetik, kanpai-otsa.

-«Ze kanpai soñu dek ori, Katamixar?»

-«Ikusten al dek beko zelaiean eliz-torre estu luzanga ura?»

-«Bai. Ze eliz dek ori?»

-«Protestanteen eliz-naguzia».

-«Polita?»

—«Ta ederra. Gotiko estilokoa. Elizen erdian, mai boro-
bill bat. Emen ez ditek mezak Euskalerrian bezela ematen... Emen izketa eta kantu geiago an baño... Salmoak, batez ere...»

-«An ere salmoak ikasten asiak gaituk...»

-«Ba, lan orretan, lareun urte atzetik zoazte...»

-«Inguru auetan protestante asko altzeudek?»

-«Bertako seme jatorrak, danak dituk protestante...
Kanpotik etorritakoak zerate emengo katolikoak...»

-«Bai, kalean ala izango dek, baño auzoko ballaretan ez dituk baserritarrak protestante izango...»

-«Euskalerriko baserritarrak, katoliko; emengoak, berriz, protestante...»

-«Ori bai dala gauza xelebrea...»

-«Orrek etzeukak xelebrequeririk bat ere...»

-«Nik uste nian protestanteak kale-umeak izango zira-
lara bakarrik...»

-«Emen, ez. Emen, baserritarrak ere protestante...»

-«Nola leike...?»

-«Entenditzen erreza da: erri eta auzoetako apaizak egintziran protestante eta apaizakin batera eliztarrak ere...»

-«Baita, baita... baño protestante jende ori badaezpada-
dako izango da...?»

-«Badaezpadako jendea nun-nai zegok... Emengo protestanteak, ordea, kristau zintzoak dituk, geiengan beintzat.»

-«Burrukan egiten alditek alkarrekin protestante eta katolikoak?»

-«Emen alkarri begirunea eta errespetoa ziotek. Darentzako zegok askatasun osoa...»

Ixillunea sortu zan gure artean eta Katamixarren esanak ausnartzen nengoan. Baña Katamixar itz-jario zegoan:

-«Ikusten al dek or, piñari ertzeko etxearen atarian gizon lodikote bat...?»

-«Lastur'ko kargajasotzallea zirudik...»

-«Ori, mendi-gaiñ auetako semea dek... Zuen elizkatolikoaren bikarioa... Tipo orretakoak ugari ematen dizkiklur onek...»

-«Jende onekin senidearteko egiten ote gera euskaldunak...?»

-«Gaurko eguneko Europa au sortu lendik, izan liteke senideartekoak zuek eta auek izatea... baña orain, emendik Euskalerrira alde aunditxo zegok...»

-«Eztek ainbeste izango...»

-«Nik usten diat baietz... Ala ere emen esaten ditek Euskaldunak Pirineetako suizoak dirala... Asko esan naidik orrek Euskalerraren alde...»

—«Nik ori alderantziz esango nuke, Katamixar: suizoak Alpesetako euskaldunak dirala...»

-«Ezakela pentza itz ori. Euskaldunak, suizon aldetik, asko ikasteko zaudetela, esango nuke nik.»

-«Ze ikasi...? Euskaldunok erri zaar jakintsua gaituk!»

—«Ala izango ziñeten denbora batean; baña, gaurko egunean aldapan bera zoazte eta, martxa onetan, sakoneko aitzetan muturrak ausi arte etzerate geldituko...»

-«Zer, ba...?»

-«Zuen zertasuna galtzen ari zeratelako... Errietako baztar guziak daukazute zikiñ eta loi... Mendietako edergarriak galdu dituzute... Lengo pagadi ta ariztien orde z, zer ipiñi dezute basoetan...? Piñurik itxusiena... Oianak ziran leenago alai eta orbelez jantziak; gaur, berriz, illun-tristeak eta zikiñak errietako kaleertzak eta kamiño-bazterrak bezela... Ezaitzute errien eta erriko gauzeen ajolik iñori...»

-«Aizak, Katamixar, geiegian ari aizela esango nizek...»

-«Geiegian...? Begira ekiek Euskalerriko ibaieeri...»

-«Bai, ba, papelera gaizto oiek...»

-«Erri bat beerago ezin zeikek erori... Atsa ta zikiña dariola... Papelereri kulpa guziak botatzea, erreza da; baña erru guziak ez dituzte paper-fabrikak... Begira ondo erri bakoitzeko ibaieri... Zenbat traste zaar ta erreus dagoazen usteltzen erreka basterretan...»

-«Ala dek ori ere...»

-«Ikusten al dituk or etxeetako atarietan dauden poto zaar aundi oiek...?»

-«Zertarako dituk?»

-«Etxe bakoitzeko zikiñak biltzeko.»

-«Euskalerrian aurrerago gaituk: an, plastikozko poltxa polit txukunetan biltzen dizkiagu etxeko erreusak eta loiak...»

-«Eta ondoren, zer egiten diozute poltxa polit oiri...?»

-«Baztar batera bota.»

-«Keia ta atsa dariola, danen bistan laga... Lenago ere erriak zikiñak ba'zeuden, oraintxen bai jarri diezutela bene-benetako INRI... Ba dakik emen zer egiten dieten pubela-ontzi aundi auei...?»

-«Baztarren batean ustu...»

-«Treneko estaziora eramane, ontziak trenean sartu eta ikusiko ez dan urrutiko baztar batean erre, aukerako labeetan...»

-«Baña guk labeentzako dirurik ez degu...»

—«Ori ez dek arrazoi... Erri askoetan danen bistan erretzen dituk zikiñ oiek... zaborkeria dek oien arrazoi... Besterik etzegok. Ta arduragabekeri ori nundik sortzen dan ba-dakik...?»

-«Ez nauk konturatzen.»

-«Zuetako bakoitzak, norbere gauzetan ajola geiegi;

baña erri guziaren arazoetan ajolik bat ere ez... norberen onerako aprobetxatzeko ezpada.»

-«Ta emen besterik egiten al ditek, ba...»

-«Guztiena dana, bakoitzarena ba'litz bezela jokatu. Baso-mendi erdian gatzek i ta ni. Emengo bide garbi ta txukunak ikusten al dituk...? Zementoakin artutakoak dituk. Begira inguru guziaz, ezetz paper izpi bat topatu... ? Poto zaarrak, gutxiago oraindik...!»

-«Paperai eta poto zaarrai zer egiten ziotek, ba...?»

-«Ara or saskitxo bat piñu enborrari lotuta... Arutzago, beste bat... Bide onek iru kilometro izango ditu gutxi gora-bera baso erditik aurrera... eta zikiñak biltzeko ontzirik ezta paltako bide guzian...»

-«Ta kalean...»

-«Areago... Ik paper punta bat botazak lurrera eta ire ondoren datorrenak jasoko dik...»

-«Ta orroko langille oiek, zertan ari dituk...?»

-«Zotalak ateratzen.»

-«Ta zertarako dituk zotal oiek...?»

-«Ura eramateko tuberiak jartzen ari dituk. Zuloak egiñ baño len, lurgañeko belarra zotaletan ebagi bear ditek. Zotalak gorde ondoren irikitzen ditek lurra. Tuberiak sartu eta lurra beren tokian jarri ondoren, zotalak gañetik eantzi. Irugarren egunerako ez dago an ezeren arrastorik... Belarra garbi askoa, lanean asi aurretikbezela... Begirakiok orain Euskalerriko obra eta laneiri... Begira, begira...!»

-«Izan ere, oiek geiegizkoak dituk...»

-«Norberaren lurra maite danean etzegok geiegizkorik... Erri bakoitzeko bazterrak txukun eta garbi gordezko, guztien laguntzaeta borondate onabear... Zabartu zerate...»

Katagorri etzan izketan aspertzen ere.

Gure erriaren trapu zaarrak ondo asko zekizkiñ arrek, baño nik orrelakoak entzuteko gogorik ez eta izkeltaldia beste ari batetik eramaten saiatu nintzan.

-«Katamixar, an mendi-tontorrean ikusten diran aiek, auntsak ala zer dituk?»

-«Auntsak edo... auntsen antzekoak: basauntsak dituk.»

-«Emengo belardietan jana ba'dute, ondo gizenak egongo dituk onezkero...»

-«Oraintxen zeudek gizen-gizenak.»

-«Ta eiztariak...?»

-«Ogeien bat egun izango dituk eizerako libre dau-denak: Agorrean... Ez lenago eta ez berandugo: ez udan, ez neguan... Orain da garaia. Okela ederrik ekartzen dizkitek menditik kalera. Arrak bakarrik dira iltzeko gai; emerik, ez.»

-«Ta zuei, Katamixar, usten al dizute pakean eiztariak...?»

-«Guri kalte egiteko eiztaririk ez da emen... Okela gutxi degu gañean... Zertarako ilko gaituzte...? Ez al gera, ba, gu basoen pozgarri...? Bai txoriak eta bai guk, emen bizimodu segurua darabilkiguk... Txoriak gizonen eskuetatik ogia jaten ikusi al dek sekula Euskalerrian...?»

-«Ori ere askotxo eskatzea dek...»

-«Ala izango dek, bear bada; emen, ordea, bai txoriak eta bai gizonak ortara oituta zeudek... Suizoak euskaldunak bezela, mendi artean azitakoak dituk eta eizetik bizi izandakoak... Gaurko eguneko oitura auetara jartze-ko, zenbat lan egin bearko zuten beuren buruak ezitzen...»

-«Zenbat Katamixar zerate erri onetan?»

-«Millaka... Ez al gera, ba, oianen apaingarri...?»

-«Ori ez dago ukatzerik... Euskalerriko piñurietan ainbeste ba'leude...!»

—«Gure errukia litzake ona...! Aste betean garbituko lituzteke piñuri baztar guziak...!»

Katamixarrerri zer erantzun enekien...

-«Ze dantzaleku edo ze arraio da an beeran, erriaren erdian, ikusten dan zer ura...?»

-«Euskalerriko denbora bateko pelota-lekuak dira oiek...»

-«Pelotan al dakite emen, ala...?»

-«Ez, motell... Ez nian uste ain tontoa itzanik...! An pelotan bezela, emen ortan ari dirala esan nai nikean... Ez al ditek Euskalerrian pelotan egiten...?»

-«Baa... Zer edo zer, bai...»

—«Pelota-lekuak ba zeudek, ba... Pelotarako ez ba dira, zertarako dituk?»

-«Bai, bai, pelotan ere egiten dek... baña, futbolea geiago...»

-«Futbola, frontoietan...!?»

-«Futbola bakarrik, ez; dantzan ere, bai...»

-«Ezpata-dantzak...?»

-«Ez...! Oraingo dantza berriak... Berbenak eta orrelakoak...»

-«Euskaldunen usairik ere ez dezute gañean... Nun galdu dezute zuen zorioneko Euskalerra ori...? Naaste-borraste...»

-«Euskalerrinari pakean utziok, beingoz beintzat eta esai dak, mesedez, zer ari diran beeko plaza artan...!»

-«Izotzetan, dantzan.»

-«Daoneko izotza badek emen...?»

-«Agorraren erditik aurrera, eguzkia sartu ezkerro, giroa zeretik berakoa iru edo lau gradu izan oi dek... Izotzarekin batera alde egingo ditek emendik udarako turista auek.»

—«Ta neguan ez altzegok emen turistarik...?»

-«Oien berri gutxi zekiat nik. Enbor zaar baten txokotik burua, noizbeinka, ateratzen diat eta mendi guziak arrasto zuriz josita ikusten zetiat... Orduan etzegok ez in-txaur eta ez urrik... Ta irekin aspertu neok eta... agur! Datorren urterarte...!»

Beste kunplimenturik gabe or zijoak Katamixar arbo-
len ipurditik gora, buztana galdu bearrezko laisterke-
tan...

-«Agur...! Agur...!»

Ederrak entzunda gelditu naiz.

Ez nizkion danak ezagutu nai, baña ezagutzekoak di-
rala esango nuke.

-«Agur, Katamixar... Ire itzak, mingarriak baña egi
mardulak... Ta egia eskertzekoa da beti, mingarria izan
arren... Egirik entzuteko almenik ez degun egunean, gal-
duak gera... Eskerrak, Katamixar biotzekoa...!»



FRENTETIK

Udaberria-1937

Etxetik aspaldi urten genduan, gogoratzen al aiz? I ezkerrera eta ni eskubira; aizkenean biok sarean preso. Artilleriakoa nintzelarik, ni Gazteizara, i berriz pistoloen artera:

«Artilleria es el oro / caballeria la plata
ingenieros y pistolos / es moneda que no pasa.
Es moneda que no pasa / y que no debe pasar
porque la infanteria es una calamidad...»

Arro gebiltzan Joseba eta ni, biok, bonbak gure alkandora kakietan ginduztela... Ez alperrik. Molari Columna Waterman eratzea etorri zaio burura eta ona emen gu, txupatinta guztiok, geure entxufeetatik atereak, larrabeiak bezala, mendi zabalera. Ez dek aspaldidanik geure berririk. Waterman tinta marka bat dek eta watermandarroak Mirandako azukra-ola batean bildu ginduzten. Milla mutil gazte, eskribatuak, fabrika baten sartuta aginduen zai, nundik-norakoa dan ez dan alferez baten menpean eta berarekin bi sargento: bat trenbideko makinista eta beste biak fogoneroak, ikatza makinan sartzen

ondo dakitenak. Renfekoak, militarizatu dituzten ezkerro, ditek fogoneroak orrelako kategoria. Lista pasatzekoan asi zan «Simoni Siguen»... Zein da Simoni Siguen? Agerreko Pello inguratu zitzaion ikustera eta onela esan zion: Aizu, au suminstroko lista dezu eta or jartzen duena Suma y Sigue da. Ez zitzaion aurpegirik gorritu. Aldatu zitun paperak eta artan ari zala, berriro estropozo: Dominguez Irigoyo... Zein da Dominguez Irigoyo...? Nere aldameneko laguna altxa eta Ni naiz Domingo Irigoyen esan zion... *Es que teneis unos nombres tan jodidos...* Orretarako beintzat ez ditek asko balio; gerratean obeak ez badituk, auenak egin dik... Bigarren egunerako alferza eta gure sargento biak artu ginduzten por *elpito delse-reno*, auntzaren gau-erdiko estulari baiño kasu geiago ez genioen egiten... Gure kaxernak erlauntza zirudian erregiñak alde eginda gero... Bakoitza bere aldetik aginteari kasurik egin gabe. Irugarren egunerako falanjista konpañi bat bialdu ziguten fusil-muturretan baionetak zituztela. Ez zan txantxetako gauza. Sakabatu ginduzten *bata-llones de castigo* diralako oietara eta arrezkero emen nengoak Afrikako gudarostean, moroz inguraturik. Alkarrekin gabiltzatek eraso aldietan. Ez ditek fama eder-ederra. Auen prakak gonon antzekoak dituk, belaunetan biltzen diranak eta gerritik belaunetara bolsa baten antza zeukatek. ortxe gordetzen dizkitek euren lapurreta guztiak. Emen esaten ditek auetako batek or zeramala gordeta giza-buru bat, urrezko ortza zuelako, gero gabean ortz ori kentzeko asmoz. Ala dan ala ez, Jainkoak zekik; ni eurakin ez naiz batere piatzen; balekite nere poltxan lareun pezta eramaten ditudala, onezkero il ninduen aiek lapurtzeko. Tiroak aurretik eta aldamenetik berdin-berdin etorri lezazke. Baiña, ez pentsa gaizki gaudenik. Zuek or Gernika, Durango, Amorebieta eta Bilbon egazkiñen erasoak jasotzen dituzuten bitartean, gu emen zanga eta erreten auetan sarturik karakolak bezala eguzkitan ala lo-katzetan, baiña patxada ederrean.

Ekonomia ikasten ari gaituk eta balak beste baterako gordetzen; aspaldiko egunetan pakea erabakita zeukagu gure artean. Txoriak pasatzean botatzen diagu tirorik geienak. Burrurak alkarrizkeetarako gordetzen zetiagu. Trintxera gaiñetik altabozakin: *Hijos de la Pasionaria, vaya madre que os ha salido esa hija mayor de la Republica publica...! —Y vosotros, que sois, ganapanes y destripaterrones analfabetos, hijos de Mola el bestia, que os hemos hundido el acorazado España. Estdis perdidos desgraciaos...* Aizkenean zera erabaki diagu: partidu futbola jokatzea zein dan geiago probatzeko. Bitarte onetan, ni maixua naizela jakin duanean koronelak, «*sargento provisional*» izendatu nau. *Simoni Siguen* esateko aiña banauk. Aspertu xamartuta gaudek emengo pakearekin eta kapitaniari esan zioat etxean badegula gramofonotxo bat eta pozik ekarriko neukela, billa joateko baimena ematen badi. Baietz esan dit eta pozarren nago etxean agertzeko gurasoeiri besarkada bat emateko. Ez ziet ezer esan badaezbada ere; gauzak aizea bezala aldatzen dituk eta gaur ez jakin biar zer gertatuko dan. Orrelako suerterik banu... Besarkada aundi bat.

KOLDO

Kuarteletik frentera 1937. Uda-asieran

Kaixo: Etorri ari lenbailen eta eraman itzak etxeko traste guztiak, orrek aukera ematen badik ama ikusteko. Burrukatik egun pare bat alde egiteagaitik merezi dik soiñuak eta bost eramatea. Zeiñek daki noiz izanen dekan beste orrenbesteko aukera. Gerratera joatean, noiz oan badakik, noiz itzuliko, ordea, orixe bai iñortxok ez daki. Ogeita amairu lagun kidekoak eraman ginduzten gerrara beartuta moltso bakar batean; aietatik, urte bete baiño lenago, zortzi etorrita zeudek betirako zerraldo batean etzanik. *Ya les han hecho el traje de pino*, kuarztelean

esaten danez. Egurrezko soñeko asko datoz gure errieta-
ra bolara onetan. Bizirik etortzeko aukera badek, etorri
naiz eta etxeko dote guztiak irekin gerratera eraman. Ja-
kin al dek Mikelen berri? Beste aldetik da Santander in-
guruan. Gure lagunen erdiak Bilbotik aruntz abiatuta di-
tuk Eusko-gudarostean. Galdetu zak trintxeretako mili-
zianoen bidetik lagunen aztarranik ateratzen dekan.
Emendik dabiltzanak bazetoztek banan-banan «fianbre»
bihurturik. Sarearen beste aldean gelditu ziranen berririk
ez diagu. Joxe eta Bixente Altobizkar alde ontatik, bere
anai Pello eta Txus bestetik alkarri tiroka. Au dek mada-
rikazioa, au... Bilbo erori danean, joandan astean, ikuste-
koa emengo zalaparta eta festa. Generala jo ziten, mundu
guztia, zeudenak zeuden bezala utzi, eta patioan forma-
tzeko, andik manifestaziora abiatzeko. Anton eta ni bule-
goan gelditu giñan andik mogitzeke, iñora joan gabe. Ez
dek iñor konturatu, bestela onezkero frentean geundean:
Madrid inguruan gertuena. An gauzak estu zeudek, nun-
bait. Emen ari gaituk dinamita karrokada prestatzen.
Alako batean, or joango gaituk aidean San Pedroren bi-
zarrak ikustera. Injenierotan negok: zapadores minado-
res. Iri kaso eginda, pistoloetatik alde egin eta ingeniero-
tan sartu ninduan, nere soldadu-kartilla zaarrak esaten
zuan bezala.

Iruñeako Caja de Reclutas nere billa ibilliko dek, asti-
rik badu, nun galdu nintzan argitu eziñik. Kuartel oneta-
ko batallioiak Madrideko Ciudad Universitariako fren-
tean zeudek mina eta kontraminarako burruka bildurga-
rrian. Aiek mina bat zulatzen dutenean, zarata entzuten
da artarako tresnekin, bitartean beste kontra-mina bat
zulatu bearke. Ori bai dala estropada latza. Lenen eltzen
danak bialtzen dik bestea pikutara aidean. Mina eta Kon-
tra-minak trintxera azpitan egiten diranez, erruki diz-
kiat guardian egon bear duten soldadu gizarajoak, ezin
bait da trintxerak utzik laga. Dar-darrez eta kaka dariola,
bakoitzaren ordu-erdiko guardia, egun osoa baiño luzea-

go. Einsteinen errelatibitatea ementxen agertzen dek ondotxo: ordu-erdi eguna bezin luze, urtea bezin luze, betikotasuna bezin luze... An eutsi bear, noiz mina leertuko dan zai; iges egiten duanari tiroa ematen bait diote errukirik gabe. Gerrate au noiz eta nundik bukatuko dan seiñalerik ez dek iñun agertzen. Orma zaar baten aurrean bizi nauk, ikuskizunik gabe. «*Si esto es guerra, vengan balas*» entzun nion soldadu bateri. Posible ote da onelako desastre batean norberak probetxu ateratzea orrenbestelako astakeria esan al izateko? Tamalez ala izanen da. Aragi ustelak ere mamorro lodi aundiak ernetzen ditu. Orrelako mamorrerik ez da emen falta. Cabo furrielak ogi-txuskoak banatzen dizkik eta bere lagunentzako ez dira paltatzen eskupekoz emanak. Soldadu rantxeroak (Zein dan? Koipez eta zikiñez estalitako buzoa darama, Kaxernako zikeñena, orixe dezu rantxeroa) berak jaten dizkik patatak dakarkiten okela apurra. Soldadu talde bat errebajatuta gaudek eta baimena badegu Kuarteletik kanpo jateko. Eguerdiero eta gabero irurogei jateko gutxiago, diru mordoska izango dek, ala ez? Ik ere, sargento provisional orrek, izango dek orrelako entxuferen bat, ala ez? Ire aurrepenekin olla-lokea sei txitorekin erosiko diagu. Jai-arratsaldez emen nago Jefearen telefonoa zaintzen; gau eta egun zaindu bear omendik. Zertarako? Nik jakin ez, baiña *donde hay patron no manda marinero* eta bein kaboen seiñaleak ezkumuturrean eraman ezkerro, eztabaidak bereala amaitzen dituk; beatzarekin esku-muturreko galoiak erakutsi ezanez; *Los galones estdn sobre las razones*. Eta orrenbestez, eure itzak irentsi itzek zintzurretik beera. Barkatu aidak, hermano, ez ninduan gogoratzen i sargento provisional aizenik. Oraintxen jo dik telefonoak. Nagusia dek emen ote nagoen konprobatzen. Astegunez dinamita-zorroak bete eta jai-egunean telefono alu oneri begira egon. Alaz ere, zuek trintxeretan zaudetela gogoratuz, pozik emen. Madridedeko Ciudad Universitaria baiño ohea baduk beintzat. Bake luzea opa

dizuet mendi oietan; baiña, ez ari geiegi piatu eta eskeiñi egiok kapitanari gure etxe osoa, errira etortzeko aukera izan dekan. Biotzetik. Ire anai.

Premín

Uda azkena-1937

Udara aurrera zijoan.

Dinamita kargatzeari utzi eta alfabetatze lanera aldatu ninduen. Nere anaiari baimena eman zioten etxera etortzeko, gramofono txatxar ura frentera eramateko.

Soiñu ura izan ez balitz, ez nuan anairik sekulan bizi-rik ikusiko. Santanderko frentea, Bilbo erori ondoren, mogitzen asita zegoen; ez dakit aurrerantz musikarako astirik izanen duten. Ez dut uste.

Santander erori zan errez, ondartzan egiñiko torrea lenengo olatuakin ondutzen dan atzera. Gerora, ordea, Asturiaseko aitz gorriak agertu ziranean, ez zan txantxetako jolasa izan. Kristau askok utzi zituzten beuron ezurrak ar-kaitz aien artean.

-Eme a, ma; eme i, mi; eme o, mo...

Donostiako kuarelean nengoan alfabetatze lanean; soldadu aiei irakurtzen erakusteko asmoz. Analfabeto utsak ziran. Ni, berriz, apaizgaia eta apaizgoa artzera nintzoan egun gutxi barru. Gerratean izan arren, zortzi eguneko baimena eskatuta neukan, gogojardun edo ejerzizio espiritualak egiñ eta apaiz egiteko.

Amaren poza etxeratu nintzanean. Bazkaritako eldu nintzan. Kafea artuta baratzara jetxi nintzan. Gure atarian norbait zebillen eta nengoan tokitik entzun nitun zaratak:

-Ama, ate-joka norbait.

—Ireki zak atea.

-Zer dezu? Esan nion karteroari.

-Telegrama bat frentetik.

Biotza gelditu zitzaidan seko. Beatzak dar-dar, iriki nuan papere urdiña: «Koldo illa Picos de Europako mendietan».

-Erakutsiak paper ori!

Begiak lurrean erakutsi nion amari telegrama ura. Aulkitxo batean eseri zan, ez bait zioten oiñek gorputzik eusten...

Amak negar.

Begiak legor neuzkan. Atsekabea biotzean:

-Ez negarrik egin, ama.

-Ez negarrik egin...! Oiek al dira ama bateri esateko itzak...? Ez negarrik egin...! Zer eginbear det, ba...? Jau-na, egin bedi zure borondatea...

Koldo zein zan?

Koldobika ipiñi zioten izena bataioan. Nere anai gazteagoa. Eskola-maixutarako estudioak espaldi egiñak zitun. Oso gazterik. Gerrateak frentera eramana zeukan aspaldi. Frentera ezkerre bein etorri zitzaigun etxera egun bakar baterako...

Mutil normala genduan, lagun-arte jatorrekoa, nabarmenkizunik gabe. Gerratera ots egin zioten eta gudara joanik zan. Amalau illabete, soldadu jantzian, zera-mazkian, albiste txar ura gure etxera aldu zanerako. Amalau illabete aietan bein bakarrik ikusi genduan danok etxean. Zekarzkin jantzi guztiak baratzean utzi zitun, barrura sartu baiño leenago. Soiñetik kendutako jantzie-tan, kamioi baten antzeko zorri beltzak ugari...

-Osaba, lagunduko al didazu Koldoren gorputza bi-llatzen...?

-Baiña, aurretik automobilla bearko degu...

-Eta, nun billatu automobilik...?

Ez zan gauza erreza egun aietan berebil bat billatzea!
Orduan zeuden apurrak etenik gabe zebiltzen frentera bidean mutil gazteen gorputzen billa... Ogeita hamar kilometroko inguruan arkitu genduan bat, orratio. Gure zorriona. Miña kilometro egiñak zitun berri artan eta ez genion deskansurik eman. Unerik gabe artu eta gurekin eramán genduan beste milla kilometro egitera...

Santa Teresa eguna zan.

Urrillak 15.

Urtea 1937.

Egungentia baiño lenago irten eta arratsaldeko bos-teetan eldu giñan Picos de Europa inguruko errixka batera. Mendi gorri izugarriak begien aurrean. Itsura zaarreko dozenerdi bat etxe ziran erriko etxe guztiak. Batallon de Ceriñola N.º 6 billatu bear nuan. Etxe zaar aietako batean zegoan Batailloiko sarjentoa, gaxorik, pasilloaren muturrean lurrean eserita. Beraren inguruan kabo eta soldadu bat. Iru lagun:

-Koldoren berri jakin nai genuke.

-Bai, kanpusantura ekarrita daukagu. An dago eortzita.

-Noiz ilda?

-Ziur ez dakigu. Lau egun dira gorpuak bildu ginduztela...

-Nundikbildu...?

-Menditik beera bota zituzten eta or egon dira, iru egun oso, eriak eta illak alkarrekin sakon batean, euregana gerturatzerik izan ez bait degu...

-Bide-erdian, ala nola zeuden, ba...?

-Sakon bateko erdi-bidean zeuden alde batetik eta bestetik; an egon dira iru egunez eun eta amairu lagun. Batzuek eriak, baifio bizirik eta besteak ilda billatu dizkitugu.

-Erakutsi eidazu illerri ori nun dan, gorputza jasotzeko.

-Onek lagunduko dizu.

Soldaduak lagundu zidan kanpusantura. Osaba ere nerekin zebillen batetik bestera. Kabo bat zegoan an ille-
rriaren zaindari eta nere gogoia agertu nion:

-Ez dakit ziur nun sartuta egongo dan. Eskubiko zulo onetan amaika gorputz daude eortzita; eskerrekoan, be-
rriz, zazpi.

-Gorputzei ezaugarriak ipini diozute: medaillaren bat, bere zenbakiakin, botilla utseren bat bere izenakin papertxo batean...

-Ez, ez diegu ezertxo ere ipiñi. Zure anaia bi zulo auetako batean dago.

-Zein zulotan dan ez dakizu...?

-Ez. Eskubikoan, amaika; ezkerrekoan, zazpi... Nun-
dik asiko naiz?

-Geiago dauden zulotik asi, aukera ohea izango degu or.

~ ~ ~

Nere osabari begiratu bat emateko burua alderatu nuan, zer iruditzen zitzaion galdetzeko; baiña, alperrik; alde eginda zegoan... Arnasik ez egoera ura aurrera eramateko... Bakarrik gelditu nintzan. Biotza neukan zintzurtean eta urdailla oiñetan.

Atxurak lurra, lur beltza, urratzen asi zan. Laister agertu zan gorputz bat. Atera zuten kanpora, arpegia eta soiñekoak lurrez estalita:

-Ez, ori ez da.

Kaki jantziak berriro lurrakin naasi.

-Ez, ori ere ez.

—Iruigarrena agertu zan.

-Ez, ori ere ez.

Laugarrena... Bosgarrena...

-Ez, ori ere ez.

Seigarrena manta batean bilduta atera zuten eta oiñak zitun eztagarritik kanpora:

-Orixeda!

Ekarri zidaten aldamenara eta ezalkia kendu nion arpegitik. Umeak giñala, Lekeitioko kaiean, armailla batzuetan goitik-beera erorita, okozpean ebaki baten arrastoa zeukan. Uraxe ikusi nai nion, naiz eta nik arrasto orren bearrik izan ez nere anaia Koldobikaren gorputza ezagutzeko: bistan zetozten oiñetako beatz lodietan antz eman nion bera zala. Biok genduzkan beatz oiek berdin-berdiñak.

Zilarrezko bost duro aundi eman nizkion illerri-zaindariari eta besterik gabe jaso nuan gorputza automobilera, bertan genkarren il-kutxara. Ordu bete baiño leen bukatu ginduzen lan guztiak. Egia esan, lapurretan bezala genbiltzan, iñori iñungo baimenik eskatu gabe.

Gogoan neukan pakean eta pozik amari gorputza eramatea nere eskuetan zegoalako eta une artan arentzako gauza pozgarriagorik ez bait zegoan iñun ezer... Zenbat amek galtzen zituzten semeak eguneroko burruka larri artan eta sekulan ez dute jakin nun eta nola. Semea galtzea da bat eta bere gorpua nun dan sekulan ez jakitea, beste bat. Nik ordu betean nun eta nola il zan eta gorpua nun zegoan ikasi nuan.

Pakea eta poza izan arren nerekin, eta Jainkoari eskerak eman arren gure arazoak bide ain errezetik zijoaztelako, kezkek eta korapilloak ez ziran falta nere biotzean. Bosteun kilometroko bidea gendukan etxeraiño eta, ainbeste egun illik zeraman gorputza, nola elduko ote zan etxera...?

Gorputza billutsik zetorren, narru gorrietan. Bateren batek zitunak gaiñetik kendu zizkion ezertxo ere utzi gabe. Gorputza nuan nerekin eta, ez zan ori gutxi; baiña, besterik ezertxo ere ez. Begiak zitun zabal-zabalik eta lurrez zikin-zikin...

Arratsaldeko seirak ziran. Illunabarra, etxeruntz abiatu giñanian. Bideak autsez beteak, gidaria nekatuta ainbeste eguneko lanez; gaueko amaiketean eldu giñan Palentziara ostatu baten aurrera. Apaldu ondoren, berriro bidera. Burgosen kamiño-baztarrean gelditu ere bai, txoferrak lo-kuluxka bat egin zezan. Laiño itsua ondoren. Nekez egin genduzan bosteun kilometroak.

Etxera orduko, lagun batzuenan gelditu giñan, ezin bait zezaiokean itxura artan gorputza amari erakutsi. Bizarra moztu; arpegia eta batez-ere begiak garbitu, gorputza ez-ezik; soiñeko egokiaz jantzi... Itxuraz aldatu gendun. Tiroa zeukan gerrian eta amildu zanean zauriak egin zitun atzetik bizkarrezurrean eta buruan; baiña, arpegian urratu txiki bat besterik ez. Lo zegoan. Amak ez zizkion zauriak ikusi; galdetu ere ez...

-Zortzi eguneko gorputzak trato oiek jaso al lezazke...?

Arrek, bai, eta orixe zan arritzekoa. Zergaitik? Eriotz-orduan urdailla zeukan utsik (ez bait zuten bi egunez jatekorik probatu), odol-ustu zan zaurietatik, garaia zan otza, tokia altua, gorputza lur-arrean gorderik... Dana dala eta dena den, usairik ez zuan batere, giarrak zeuzkan bigun eta, ekarri ondoren, beste ogeitalau ordu luze iraun zuan etxean. Lurperatzeko une artan bekokian eman nion musuak, otzik utzi zizkidan ezpañak.

Zer zan soldadutxo baten eriotza gerrate ikaragarri artan? Ezer ez.

Bakoitza bere arlorra. Emen ez da ezer pasa, amaren biotzean ezik. Beste aldetik, berriz, oituta geuden gerratean ildako mutil gazteak ikusten baztar guztietan...

Andik sortzi egunera egin ninduten apaiz. Jaia zan. Urrillak 24. Astelenean kuartelera berriro. Ekin nion

leengo lanari: eme a ma, eme e me, eme i mi, eme o mo, eme u mu... Alfabetatze lana ere «obra miseriakordiozko» bat omen da. Segi artan.

Bigaramonean kuarteleko karteroa neregana:

-Aizak i, karta bat iretzat.

-Neretzat?

-I izango aiz Fermin Iturralde, ala ez.

-Bai, ofizialki ala naiz; baiña, nere gurasoen borondatea Premin izena ipintzekoa zan...

-Bo, emen beste Ferminik ez zegok; artzak frentetik datorren eskutitz au.

Zein ote zan frentetik nerekin akordatzen zana...?. Ireki det eskutitz ori. Arkatzez, lapitzez, idatzita zetorren. Zeñena izango eta nere anai il-berriarena ez zan ba...! Ona zortzi zegun il-aurretik zer esaten zidan karta artan: itzez-itz.

Frentetik: 29-IX-1937

Anai biotzekoa:... beste gauza batek jartzen nau triste: ire Meza berrira joan eziñak... Ire egun zoragarriorretan presente egon nai nitek, Premin. Ondoren frentera etortzerik ez litzaidake ezertxo ere inporta eta bizia ematerik, bear balitz, ere ez. Egun gorri asko ikusiak gaituk, baiña iltzerik ez zaidak inporta; ez diat iltzeko batere bildurrik. Ez ukek sinistuko zer trankil nabillen arriskurik aundienetan ere. Zenbait egunez, aurrera gingoazen bezela, bala baten ikutua deseo izaten nian, ez emen be ontako sufrimentuak amaitzeko, betiko zorionera iristeko gogo biziagaitik, baizik. Ori gertatuko balitz, ez nere penarik izan. Aita-amak konsola itzak eta zeruan zuen alde ekingo duen anai bat dekala, gogoratu zak. Ez zak uste bildurragaitik ari. Zergaitik ari naizen? Ara, gauza auxe sartu zaidak buruan: gizonak bere anima salbatzea duela eginkizunik garrantzitsuena eta nik ez diat nere

galdu nai. Asieran, gerrate onetan, bildurtia ninduan; baiña, geroko itxaropenak egin nau ausarta eta baliente. Miñik larrienetan, nere animaren onerako zirela pentsa eta ez ninduan geiago eurokin gogorazen; inguruan balak entzutean, aietako batek zoriona ekar lezakela pentsatuta, Erriko enparantzan banego bezin trankil gelditzen ninduan. Geiago idazteko astirik ez diat, orain bertan lanak zeuzkat egiteko. Besarkada luze bat. Maite aut, anai.

Koldo
1985

(Gertatua)

